



ETORKINAK ERE BAI

IRUNGO

ETORKI(ZU)NEAN



“Gizakiok hegal bakarreko aingeruak gara. Hegan egiteko, elkartu egin beharra daukagu ”

Hegoafrikako atsotitza

AURKIBIDEA

Aitzinsolasa

1. ZEIN MUNDUTAN BIZI GARA?

GLOBALIZAZIOAREN ONDORIO EKONOMIKOAK, SOZIALAK, SOZIOLINGUISTIKOAK, HEZKUNTZAZKOAK ETA POLITIKOAK

- 1.1. Multinazional handiak, munduko nagusi**
- 1.2. Teknologia berrien hedapena, hizkuntza gutxituen alde ala aurka?**
- 1.3. Hizkuntzak eta beren rola gizartean**
- 1.4. Globalizazioaren biktimak: etorkinen fenomenoa**
- 1.5. Hezkuntzaren garrantzia arrazakeriari aurre egiteko**
 - 1.5.1. Bakearen kulturarako Fundazioa
- 1.6. Zer esan nahi du etorkin hitzak?**
 - 1.6.1 Itsasoz bestaldeko definizio bat
 - 1.6.2. Euskal Herriko hurbilpen bat eta galdera asko
 - 1.6.3. Immigrazio kontzeptua EAeko immigrazio planean



2. IRUN, GURE TXOKOA

2.1. Irungo kokapena eta auzoak

2.2. Irun zenbakitan

2.2.1. Irun: hiria hazten ari da

2.2.2. Beste datu interesgarri batzuk

2.3. Mende bateko gertakariak

2.4. Mugaren ondoan egotearen hainbat ondorio

2.4.1. Kontrabandoa.

2.4.2. Aduanaren historia eta garrantzia. Trenbidea

2.4.3. Frantseseraren presentzia Irun-Hondarribian.

2.4.4. Bidasotarrok eta irundarrok ere etorkinak izan gara

2.5. Irungo egoera soziolinguistikoa

2.5.1. Motibazioa, gaitasuna eta erabilera

2.5.2. Ezagutza eta erabilera aurrez aurre: ama hizkuntza eta etxeko hizkuntza

2.5.3. Gaitasuna hobetzeko bideak: hezkuntza eta euskaltegiak

2.5.3.1. Hezkuntza

2.5.3.2. Irungo euskaltegien datuak

2.5.4. Kale erabilerari buruzko datuak

2.5.5. Ondorioak

2.6. Irakaskuntzaren A, B eta D ereduaren inguruko azalpen batzuk

2.6.1. Felix Etxebarriaren ikuspuntua

2.6.2. Hizkuntzen garapen osoa eta berdintasunaren diskurtsoa

2.6.3. Euskararen eta gaztelaniaren ezagutza bermatu beharko litzateke

3. ETORKINEN FENOMENOA: ERANTZUN BEHARREKO ERRONKA

3.1. Zenbat etorkin daude gure inguruan?

3.1.1. Nafarroako datuak

3.1.2. EAEn datuak

3.1.3. Ikasle etorkinak eta hezkuntza eredia Nafarroan eta EAEn

3.1.4. Espainiako datuak

3.1.5. Immigrazioa estatu espainolean eta EAEn

3.1.6. Europako datuak. Biztanle kopuruaren bilakaera Europako Elkartean



3.2. Zenbat etorkin daude Irunen?

- 3.2.1. Ume etorkinen kopuruaren bilakaera Gipuzkoan ereduaren eta sarearen arabera.
- 3.2.2. Irungo haur etorkinen kopuru erlatiboa, jatorriaren arabera
- 3.2.3. Haur etorkinen matrikulazioak eskolen eta sarearen arabera

3.3. Irungo Udala eta etorkin atzeritarrak

- 3.3.1. Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua
- 3.3.2. Irungo Udalak (Ongizate Arloak) kanpoko immigranteei laguntzeko bultzatu dituen programak eta jarduerak

3.3.3. Irungo Tokiko Immigrazio plana 2004-2006

- 3.3.3.1. Integralitatearen printzipioa
- 3.3.3.2. Prebentzioa
- 3.3.3.3. Normalizazioa
- 3.3.3.4. Ebaluazioa

3.3.4. Ongietorriak programa

3.4. Immigrazioa Euskal Herrian eta horren eragina euskararen egoera linguistikoan

- 3.4.1. Zerbait aldatu da
- 3.4.2. Hizkuntza integrazioa
- 3.4.3. Bi hizkuntza
- 3.4.4. Zenbait Faktore gure egoera linguistikoa ulertzeko
 - 3.4.4.1. Euskara normalizatu gabe dagoen hizkuntza da.
 - 3.4.4.2. Etorri berriei gure arazo soziolinguistikoak arrotz zaizkie.
 - 3.4.4.3. Euskara ikasteko arrazoiak behar dituzte
 - 3.4.4.4. Ondo esplikatzen al diegu gure egoera soziolinguistikoa?
 - 3.4.4.5. Ikusi behar dute beren seme-alabek euskara ikastea garrantzitsua dela.
 - 3.4.4.6. Hizkuntza kalean ikasten da
 - 3.4.4.7. Mesfidantza kulturala
- 3.4.5. Etorkinen seme-alabak eskolatzean kontuan hartu behar diren faktoreak
 - 3.4.5.1. Kontuan hartu beharreko beste faktore batzuk
 - 3.4.5.2. Euskara ez ikastea aukeratzen bada
 - 3.4.5.3. Euskara ikastea aukeratzen bada
 - 3.4.5.4. Etorkinen hizkuntzak

3.4.6. Kataluniako esperientziak, Euskal Herrian kontatuak



- 3.4.6.1. Eskolaren rola
- 3.4.6.2. Helduen integrazioa
- 3.4.6.3. Hizkuntza aniztasunaren etorkizuna

3.5. AISA ikastaroak



Aitzinsolasa

Mundu mailan bizitzen ari garen globalizazioaren prozesu geldiezinak nahikoa etorkizun beltza dakarkie kultura eta hizkuntza gutxituei. Azken mendeetan mundu mailan gertatu diren fenomenoek (demografia aldaketak, herrietatik hirietarako bizimodu aldaketa, emigrazioa, faktore ekonomikoak, militarrek eta politikoak, herrialdeen administrazioen garapena, aldaketa soziokulturalak, familiaren atomizazioa eta disgregazioa...) eragin handia izan dute gizaki guztiongan. Aldaketa fenomeno hau, azken hamarkadetan bizimodu modernoaren eta teknologia berrien garapenarekin batera, progresio geometriko baten indarrak ari da gauzatzen.

Sakontze egitasmo honen helburu nagusia immigranteen gaiari *begirada* berri bat bilatzea da. Gai honek gure gizartean sortzen duen beldurak eraginda, politikoek hainbat neurri hartu dituzte: etorkinen eskubideak gutxitzen dituzten legeak edo immigrazioaren aurkako legeak. Nire ustez, beldurra ez da bidaiialagun egokia, beldurra ez baita balore bat. Mundu mailan gertatzen ari diren aldaketak neurri batean geldiezinak badira ere, lan handia egin dezakegu aldaketa horiek onuragarriak izateko. Baina horretarako, baloreek berez daukaten garrantzia aintzat hartu behar dugu: tolerantzia, askatasuna, berdintasuna edo errespetua ... Horiek bultzatu ezean gure zibilizazioak ez du etorkizunik izango. Horrexegatik eman diot hain garrantzi handia hezkuntzari, hezkuntza baita geure etorkizuna eraikitzeko tresna inportanteena.

Lantxo hau mota askotako jenderentzat idatzi dut, edo horixe izan da nire asmoa, behintzat: hango eta hemengo irakasleentzat, hango eta hemengo gurasoentzat, etorri berriak direnentzat, bertakoentzat... Alde batetik, lan honetan saiatuko naiz zertzelada batzuk ematen irundarrok nondik gatozen eta nola bizi izan garen azaltzeko; eta, bestetik, gure gizartean planteatzen ari diren gaiak ere ekarri ditut hona: hezkuntza eredu, kulturartekotasuna, hizkuntza eskubideak...

XXI. mendearen hasierako urte hauek ezin egokiagoak dirudite euskarari buruz pentsatzeko eta hausnartzeko. Batetik, orain badugu, duela hamarkada batzuk ez bezala, eskarmentu soziolinguistiko luzetxoa, non egindakoaren argi-ilunei sakon errepara baitieziaiekegu. Bestetik, ezin ditugu ahaztu azken hamarkadotan ingurune soziopolitikoan gertatu diren aldaketak, zeinek bizi-baldintza berriak ezartzen baitizkiete hizkuntzei. Iñaki Martínez de Luna.

Orain, irakurle, lan hau zure gustukua izatea, besterik ez da falta!



“Ez dut ikusi nahi nire etxea alde guztietatik harresitua ezta leihoak guztiz itxita ere. Nik mundu osoko kulturen hatsa sentitu nahi dut nire sutondo-txokoan, ahalik eta libreen, baina ez nago prest haietako batek ni aiena nazan.”

Mahatma Gandhi

1. ZEIN MUNDUTAN BIZI GARA?

Globalizazioaren ondorio ekonomikoak, sozialak, soziolinguistikoak, hezkuntzazkoak eta politikoak

Nazio Batuek argitaratu duten **Giza Garapenari buruzko Txostenaren** arabera (Informe sobre el Desarrollo Humano 2004), gaur egun bizi dugun globalizazioaren fenomenoak aldaketa sakonak sortzen ari da mundu osoko herrietan eta kulturetan. Munduan mila milioi lagun nozitzen ari dira bazterketa kultural motaren bat; honela, kultura-askatasuna bultzatzea erronka handia da. Baina arazoa ez da hor bukatzen: arlo sozial, ekonomikoa eta politikoan, diskriminazioa sufritzen ari direnen kopurua ia bi aldiz handiagoa da.

Mundu mailan jendea lehen baino askoz indar handiagoaz eskatzen ari da bere nortasun kulturalarekiko errespetua; gero eta kontzienteagoa da askatasun kulturalaren garrantziaz justizian oinarritutako gizartea eraikitzeko. Askatasun kulturalaz ari garelarik, ez dugu ahaztu behar ama-hizkuntzaren garrantzia: beste kultura boteretsuagoarekiko **asimilazioa** ekidin nahi badugu, ez diegu bakarrik begiratu behar onura ekonomikoei, sozialei eta politikoei.

Hizkuntza gizabanakoaren identitatearen elementu garrantzitsuenetako bat da, baina gizabanakoak aukeratu behar badu zer nahiago duen: etorkizun hobea ala bere ama-hizkuntza; ikusiko dugu ez duela era librean aukeratzeko, baizik eta beharrak bultzatuta. Munduan etengabe gertatzen ari da beharrak bultzatutako asimilazioa eta hau guztia kultura aniztasunaren kalterako da. Gainera, talde kulturalen errepresiora eta asimilaziora bultzatzea moralki ez da batere zuzena eta zenbait lekutan, tentsio politikoaren eta liskarren sorburua ere izan daiteke.

Mendebaldeko kulturaren eragin handiak zailtzen du beste kulturen biziraupena. Bizi garen mundu zibilizatuan, kontsumismoaren bultzada ere nabaritzen da garapen prozesuan ari diren herrietan. Teorian, denok dugu bizimodu propioa aukeratzeko eskubidea, baina kontuan hartu behar dugu herri txiroenek, beren kultura eta bizimodua



mantendu nahi badute behintzat, mendebaldeko eraginari aurre egiteko kapaz izan behar dutela.

Oso zaila da globalizazio ekonomikoak dakartzan botere eta merkatu-kulturaren indarrei aurre egitea. Merkatu-ekonomiak, errekurtsoen behar ase ezinak eragin handia dauka herri guztietan. Gainera, ez dugu ahaztu behar eragin hori asimetrikoa dela. Hau da, Mendebaldeko herrialdeak besteak baino askoz boteretsuagoak dira, baina munduan badago beste asimetria bat, Iparraren eta Hegoaren artean. Honekin esan nahi dut kasu askotan herrialdeen arteko botere-maila aldea hain da izugarri handia, non ezin baitira inolaz ere alderatu. Asimetria horren ondorioz, beste herrien kulturak ere arriskuan daude (hizkuntzak, poesia, antzerkia, musika, dantzak, jateko ohiturak...).

Lehen esan bezala, oso zaila litzateke planteatzea globalizazioa eta elkartruke ekonomikoa deuseztatzea: alde batetik, nazioarteko merkataritzak ezinbesteko onurak ekar diezaikeelako herrialde txiroenei, eta, bestalde, etengabeko elkarreragina gertatzen den mundu batean oso zaila delako lan-banaketaren indarrari aurre egitea.

1.1. MULTINAZIONAL HANDIAK, MUNDUKO NAGUSI

Enpresa multinazionalen etekinak ugaritu ahala, munduan barna hedatzen dira eta metatu egiten dute boterea . Gero eta gehiago dira mundu mailako bezeriaren ikuspegiarekin lan egiten duten enpresak (Coca-cola, adidas, Nike...), hau da, mundu mailako bezeroen gustuak azterturik zabalpen handiko produktuak diseinatzeko dituztenak. Horrela, eskulana munduaren mutur batean bilatzen dute, lehengaia beste batean, eta publizitate-kanpaina mendebaldeko bulego batetik egiten dute.

Enpresa hauetariko askok, gaur egun, hainbat estatu txikik baino botere eta gaitasun ekonomiko handiagoa dute. Honen ondorioz, erabaki politiko asko, gero eta gehiagotan, hartzen dira interes hauen arabera. Honela, kasu askotan, enpresa horiek inposatzen dituzte beren irizpideak, nazio bateko ordezkariak erabakitzen dutenaren gainetik.

Multinazional handiek, erabili beharreko hizkuntza agintari

Mundu mailako hainbat enpresetan bultzatzen ari dira barruko hizkuntza plangintzak eta ingelesa hartzen dute hizkuntza korporatibo bakartzat... Hauxe ari da gertatzen, adibidez, Toulouseko Airbus enpresan. Bertako biztanleek edozein motatako lana egiteko, ingeles proba bat gauditu behar dute. Eta hau gertatzen da *chauvinismoaren* lurraldean, Frantzia, alegia. Adibide hau egia dela konprobatzea oso erraza da, nahikoa da interneteko edozein bilatzailetan Toulouse eta Airbus hitzak idaztea, eta konturatuko gara orrialdea bera eta aipu guztiak ingeles hutsez daudela.

Hainbat estatutan neurri bereziak hartu dira bertako hizkuntza/k babesteko; hala ere, ez dugu ahaztu behar multinazional handiek badituztela politikaren gaineko beste botere bat: dirua. Dirua da mendebaldeko gizartean gaur egungo benetako boterea. Hauteskunde bidez aukeratzen omen dugu gure etorkizuna, baina begi-bistan dago – neurri handiagoan edo txikiagoan – herrialde bakoitzeko agintarien eskuartzea ez dela guk uste bezain zabala.



1.2. TEKNOLOGIA BERRIEN HEDAPENA, HIZKUNTZA GUTXITUEN ALDE ALA AURKA?

Gaur egun, hizkuntza bizien kopurua 5.000 eta 6.000 bitartekoa dela uste da, baina horietako asko hil egingo dira hurrengo urteetan (Junyent, 1993; Hale, 1992; Kraus, 1992). Bizpahiru belaunalditan munduan dagoen hizkuntza aniztasuna desagertu egingo da zenbait hizkuntza handiren mesedetan (gaztelania, errusiera, txinera eta ingelesa, kasu). “...Gaur egun, gutxi gorabehera 2.000 dira transmititzen ez diren hizkuntzak, eta joerak bere horretan jarraitzen badu, XXI. mendean gizateriaren hizkuntz ondarearen %90 desagertuko da.”(Junyent, 1999)

Laburbilduz, hizkuntzen heriotza bultzatzen ari diren faktoreak zazpi dira. Ikus taulan faktore bakoitzaren garrantzi erlatiboa munduan zehar.

Hizkuntzen heriotza bultzatzen duten faktoreak	Garrantzi erlatiboa munduan zehar
Arazo politiko eta militarrek	%5,1
Aldaketa soziokulturalei loturiko arazoak	%10,9
Arrazoi ekonomikoekin zerikusia duten arazoak	%6,3
Instituzioen laguntza falta	%21,4
Jarrereri loturiko arazoak	%25,1
Egoera linguistikoari loturiko arazoak	%16,8
AZTERTUTAKO HIZKUNTZAK GUZTIRA	%100

Iturria: UNESCOren *Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostena* (www.unescoeh.org)



Zenbaitentzat, globalizazioak, eta berarekin datozen teknologia eta ikus-entzunezko komunikabide berrien hedatzeak, bereziki *Interneten* hedatzeak, pentsamendu bakarra, homogeneotasun kulturala eta kultura txikien eta hizkuntza gutxiagotuen desagertzea ekarriko ditu (Virilio, 1997). Globalizazioa da inperialismo ekonomiko, politiko eta kulturalak hartu duen forma berria eta era guztietako aniztasunen aurka dagoena.

Ikus-entzunezko teknologiak eta eduki mediatikoak herrialde aberatsen esku daude, eta bereziki ingelesez hitz egiten duten herrialdeen esku. Horrek eredu bakarrek pentsamendu, kultura eta hizkuntzak bultzatzen ditu. (Verdu, 1996)

Teknologia berrien hedapenarekin batera gertatu da *ingelesaren* bultzadarik handiena. Hau guztia frogatzeko nahiko da informazio orokor bat bilatzea *sarean*. Zorte handia badugu, lehengo eta bigarren orriak guk erabilitako hizkuntzetan agertuko dira; baina berehala topatuko gara gaur egun *sarean* jaun eta jabe den hizkuntzarekin, hau da, ingelesarekin.

Beste hitzetan esanda, teknologia berriak eta ikus-entzunezko komunikabide berrien hedatzearekin distantzia fisikoak desagertzen direnez eta mundua elkarlotuago dagoenez, orain arte hizkuntzak desagertzera bultzatu duten faktore ezkorrek indar handiagoa izan dezakete.

Dena dela, aditu guztiek ez dute berdin pentsatzen eta beste batzuen ustez, teknologia berriek gure ikuspegia zabaltzeko eta aberasteko aukera ematen digute. Ez hori bakarrik, Komunikaziorako teknologia berrien hedapena —bereziki *internet* eta ikus-entzunezko komunikabideen hedapena—, hizkuntza gutxiagotuak babesteko erabili ahal izango da. Sareak edozein hizkuntzatan idazteko aukera ematen du, adibidez. Eta hor bertan ere badaude *wikipediak*, alegia, hizkuntza askotan idatzitako entziklopediak. Beraz, teknologia berriak gero eta jende gehiagoren esku daude eta honen adierazgarri garbia izan daiteke azken urteotan sortu den lokutorio kopuru handia hiri eta herri guztietan (edo ia guztietan). Bertan bezeroak eros dezake telefono txartela edo, bestela, *interneten* bidez jar daiteke harremanetan bere familiarekin.

Kataluniako Telebista eta Irratiko Korporazioaren zuzendari nagusia den Miguel Puigen ustez (Egunkaria 2000-04-01), *interneten* iraultzak kultura eta hizkuntza gutxituen alde jotzen du. Hau baieztatzeke, hiru datu aipatzen ditu:

- Kultur argitarapena merkeagoa eta errazagoa da.
- Sarean sartutako materiala mundu osora iristen da.
- Itzulpen sistema automatikoak gero eta hobeak dira, eta jadanik hasi dira ondo funtzionatzen. Gainera, hor dago ahotsa irakurtzen duten programen garapena.

Teknologia berrien hedapenak *txikien* komunikazioa ahalbidetzen du. Lehen, aukera bakarra genuen: komunikabide handia eta instituzionala. Gaur egun, leku askotan komunikabide handien edo komunikabide txikien artean aukera dezakegu.



Komunikabide handietan muga politikoak oso nabarmenak dira; txikietan, berriz, askatasun handiagoa dagoenez eta kokapen geografiko zehatzagoa dutenez, bestelako ikuspuntuak eta informazioak ere eskain daitezke. Herri komunikabideak (herri telebistak eta irratiak, bereziki) inoiz baino gehiago ugaritu dira munduan zehar. Adibidez, Euskal Herrian euskaraz ari diren 5 herri-telebista daude (Miége, 2000)

Batek baino gehiagok pentsa dezake teknologia berrien hedapenak eta globalizazioak desagerrarazi egingo dituztela identitate kolektiboak. Baina azken urteotan bereziki, **hurbilen dauzkagun gauzetara itzultzen ari garela** ikusi da; gero eta gehiago baloratzen dira gure arbasoen ohiturak, gero eta jakin-min handiagoa dugu gure sustraiak ezagutzeko. Prozesu hau ez da gertatzen Euskal Herrian bakarrik; adibidez, Hego Amerikako maien eta azteken hizkuntzak eta kulturak berreskuratzen ari dira mendeetan izan ez duten statusa.

Badirudi zenbait estatuk eta giza taldek gero eta argiago dutela garapen tekno-ekonomikoak ez duela ekarri behar derrigorrez talde mailako hizkuntzei uko egitea, garapen ekonomikoak natur baliabideen edo ingurunearen suntsipena ekarri behar ez duen bezala. **Gero eta kontzienteago gara garapen iraunkorraren beharraz.** Eta hau da munduan gertatzen ari den globalizazioaren ondorio garrantzitsuena, baita prozesu horren aurkako erreakzioa ere. Kontuan hartu behar dugu erreakzio hau gertatzen dela mundua gero eta konplexuagoa delako. Norabide horrek gure identitateetara hurbiltzera garamatza (lagunak, familia, erlijioa, herri nortasuna...) *Estandarizatze eta homogeneizatze joera orokorraren aurka, kulturak atxikimendu handiagoa ekarriko du tribalizazio berriak sortuz zein hurbilen duguna aintzat hartuz.* (Maffesoli, 1997). Itzulera horri esker, inoiz ez bezalako begirunez tratatuko dira hizkuntza eta kultura gutxiagotuak.

1.3. HIZKUNTZAK ETA BEREN ROLAK GIZARTEAN

Zein hizkuntzatan biziko dira gure seme-alabak eta gure bilobak?

Gogoeta hauek **Joseph Pothena**k dira.

Unius linguae uniusque moris regnum imbecile et fragile est.

(Itzulpena: hizkuntza bakarra duen erresuma ergela eta ahula da)



Gure seme-alabak ez dira hizkuntza bakar batean biziko. Elebakartasunaren aldekoek –eta horrelakoak nazioarteko erakundeetan ere badaude– kontuan hartu beharko lukete antzina ere “hizkuntza bakarreko erreinua ” “erreinu ergel eta funsgabetzat” hartzen zela.

Estatuen ordezkariak nazioarteko forumetan onartutako azken ebazpenei dagokienez, errazena da pentsatzea datozen 20 urteetan **hiru hizkuntzen gaitasunerako** joera izango dugula erakundeen aldetik; hori ari da gertatzen hainbat estatutan eta horixe ikus daiteke beren hezkuntza eta prestaketa programetan.

Eleaniztasun horren oinarrian osagai hauek dira ohikoak:

- **Ama-hizkuntza**, familiako hizkuntza; normalean herri hizkuntza izaten da. Adibidez, luxenburgera Luxenburgoko batentzat. Euskaldunentzat kontu hau konplikatuagoa da. Askotan ama-hizkuntza euskara bera edo gaztelania edo frantsesa delako.
- **Mugaz bestaldeko edo nahikoa gertuko hizkuntza bat.** Lehengo adibidearekin jarraiki, frantsesa edo alemanera luxenburger batentzat. Euskaldunentzat gaztelania izan liteke hizkuntza hori Iparraldekoentzat, eta frantsesa Hegoaldekoentzat.
- **Nazioarte mailako komunikazio-hizkuntza.** Luxenburger batentzat, gaztelania, portugesea, ingelesa... Hegoaldeko zein iparraldeko euskaldunentzat ingelesa litzateke nagusiki. Iparraldeko ikasketa programetan goi batxilerrean atzerriko bi hizkuntza ikastea normala denez, ikasleek hauen artean bi hizkuntza aukeratzeko dituzte: gaztelania, ingelesa eta alemanera. *Hegoaldean ere badago aukera hau(atzerriko bigarren hizkuntza) baina ez da Iparraldean bezain ohikoa.*

Teknologia berrien garapenarekin, askoz konplexuagoa izan liteke oinarritzko eskema hau baita hizkuntz aniztasuna ere. Joseph Pothen adibidearekin jarraiki, ez da batere bitxia aurkitzea luxenburgeraren artean lau hizkuntza dakizkitenak. Luxenburgon lan eskaintzek hiru hizkuntzen ezagutza eskatzen dute (eskaintzen %54k hiru hizkuntzen gaitasuna eskatzen dute, %12k hizkuntz bakarraren gaitasuna eskatzen dute). Datu hauek *Luxenburger Wort* aldizkarian aurkitutako lan eskaintzen arabera hartu dira. Hau guztia pentsaezina litzateke Europako beste herrialdeetan.

Hizkuntza aniztasun kasu gehienak Europatik kanpo bilatu behar ditugu. Afrikan, adibidez, helduen historial linguistikoak berebiziko garrantzia dauka hainbat funtziotan eta komunikatzeko estrategietan. Hainbat hizkuntza dituen afrikar baten ikerketan, horrela azal liteke bere hizkuntza aniztasuna:



- **Ama-hizkuntza:** Txikitatik bere familian ikasi duen hizkuntza.
- **Komunitate hizkuntza.** Bere zonalde etnikoaren gainetik dagoen beste zonalde handiago batean hitz egiten den hizkuntza. Kasu gehienetan, komunitate hizkuntza ez da nazio hizkuntza izaten.
Nazio-hizkuntza. Bertako hizkuntza da. Normalean status ofiziala izaten du, baina ez da beti horrela gertatzen.
- **Afrikarren arteko hizkuntza.** Afrikan nazioen artean erabiltzen diren hizkuntzak dira, adibidez, kiswahilia, hausa, fulfudea eta dyula.
- **Nazioarteko hizkuntza.** Afrikako nazioen artean edota Afrikatik kanpo erabiltzen direnak, adibidez, portugesa, ingelesa, arabera, frantsesa, gaztelania...

Beraz, hizkuntza aniztasunari dagokionez, asko dugu ikasteko Afrikatik. Guk, europarrok pentsatzen dugu munduan zientzia ezagutzak beti egiten direla Iparretik Hegoaldera, baina kasu honetan argi dago alderantziz dela.

Etorkizuneko gizartean, hizkuntza aniztasuna indar handiko balioa izango da. Globalizazioaren aurrean, ama-hizkuntzak eta gutxitutako hizkuntzak erreferentzia garbia izango dira uniformitatearen aurka dauden gizakientzat eta komunitateentzat.

Hizkuntza bakoitza herri baten nortasunaren ondarea da eta, horrexegatik, hizkuntza aniztasunak giza eskubideekiko errespetua ere suposatzen du.

1.4. GLOBALIZAZIOAREN BIKTIMAK: ETORKINEN FENOMENOA

Mendebaldekoak ez diren gizarte askotan, teknologien goitik ezartzea desoreka berriak eragiten ari da, eta gizarte aurreratuen mendekotasuna areagotzen du. Honela azaltzen digu **Luis de Sebastianek**:

“La introducción de los ordenadores, los avances de las tecnologías de la información y últimamente de Internet han sustituido toda una serie de actividades, que antes se hacían manualmente o por seres humanos, por la actividad de las máquinas. Estas innovaciones que ahorran trabajo pueden estar indicadas y contribuir a aumentar el bienestar social de una colectividad en la que el trabajo humano es escaso y resulta demasiado caro. Pero, introducidas estas innovaciones en sociedades en las que el trabajo es abundante y barato, aún el bien cualificado, la cosa cambia. Los beneficios que reciben las empresas que las introducen no necesariamente contribuyen a aumentar el bienestar de la sociedad, y lo pueden perjudicar si en el proceso destruyen puestos de trabajo y contribuyen a aumentar la pobreza”.



Bistakoa da mundu mailako eskala batean mugitzen den ekonomia kapitalista mugagabeak, eta kasu gehienetan indarrez eta beren jatorrizko baliabide naturalak kenduta, hainbat eta hainbat komunitate behartzen dituela ohiko lanbide eta antolaketak uztera eta, oso diru gutxiren truke, beren eskulan merkea eskaintzera mendebaldeko gizarteetarako produktuak lantzeko.

Lagun askorentzat gero eta zailagoa da beren ohiko ekonomiarekin bizirautea, horregatik saiatzen dira guregana etortzen.

Hona hemen **Eduardo Galeanoren** hitz ironiko batzuk:

“Todos tenemos derecho a transitar libremente, afirma el artículo 13. Entrar, es otra cosa. Las puertas de los países ricos se cierran en las narices de los millones de fugitivos que peregrinan del sur al norte, y del este al oeste, huyendo de los cultivos aniquilados, los ríos envenenados, los bosques arrasados, los precios arruinados, los salarios enanizados. Unos cuantos mueren en el intento, pero otros consiguen colarse por debajo de la puerta. Una vez adentro, en el paraíso prometido, ellos son los menos libres y los menos iguales.”

Agustín Unzurruzagak, SOS Arrazakeriako ordezkariaren ustez, *emigrazioa ez da gaur egungo kontua. Historian zehar beti izan da batetik besterako emigrazioa eta, kasu askotan, emigrazioak oso jende kopuru handiak mugitu ditu.*

Gaur egungo gizartean, informazioa bezala, produktuak eta zerbitzuak mugarik gabe eta abiadura bizian mugitzen dira batetik bestera. Hauek bezalaxe, lan eskua ere merkantzia bilakatu da eta horrexegatik pertsonak ere mugitzen dira mendebaldeko ekonomiaren beharren arabera. Mugimendu hau nagusiki Hegotik Iparrera gertatzen ari da.

1.5. HEZKUNTZAREN GARRANTZIA ARRAZAKERIARI AURRE EGITEKO

Baliteke bat baino gehiago harritzea lan honekin. Baliteke batek baino gehiagok ez ikustea lotura zuzenik lan honetan jarri ditudan ildoen artean. Zein zerikusi dauka Irungo historiak globalizazioarekin edo arrazakeriarekin? Geuk ere ezagutu behar dugu nola sortu zen gure hiria, geure hiria etorkinez osatutako hiria dela. Agian lehengo etorkin gehienek azala zuria eta hizkuntza bera zuten, gaztelania nagusiki. Gaur egungo etorkinak kolore eta mintzaira askotakoak dira, baina ziur nago ilusio eta behar berberak bultzatuta etorri direla. Tamalez, munduan oso jende gutxi izaten da bere gogoz joaten dena beste leku batera bizitzera. Tamalez, lehen bezala, gaur egun ere arrazoï berberak bultzatzen dute jendea beste leku batera bizitzera: langabezia, gerra, ziurtasun eza, etorkizun falta, askatasun falta, diskriminazioa...

Nire ustez, asko daukagu ikasteko geure jatorritik. Hau da, gogoan eduki behar dugula irundarrok nongoak garen, nondik etorri garen eta zein izan den gure hiriaren bilakaera.



Esate baterako, behar baino gehiagotan entzuten da *De Irun de Toda la Vida*, ITV delako hori. Askotan txantxetan esaten da, baina horren azpian mesprezu ukitu bat dago, eta, okerrena, batzuek sinistu egiten dutela hori. Badirudi erantsitako balioa ematen diotela aitona-amonak irundarrak izateari. Eta norbait ITV ez bada, zer?

Jorge Oteizak honela erantzuten zien horrelako adierazpenak egiten zizkiotenei:

“Debo recordar a los que involuntariamente han nacido en Irún, que yo he nacido aquí voluntariamente, que como vasco mi pueblo son estos pueblos, yo soy de todos estos ríos y concretamente he elegido a este río vivo del Bidasoa, y me he declarado animal fronterizo. “Con mi música a otra parte” artikulua, El Bidasoa, 1961eko ekainaren 17ko alea.

Batek baino gehiagok pentsa dezake arrazakeria urrutiko arazo bat dela eta gu ez garela arrazistak; baina askotan bezalaxe, kontu ñimiñoetan ikusten dira ezkutuko erreakzio horiek. Horregatik familiak, eskolak, agintariek... gizarte osoaren inplikazioa behar da arrazakeriazko jarrerak ekiditeko.

Aminata Dianerentzat, Frantziako papergabeen koordinakundeko ordezkariarentzat, *hezkuntza gabeziaren ondorioa da arrazakeria. Arrazakeria mundua ezagutzen ez duen jendearen artean sortzen da; baina ez da jendearen errua, jendeari ez baitaio ezer azaltzen. Normalean mundua ezagutzen duenak arazoa ezagutzen du eta tolerantzia maila handiagoa dauka. Nire ustez, ezagutza handitzean, tolerantzia lortzen da. Immigranteak toleranteagoak dira arlo askotan, mundua hobeto ezagutzen dutelako.*

Beste herrialde batera bizitzera joateak, munduaren ezagutza areagotzen du, nahiz eta pertsona ikasketa maila baxukoa izan. Gu, mendebaldean bizi garenok, gure zilborrari begira gaude eta uste dugu geu eta geure ingurunea dela munduaren ardatz bakarra.

Kontua ikastea da, norberaren esperientziatik, etxean jasotako heziketatik edo araututako hezkuntzatik... berdin da. Ezin gara gure txokoan ez ikusiarena eginez geratu: mundu oso bat daukagu aurrean eta hainbat mundutatik etorritakoak ere baditugu gure txokoan. Azkenean, hezkuntza da etorkizunaren ateak zabalduko dizkigun bidea eta itxaropena. Nolako gizartean bizi nahi dugu? Nola transmitituko dira guretzat hain garrantzitsuak diren baloreak? Nola interpretatu behar dugu gure mundua, gure gizartea? Hezkuntzak dauzka ate guztien giltzak. Eta hezkuntza esaten dudanean, erarik zabalenean esaten dut. Hezkuntza ez da bakarrik ezagutza batzuk transmititzea ikastetxean, baizik eta etxean eta gizartean ere transmititzen diren baloreak: *askatasuna, tolerantzia, berdintasuna (sexuzko edo erlijiozko bereizketarik gabea) eta errespetua.*

Baloretan oinarritutako hezkuntzan, jende guztia harro egon daiteke bere buruaz, bere jatorriaz; badago lekua guztientzat eta aniztasuna errealitate bat da, eta gainera, onartu egiten da aniztasun hori, konplexurik gabe eta alferrikako eufemismorik gabe. Nolako da gure gizartea? Eskoletan ondo onartuak dira beste herrietatik etorritako umeak? Azken urteetan atzerriko umeen adopzioa ohiko kontua bihurtu da, ume atzerriarrak ez dira soilik etorkinen seme-alabak, badira adopzioan hartutako beste ume asko ere. Bestalde, jakina da honek elkarbizitza arazoak ekarri dituela zenbaitetan (zorionez,



guztietan ez), eskoletan. Zein hezkuntza jasotzen ari dira hemengo umeak etxean, eskolan, auzoan? Kontzienteak al gara honen garrantziaz?

Geure zilborrari begira geundela esaten nuenean, horretaz guztiaz ari nintzen. Pentsa dezagun, zer nolako gizarte nahi dugun eta zer nolako ikuspegi izan behar dugun, zabala, itxia, erdi itxia (gauza batzuetarako bai, baina beste batzuetarako ez)? Arrazistak ote gara gure artean ere?

Francesc Carbonell i Parisek dekalogo hau proposatzen du hezkuntza zibiko, ez arrazista eta kulturartekoa erdiesteko:

- Gizakien berdintasunaren alde eta era guztietako bazterketaren kontrako heziketa egingo duzu.
- Pertsona guztiak errespetatuko dituzu baina ez, nahitaez, beren ohiturak eta jokaerak.
- Ez duzu nahastuko kulturartekotasuna eta folklorea.
- Nortasunaren eraikuntza aske eta arduratsua osatzen lagunduko duzu.
- Ikaskuntzak bide gisa hartuko dituzu, hezkuntzazko helburuen zerbitzuan.
- Ikaskuntza jarduera guztiak denentzat -gizatalde minorizatuetao ikasleentzat, batez ere- esanguratsu izan daitezen ahaleginduko zara.
- Ez zara eroriko ikasleen taldekatze homogeenoko egiteko tentazioan.
- Ez duzu lagunduko zerbitzu etnikoak sortzen, ez eta finkatzen ere.
- Ez duzu egingo judizio ausartegirik ikasleen senideez.
- Zeure ezjakintasuna, zeure aurreiritziak eta zeure estereotipoak aintzat hartuko dituzu, baita berariazko prestakuntza etengabea hezteko duzun premia ere.

1.5.1. BAKEAREN KULTURARAKO FUNDAZIOA (UNESCO)

Bakearen kultura hainbat baloretan, jarreratan eta jokabidetan gauzatzen da. Hauek bizitzaren, gizakiaren eta duintasunaren errespetua islatzen dute. Giza eskubideek lehenetasuna dute, eta hauekin batera, indarkeriaren baztertzea eta printzipio hauen



onespena: tolerantzia, justizia, elkartasuna, bai eta herrien, taldeen eta gizakien arteko elkar ulertzea.

Indarkeriaren eta beronen arrazoiak deuseztatzeak estatuen ekintzetatik haratago eramaten gaitu. Helburu honek guztion partaidetza eskatzen du, eta horretarako, giza eskubideen alde egunez egun jokatu egin beharra dago. Horrela lortuko da jarreraren aldaketa familian, komunitatean, eskualdean eta herrialdean.

Bakearen Kulturarako mugimenduaren isla instituzionala, UNESCOk onartutako dokumentua da, 1999ko irailaren 13koa. Bertan, guztion arteko konpromisoa eskatzen da (gizakiak, taldeak, elkarrekin, hezkuntza komunitateak, enpresak, erakundeak) hauek betetzeko:

1. Bizitza errespetatzea
2. Indarkeriaren gaitzespena
3. Eskuzabaltasuna areagotzea
4. Besteak entzutea elkar ulertu ahal izateko
5. Gure planeta zaintzea
6. Elkartasuna garatzea

Zer egin konpromiso helburu horiek lortzeko:

- Bakearen aldeko hezkuntza bultzatu, eta horrekin batera, giza eskubideak eta demokrazia, tolerantzia eta elkar-ulertzea bai nazio mailan bai nazioarteko mailan.
- Edozein motatako diskriminazioa baztertu.
- Demokrazia oinarri eta printzipioak gizartearen arlo guztietan bultzatu.
- Pobreziaren deuseztatu eta barne garapen iraunkorra bilatu, denon onerako izango dena eta pertsona bakoitzari behar duen duintasuna emango diona. Horretarako ondareen banatze justua, informazio askatasuna eta ezagutza bultzatuko dira.
- Gizartea bultzatzea gazteek elkarbizitzarako oinarri berriak izan ditzaten. Kontziliazioa, eskuzabaltasuna eta tolerantzia izango dira oinarri hauek; era berean, zapalkuntza eta indarkeria arbuiatuko dira.



1.6. ZER ESAN NAHI DU ETORKIN HITZAK?

1.6.1. ITSASOZ BESTALDEKO DEFINIZIO BAT

Alberto Sarramonek, *Bearnese, gascones y otros franceses en la Pampa* liburuan ematen duen azalpena hau da:

*Más allá de que a través de los años he percibido que alguna gente considera a esta denominación como peyorativa, cuando solo tiene un carácter descriptivo, que es el presupuesto con que trabajamos, la palabra **inmigrante** tiene un significado muy claro en el lenguaje popular, sobre el cual no vale la pena insistir, pero suele ser impreciso desde el punto de vista estadístico, pues en los datos de los países de origen de los grupos migratorios se suelen dar cifras y montos, que casi nunca coinciden con los resultados que se brindan en los países receptores. Además, coincidiendo con un autor, no siempre, “ni todos los emigrantes se afincaron de forma permanente, a la vez que otros llegaron **extraoficialmente**... Algunas estadísticas sólo suponen inmigrantes a los pasajeros de segunda o tercera clase, mientras que otros no hacen distinciones.*

1.6.2. EUSKAL HERRIKO HURBILPEN BAT ETA GALDERA ASKO

Julen Arexolaleibak *Europar eta munduan aniztasuna: etorkizuna=etorkintasuna?* izeneko artikuluan, honela azaltzen du zer den etorkina baita zer eska diezaiekeen ere bai, ñabardura interesgarri eta ugari jarriz:

Etorkinak diogunean, zertaz ari gara?

Etorkinak diogunean beti lurralde kontzeptuaz aritu ohi gara: lurraldez aldatzen diren pertsonak. Nik, horren harira, eta euskararekin ari garenez, hizkuntza-aldaketak jarri nahi nituzke horren parean(...)

a) Dimatik Bilbora ezkonduakoa etorkina al da? Estatu bereko eta probintzia bereko pertsona, herri batetik bestera joanda, etorkina al da? Eta joandako herri horretan - Bilbon- hitz egiten ez bada norberak dakien hizkuntza bakarra -euskara- etorkintzat kontsidera al daiteke XX. mendeko arratiaz hura?

b) Purriñotik (Galizia) Ermura lanera etorritakoa? Estatu berekoa izanik, beste probintzia batera doazen horiek etorkinak al dira? Gailegoak eta euskarak ikustekorik ba ote dute etorkin izate horrekin?

- ***Dakarretik (Senegal) Baionara ihes egindako polizoia?*** Beste estatu batetik etorria baina bertako hizkuntza hegemonikoa -frantsesa- badakiena? Eta senegaldar hori Baionatik Donostiara etorri gero etorkin(-ago) izango al da?



- **Quitotik Lizarrara datozenak amarekin elkartzera?** Berrero ere, beste estatu batetik etorriak baina bertako hizkuntza hegemonikoaren jabe direnak.

Eta nahi beste adibide jar daitezke. Erantzunak, gainera, ez zaizkigu aterako aukeran nahi bezain argiak(..) Euskarak, inon izatekotan, Euskal Herrian duela, euskaldunon bitartez, garatzeko aukera. Hori beste -eta hori baino ez- dugu eska(in)tzeko. Bai, lehenik eta behin eskaini... gero eskatzeko! Euskal komunitateak ba al du, baina, eskatzen hasteko adina eskaintzekorik?

Hara galdera-erantzunak, nork bere burua galdetzen eta erantzuten jartzeko modukoak.

Lurraldezt aldatzen denak, noiz uzten dio etorkin izateari?

Zenbat belaunaldi behar dira etorkin izateari uzteko? Jatorrizko lurra eta hizkuntza ahaztuta ere, etorkin izaten jarraitu ahal da? Tokiotik Donostiara etorria, multinazional baten exekutiboa, zergatik da “erresidentea” hasieratik?

Datuek erakusten digutenez, Europan estatu berriak sartuko diren memento honetan, Europako komunitatean 380 milioi biztanle bizi bagara, horietatik 19 milioi inguru dira etorkinak. Horiek guztiak etorkinak dira? Zenbat belaunaldi behar dira etorkin izateari uzteko? Hau da, gurasoak noizbait etorrira, seme-alabak bertan jaiota; areago: gurasoen jatorriko lurra eta hizkuntza ahaztuta ere, etorkintzat kontabilizatzen dira oraindik ere?

(...) Izan ere, zergatik daukate hainbatek horrenbestearainoko interesa bigarren belaunaldiko edo hirugarren belaunaldiko etorkinez hitz egiten jarraitzeko?

(...) Frantzia 3 milioi eta erdi dira etorkinak, eta 60 milioi lagun bizi dira. Frantziaren kasuan, adibidez, zeintzuk dira? Frantzia, mende honen hasieratik, eta II. Mundu Gerratik askoz ere gehiago, etorkinak etorri eta etorri doazela; beraz, hor badira ia hiru edo lau belaunaldi; esate baterako, berraitona etorri zen nonbait Algeriatik, eta ondorengoak oraindik ere etorkinen estatistiketan azaldu egiten zaizkigu.

Orduan, hortxe dago galdera, nik ez dakit galdera politikoa edo etiketakoa den, baina noiz uzten zaio etorkin izateari? Zeren eta, bestetik, ikusten dugunez, Tokiotik Donostiara datorren hori ez da sekula etorkina. Horri, hasieratik “erresidente” deitzen zaio. Orduan, ez da txantxetako gauza, definitzen hasten garenean ere, amarru ideologiko guztiak bertan azaltzen direlako.(...)

1.6.3. IMMIGRAZIO KONTZEPTUA EAEKO IMMIGRAZIO PLANEAN

Hona hemen EAEko Immigrazio Planean (Plan Vasco de Inmigración Comunidad Autónoma de Euskadi) immigrazio kontzeptua definitzeko azaltzen diren ideia nagusien laburpena:

- Immigrazioa fenomeno positiboa eta beharrezkoa da.



- Immigrazioa, giza bizitzaren maila guztietan, prozesu sozial pluralista eta aberasgarri baten parte da, eta ez da lan-fenomeno huts hartu behar.
- Immigrazioa fenomeno estrukturala da gizarte modernoetan.

Immigrazio Planean ez da zehazten zeintzuk diren etorkinak eta zeintzuk ez, baizik eta immigrazioaren balorazio bat ematen da.

1.7. ARRAZAKERIAREN AREAGOTZEA ESPAINIAN

Espainiari dagokion kapituluan, Arrazakeriaren Behatoki Europarrak (Observatorio Europeo del Racismo) deitoratu egin du arraza-indarkeriari buruzko datu publiko eta ofizialen gabezia. Gabezia honen azalpena hau da: Espainiako Kode Penalean arraza-indarkeria ez da aparteko delitu gisa agertzen, baizik eta larrigarri gisa. Guardia Zibilak txosten bat idazteko erakundeari eman dizkion datu publiko eta ofizial bakarretan, 2000an 61 eraso arrazista agertzen dira (indarkeria fisikoko 33 eraso, 12 jabetzaren aurkakoak eta 16 irain-mehatxuzkoak) eta 2001ean, 66 eraso (37 indarkeria fisikokoak, 14 jabetzaren aurkakoak eta 15 de irain-mehatxuzkoak). Bere aldetik, SOS Arrazakeria Gobernu Kanpoko Erakundeak 53 erasoren berri eman zuen 2001ean, 75en berri 2002an eta 55en berri 2003an.

Behatokiaren ustez, Espainiako gizartea gero eta intoleranteagoa da etorkinekiko. Hain zuzen ere, txostenak adierazten du badaudela eskuin-muturrekoek antolatutako arrazakeria erasoen gehitzeari buruzko frogak garbiak. Eraso gehienak Madril, Bartzelona eta Valentzia bezalako hiri handietan gertatzen dira. “Jende asko ari da elkarlotzen immigrazioa, ilegalak dena bereziki, delinkuentzia eta indarkeriarekin. Eta irudi hau indartu egin da 2004ko martxoko atentatuak egin eta gero” adierazten du Behatokiak. Era berean, azpimarratzen du “hainbat politiko eta poliziaren goi-mailako arduradun” (izenik ez du aipatzen) ari direla indartzen atzeritarren inguruko “irudi negatibo” hori, lotu egiten baitute legez kanpoko immigrazioa eta delinkuentzia.

“Arraza-indarkeria Europa Elkarteke 15 estatutan” txostena. Informe "Violencia racista en 15 estados miembros de la UE":

<http://eumc.eu.int/eumc/material/pub/comparativestudy/CS-RV-main.pdf> Observatorio Europeo del Racismo y la Xenofobia:">

<http://www.eumc.eu.int/eumc/index.php>

Helbide horietatik hartutako helbide interesgarri batzuk:

Arrazakeria: www.a-i.es

www.defensordelpueblo.es

www.cis.es

www.sosracismo.org

www.movimientosconlatolerancia.com



www.unionromani.org

2. IRUN, GURE TXOKOA

- **IRUN: KOKAPENA ETA AUZOAK**

Irun udalerrriak 42.8 km koadroko azalera du eta Lesaka (Nafarroa), Oiartzun, Lezo eta Hondarribia (Gipuzkoa), eta Hendaia, Urruña eta Biriatu (Lapurdi) ditu muga herriak. Bidasoa ibaiak eratzen du Irungo hiriaren eta Lapurdiko herrialdearen arteko muga.

Udalerrria bera zazpi auzotan banatzen da, eta auzo hauetan zaharrenak Bidasoa, Meaka, Olaberria eta Lapitze dira. XIX. mendetik aurrera, Anaka eta Katea -biak Lapitzeko auzo handitik sortuak- handitzen hasi ziren. Azkenik, 1887an Behobia auzoa sortu zen Bidasoako auzotik bereizi eta gero.

Hirigunea handitzen zihoan heinean, batez ere XX. mendeko 60ko hamarkadatik aurrera, zenbait etxadiri *auzo* deitzeko ohitura zabaltzen hasi zen, nahiz eta, ofizialki behintzat, auzotzat hartzen ez diren. Besterik gabe, hedadura eta populazio handiko eta txikiko aldiriak dira.

Honenbestez, oker esaten zaie auzo San Migel, Geltokia, Larreaundi, Arbes, Ibarla eta beste etxadi batzuei.

- **IRUN ZENBAKITAN**


Irun, 2005. urtean, 60.000 biztanle izatera heldu da: historian izan duen biztanle kopururik handiena azkeneko hamarkadan, bere indize demografikoa %7an hazi eta gero. Egungo kopuruetara heldu arte poliki-poliki hazi izanaren arrazoia, batez ere, hiru zutabetan oinarritzen da: jaiotzaren tasaren igoera nabarmena; atzerriko emigranteen etorrera; eta inguruko herrietako pertsonak Irunen bizitzen jarri izana, arrazoi desberdinak direla medio, gure hiria erakargarria iruditzen zaielako bertan bizitzeko.

Irunek bere biztanleriaren lehengo zifra aldatu duen azken aldia, zehazki, duela 30 urte izan zen, 50.000 hiritar edukitzera heldu zenean. Egun, irundarrek eratzen duten biztanle-piramideak, azkeneko hamarkadetan gertatutako aldaketa sozialak islatzen ditu, 60 eta 70eko *baby boom* deiturikotik hasi, 80eko eta 90eko zati handieneko jaiotzen “*lehorte*”tik pasatuz, XXI. mendera heldu arte, non beste herrialdeetatik etorritako pertsonak hiritarren sarean integratu diren.



- **IRUN: HIRIA HAZTEN ARI DA**

Grafiko honetan ikus dezakegu Irungo biztanleen kopurua adina eta sexuaren arabera



Iturria: Irun aldizkaria, 33. zenbakia, 2005eko urtarrilaren 17ko datuen arabera.

Hazkunde demografiko nabarmenarekin batera, Irunek hiri-sare berri bat garatu du azkeneko hamarkadan, bide eta zonalde erresidentzial berriekin. Beraz, hirian bizi diren 60.000 irundarretako batzuk eraikin berrietara joan dira bizitzera, eta eraikin hauek hainbat kale eta plazekin batera, auzo gehien irudia berritua eskaintzen dute.

Etxeak eraiki izanak, gainera, hondatutako espazioak edo tailer eta industria zaharrek okupatutako orubeak berriz urbanizatzeko aukera eman du, baita Irungo erdialdean ere, Cipriano Larrañaga kalearen atzealdea eta “topo” trenbidearen artean geratzen den eremua, adibidez.

Eraldaketa etengabe hau garbi ikusten da Antzaran bezalako zonaldeetan, non eraikin berriek osatu dituzten orain artekoak eta eremu horretako bide nagusiak hobetzea ekarri duten. Junkaleko eliza ondoan dauden etxadiak, Olaberriako etxeak, Puianako etxe berriak, Katea, Mendibil, Urdanibia auzoa edo Larreaundiko Erriberako etxeak dira aipatu eraldaketaren eredu.



Azken denboretan azpiegitura eta etxebizitzaren bultzada berritzailea nabarmena da Behobian,

Belaskoenean eta Lapizen, non Olaketako Babes Ofizialeko Etxeek, ehunka pertsonen merkatuko prezioa baino askoz merkeago etxebizitza baten erostea errazteaz gainera, hiria urbanistikoki kohesionatzen lagundu duten.

Ildo beretik doala ikusten da Palmera-Montero eremuan, izan ere, industria zaharkitu edo abandonatuak edukizetik, bide eta etxebizitza azpimagarriak edukitzera pasa da, horietako batzuk babes ofizialekoak, *Irunvik* sustatuta.

Hori guztia islatzen da zonaldeka jasota dagoen biztanleen grafikoan, non hiru kokagune nabarmen diren gainontzekoen gaineratik: Elitxu-Lapize, Anaka Puiana eta Artia. Hiru toki horiek biztanleen dentsitate handia daukate eta irundarren %33 baino gehiago biltzen dira horietan. Batzuetan besteko horixe bera ematen dute ondoko auzo hauetan guztietan (edo hobeto esanda, auzo eta etxadietan) biltzen den jende kopuruak: Santiago-Beraun, Dunboa, Arbes, Belaskoenea, Pinar, Antzaran, Behobia, Urdanibia eta Meaka -Ibarla.

<i>05/01/17</i>	<i>LEKUA</i>	<i>GIZONE ZKOAK</i>	<i>EMAKUMEZ KOAK</i>	<i>DENERA</i>	<i>%</i>
BIZTAN LEAK	Elitxu-Lapize	3.504	3.686	7.190	% 12.0
	Anaka	3.359	3.420	6.779	% 11.3
	Artia	3.142	3.013	6.155	% 10.3
	Larraundi-Olabarria	2.864	2.908	5.772	% 9.6
	Erdialdea	2.271	2.554	4.825	% 8.1
ZONALDEKA	San Miguel	1.870	1.976	3.846	% 6.4
	Arbes	1.847	1.908	3.755	% 6.3
	Katea (Ventas)	1.831	1.772	3.603	% 6.0
	Alde Zaharra	1.536	1.717	3.253	% 5.4
	Santiago-Beraun	1.529	1.631	3.160	% 5.3
	Dunboa	1.380	1.407	2.787	% 4.7
	Belaskoenea	1.253	1.264	2.517	% 4.2
	Pinar	1.035	1.175	2.210	% 3.7
	Antzaran	1.012	1.056	2.068	% 3.5
	Behobia	536	497	1.033	% 1.7
	Urdanibia	228	246	474	% 0.8
Meaka-Ibarla	208	228	436	% 0.7	



2.2.2. BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

Kale kopurua: 315
Plaza kopurua: 25
Etxebizitza kopurua: 25.192
Telefonoak: 26.192
Autoak: 24.761
Kamioiak: 1.367
Motozikletak: 3.162
Autobusak: 43
Kamioi kabinak: 1.046
Atoiak (erremolkeak): 1.463
Banketxeak: 32
Denda txikiak: 1.267

Iturria: Irun aldizkaria, 33.zenbakia, 2004ko urtarrileko datuen arabera.

Datu hauen artean badira batzuk oso adierazgarriak direnak, adibidez etxebizitza kopurua. Irunen 60.000 biztanle bizi badira, eta etxebizitza kopurua 25.192 bada, hau da gure hiriarri dagokion ratioa etxebizitza bat 2,4 biztanleko. Telefonoen eta autoen proportzioa oso antzekoa da: bat 2,4 biztanleko. Beste datu deigarria denda txikien kopurua da: 1.267. Horrek esan nahi du denda bat dagoela 4,7 biztanleko.

Datu hauek guztiez gain, ez dugu ahaztu behar Irunek ezaugarri bereziak dituela: alde batetik, mugaren ondoan dagoenez, jende asko pasatzen da gure herritik. Bestetik, zerbitzu eta negozio-hiria ere bada: eskualde osoko erreferentea. Arrasateko Unibertsitatearen presentzia, FICOBA izenez ezaguna den ferietarako gune berria... Mota askotako enpresak badaude: txikiak, handiak, merkatalgunea: Alcampo (Txingudi) merkatalgunea, Decathlon, Mendibil merkatalgunea...


Beste hitzetan esanda, geografikoki Irun gune estrategiko bat da. Adibidez, Baztango jendea etortzen da hona erosketak egitera (baita zerbitzu medikuetara eta ikaskuntzazkoetara ere). Oartzun eta Errenteriako jendeak zerbitzu berezi egin behar badu, bi aukera ditu: Irunera etorri edo Donostiara joan (zinemak, erosketak, osasun zerbitzuak, aisialdia...). Hondarribiko jendea ere etortzen da hona.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar Irun Hendaiaren ondoan dagoela eta azken urteetan eguneroko kontsumoko gai batzuk askoz merkeagoak dira Hegoaldean Iparraldean baino... Beraz, Irun ez da Irun bakarrik: gaur egun iparraldekoen supermerkatu erraldoia, taberna eta jatetxe gunea, moda saltoki multzoa, etxeko tresnen hornitzailea... Eta ez hori bakarrik, kutxetan eta banketxeetan ere gero eta maizago ikusten dira iparraldeko bizilagunak.



2.3. MENDE BATEKO GERTAKARIAK

Hona hemen Irunen XX. mendeko biztanleen kopuruaren bilakaera eta garai bereko gertakariak esanguratsuenak:



URTEA	GERTAKARIAK	BIZTANLE KOPURUA
1901	Dario Regoyos margolari ospetsua Irunera etorri zen bizitzera.	9.912 - 12.000
1913	Tren istripu larria. Irundarren laguntza erabatekoa izan zen zauritutakoak atenditzeko.	12.000 - 14.161
1915	Irun eta Hendaia lotzen dituen Abenida Zubia inauguratu zen. Real Union futbol taldea sortu zuten. Talde hori Espainiako Kopa txapelduna izan zen 1918an, 1924an eta 1927an.	12.000 - 14.161
1926	Lehendabiziko bi emakumezko zinegotziak Gal Stadiumen inaugurazioa	14.161 - 17.670
1932	Aduanaren Ordenantza berrien arabera, zilegia da industriak kokatzea mugatik hurbil. Urte honetan sortuak dira Porcelanas del Bidasoa eta La Palmera.	17.670 - 14.885
1936	Gerra Zibilaren ondorioz, erabat kiskalita geratu zen Irun. 8000 irundarrek alde egin zuten, 152 eraikin eta 252 industria eta komertzio desagertu ziren.	17.670 - 14.885
1948	Ireki egin zen muga.	14.885 - 19.452
1957	Jorge Oteiza eskultorea Iruna etorri zen bizitzera.	19.452 - 29.548
1966	Santiago zubi nazioartekoa inauguratu zen	29.548 - 44.667
1968	Santiagooko aduana-eremua eraiki zen. (800 kamioi)	29.548 - 44.667
1970	Behobiako zubi berria. Luis Mariano abeslaria hil zen	44.667



1972	N-1 errepidearen saihesbidea egin zen	44.667 - 55.237
1975	Bilbo Behobia autobidea inauguratu zen	44.667 - 55.237
1979	Lehenengo udal-hauteskundeak	44.667 - 55.237
1987	Bidasoa eskubaloi taldea liga-txapelduna	55.327 - 55.200
1990	Zaisa garraio zentroa ireki zen	55.200
1993	Europako Elkartearikiko aduanak eta bidaiarien kontrola kendu ziren	55.200 - 56.515

OHARRA: Datu zehatzik ez daukadanez, gutxi gorabeherako biztanle kopurua jarri dut. Adibidez: Lehenengo gertaerako biztanle kopuruan, 1900 urteko kopurua jarri dut (9.912) eta hurrengo data zehatzari dagokiona. Kasu honetan, 12.000 biztanle 1910ean.

2.4. MUGAREN ONDOAN EGOTEAREN HAINBAT ONDORIO

Egitasmo honetan, mugaren ondoan egoteak ekarritako eragin garrantzitsuenei buruzko iruzkina egingo dut. Atal batzuk osatzeko, badago nahikoa bibliografia; beste atal batzuetarako, berriz, etxean txikitatik entzun dudana, besterik ez. Ahal izan dudan guztietan jo dut idatzizko iturrietara, beraz, norbaitek jakin-mina badu, badu non irakurri eta sakondu.

Luis de Uranzuk oso ongi definitu zuen Irun: *Irun, un pueblo en la frontera*. Bai gure historian bai gure etorkizunaren erronken aurrean, definizio honek ideia batzuk ekartzen dizkigu gogora: ikuspegi zabala eta irekia, komunikazioak eta garraiobideak, bidaiariak, pasadizoak...

2.4.1. Kontrabandoa

Kontrabandoari buruz, legez kanpoko jarduera izanik, ez dago ikerketa fidagarririk testigantza soil batzuez aparte. Hala ere, jardun honek hainbat familiatan izan duen eraginagatik berebiziko garrantzia izan du. Bi nazioen arteko egoera ekonomikoak eta politikoak bultzatu dute jarduera hau. Garaiaren arabera, produktuak Hegoaldetik Iparraldera edo Iparraldetik Hegoaldera pasatzen ziren. Jasotako testigantzen arabera, garai jakin batek berebiziko garrantzia izan zuen XX. mendean: Espainiako gerra osteko urteak eta II. Munduko Gerrakoak. Diru-iturria izateaz gain, muga pasatzeak bizitza asko salbatu zituen. Agian, horregatik edo, kontrabandoa ez da hain begi txarrez ikusia izan irundar eta bidasoarren artean. Baina garaiak aldatu egin dira:

-“Azken hamarkadetan nolabaiteko mafiak sortu dira kontrabandoaren inguruan, droga-salmentaren ingurukoa, kasu. Jendeak ez ditu praktika hauek begi onez ikusten, ezta hurrik ere!”

Jakina da garai bakoitzak baduela bere kontrabando mota propioa. Luis de Uranzuk *Un pueblo en la frontera* liburuan, ibaiko eta tren bidezko kontrabandoaz idatzi du.

Mila istorio eta pasadizo konta litezke kontrabandoaren inguruan. Ez dugu ahaztu behar Irun eta bere inguruak idazle eta kontrabandista askoren babesleku izan dela. Pierre Loti



eta Pío Baroja dira inguru honetako idazlerik ospetsuenak eta kontrabandistak ere azaltzen dira beren istorioetan. Irungo kazetari batek, Juan Luis Seisdedos Bouzada, kontrabandoaz eta beste bitxikeriei buruz idatzi zuen. Berak idatzitakoak sekulako arrakasta izan zuten *Crónicas del Bidasoa*, *El Diario Vasco*ko igandeetako edizioan(1972-73 urteetan argitaratuak).

2.4.2. Aduanaren historia eta garrantzia. Trenbidea

1841ean Espartero jeneralak, dekretu baten bidez, barruko aduanak muga geografikoan kokatzeko agindu zuen. Ordura arte, euskaldunok geure foruei esker, inolako *mugarik* gabe sar genitzakeen atzerritik ekarritako gai guztiak. Garai hartan aduanak Gasteizen, Mirandan, Urduñan eta Balmasedan zeuden. Luis de Uranzuk *Lo que el río vio* liburuan kontatzen duenaren arabera, garai hartan irundarrek eta ingurukoek ez zuten begi onez ikusten dekretu hura. Egun horietako egunkarietan, eskutitz pribatueta, batzordeen aktetan... denek, aho batez, gauza bera esaten zuten: dekretu hark hondamendi eta galbide ekonomikoa ekarriko zuela.

Mugako zergei esker, Euskal Herriko ehungintza industriek, burdingintzak, papergintzak eta langintza gehienek sekulako garapena izan zuten, eta Irun Gipuzkoako bigarren hiria bilakatu zen.

Mugako zergak indarrean egon dira joan den mendeko 90eko hamarkadara arte.

Europako Elkarte Ekonomikoan sartzearekin batera, muga-zergak desagertu ziren eta krisialdi handia nozitu zen Bidasoalde osoan. Aduanak ixteak zalantzas bete zuen gure hiria eta ekonomia-jarduera galtzearen ondorioz, biztanleria murriztuko zela pentsatu zen. Aduana itxi baino lehen 1.500 lagun lanik gabe geratuko zirela aurreikusi zen (1993ko urtarrilaren 1ean). Gainera, hiriak memento hartan zuen langabezia-tasa %23koa zen. Alabaina, Irunek gaintitu egin du ziurtasun gabeko aldi hori. Ekonomia-ikuspuntutik, hiriak aldaketa ikusgarria izan du: mugarekin lotuta zegoen jarduera hirugarren sektorera eta, bereziki, garraioaren arlora pasa da.

Europako Elkarte Ekonomikoarekiko aduana ixteak, garraioa beste merkatu batzuetara zabaltzera bultzatu zuen. Ordura arte, Europako herrialdeekin lan egiten zen nagusiki eta lanpostu berrien zabaltzeko premiak harreman komertzialak beste herrialdeekin egitea ekarri zuen. Estatistika datu zehatzik ez izan arren, azken urteotan Irunen nabarmena da Europako Elkarte Ekonomikoan integratu diren azken herrialdeetako kamioi gidarien presentzia.

Irungo kokapen estrategikoarekin batera, badago garrantzi handiko beste faktore bat aduanaren ezarpenarekin lotuta dagoena: trenbidea. XIX. mendean Madril-Hendaia trenbidea egin zen. Konboia 1864an pasa zen nazioarteko zubitik lehendabiziko aldiz.



Esan liteke urte haietan hasi zela Irungo historia modernoa: hiriguneko biztanleria ikaragarri handitu zen, pertsonen eta salgaien joan-etorriak eta horrek berak zekartzan Aduanaren zein Trenbidearen administrazio-egitekoak ere ugaritu zirelako. Komisio-agentziak, merkatari-dendak, banketxeak, tailerrak, lantegiak eta biltegiak irekitzeak bizilagunen hazkundera eragin zuen: funtzionarioak, karabineroak eta trenbideetako langileen familiak saldoka kokatu ziren Irunen eta bizilagunen kopurua halako hiru egin zen mende erdi pasatxoan.

Une horretan sortu ziren hirigintza-kezka aurrerakoiak. Tren geltokia San Juan plazatik kilometro batera kokatzeak hirigune zaharra zabaltzeko aukera eskaini zuen. Udalbatzak hirigunea eta trenbidearen gaineko zubia lotzeko beharra agertu zuen, hiria aurrera begira garraiobide berriarekin bat egitearen garrantziaz jabeturik.

2.4.3. Frantsesaren presentzia gure txokoan eta inguruan

Tradizioz, duela gutxi arte *frantsesa* ikasten zen eskola guztietan atzerriko hizkuntza gisa.

Bertako akademia eta ikastetxeen eskakizun maila oso altua zen, eta bertako ikasleek oso kalifikazio onak izaten zituzten Gipuzkoako beste herriekin alderatzean.

Hona hemen adibide bat: 30ko eta 40ko hamarkadetan Hondarribiko *Hijas de la Cruz* ikastetxean ez zuten soilik *frantsesa* irakasten, gai guztiak Frantziari buruzkoak ziren, hau da, ikasleek (emakumezkoak soilik ziren) Frantziako historia, geografia...ere ikasten zuten. Bertako neskek, ikasketak burutu ondoren, lan egin nahi bazuten, gaztelaniaz idazten ikasi behar zuten. Eta bide batez, ez nuke ahaztu nahi Saint Maur ikastetxea, hau ere Hondarribian kokatua – gaur egun Jesus Haurraren ikastetxea izenekoa-, zeinaren izena bera nahikoa adierazgarria baitzen. Gainerako ikastetxe publiko eta pribatuetan frantsesa zen atzerriko hizkuntza nagusia eta kasu gehienetan, bakarra.

Gaur egungo gizartean ingelesa jakitea eta menderatzea ezinbestekoa omen da. Gipuzkoan mendeetan bigarren edo hirugarren hizkuntza akademikoa izan dena, *frantsesera*, gaur egun guztiz baztertua geratu da. Aldaketa hau ez da gertatu botere politikoek horrela bultzatu dutelako, baizik eta gurasoen ustez (gizartearen ustez), ingelesa delako atzerriko hizkuntzarik interesgarriena gaur egungo erronkei aurre egiteko.



Frantsesa Irunen eta Gipuzkoan

Ikasle kopurua				
Ikasturtea	Irun		Gipuzkoa	
75-76				BBB 81%
80-81				63%
83-84				51%
88-89				BBB+LH
92-93				6.388+1.971
94-95				2.552+1.291
95-96	OHO 751	BBB+LH 220+272		
96-97	OHO 559	BBB+LH 155+553		
00-01	DBH 556	Batxilerra 177		
01-02	490	150		
03-04	454	138		
04-05	494	111		

Oharrak:

- 1) Ez dago lehengo ikasturteko datu zehatzik (ez udalerrikoak ez ikastetxeakoak).
- 2) 96tik aurrera, LOGSE legearen garapenarekin batera, DBH ezarri zen arian-arian; 2000tik aurrera 2 urteko Batxilerrak ordezkatu zuen lehengo BBB eta Lanbide Heziketa (LH) desagertu egin zen. LH-n ere ematen zen atzerriko hizkuntza (AH1).
- 3) DBHren ezarpenarekin batera, bigarren atzerriko hizkuntza ere irakastea proposatu zen (AH2). Beraz, DBHko datuok AH2ren ingurukoak dira nagusiki. Oso ikasle gutxik jarraitzen dute frantsesa ikasten Batxilerran. Irunen, Dunboa izan zen frantsesa (AH1) ematen jarraitu zuen bakarra. Ikastetxe honetako ikasleak ziren nagusiki frantsesa ikasten zutenak, Pio Baroja Institutuan. Arian-arian Institutuan ere joan da ingelesa ezartzen eta gaur egun AH1eko ikasle bakan batzuk baino ez dira geratzen DBHko 3. eta 4. mailan. Bertako 3 frantses irakasleak ikaslerik gabe geratuko dira.
- 4) Frantsesa AH1 egiten ez dutenek ingelesa ikasten dute.
- 5) Ingelesa AH2 ez dago.

Frantses ikasleen kopurua Irunen, 2004-05 ikasturtean:



DBH	<u>AH1</u>	<u>AH2</u>
Dunboa	59	26
Toki.Alai	0	45
Txingudi	0	53
El Pilar	0	89
San Vicente	0	15
Erain	0	62
La Salle	<u>0</u>	<u>111</u>
	59	435

BATXILERRA		
Pío Baroja	55	10
Plaiiaundi	<u>46 (Batxilerra+Formazio zikloak)</u>	
	101	10

Irungo ikasleak denera

DBH: 1.875 ikasle

Batxilerra: 1.003 ikasle

Formazio zikloak: 1.103 ikasle

Oharra: atal honetako datuak Gipuzkoako Hezkuntza Ikuskaritzak emanak dira.

Datu hauek guztiak ikusita –eta gauzak aldatzen ez diren bitartean–, mugarik gabeko Europa Elkartearen eta elkarren ondoan bizi diren bi herrien arteko biztanleek ezingo dute elkar ulertu. Euskara erabiltzea izan liteke konponbide bat, baina iparraldeko euskararen ezagutzaren eta erabileraren bilakaera kontuan hartuz, oso zaila da euskarazko komunikazioa irudikatzea. Jakina, batzuen artean euskaraz egiteko aukera egongo da, baina oso mugatua izango da.

Badago beste bariabile bat, lan honetan behar bezala islatu ez dena, datu faltagatik: Hendaiako zenbat haur edo gaztek hitz egiten duten edo ulertzen duten gaztelania jakitea ere garrantzitsua litzateke. Zoriturrez, ez dut datu zehatzik aurkitu, hala ere Hendaiako Euskara teknikariak jakinarazi dit Hendaiako ikasleen %30 hegoaldekoak direla. Batzuk hegoaldean jaio eta hara joandakoak dira, hau da, hara bizitzera joandako familien seme-alabak dira; eta beste batzuk, berriz, hegoaldean bizi eta han ikasten ari dira. Izan ere, oso fenomeno bitxia gertatzen da hezkuntzaren inguruan Irun (eta Hondarribia) eta Hendaiaren artean: ohikoa da hegoaldekoak iparraldera joatea ikastera, baina ez alderantziz. Egia esan, merezi luke fenomeno honen arrazoiak aztertzea.

2.4.4. Bidasoarrok eta irundarrok ere etorkinak izan gara

Tamalez, atal honen inguruko datu estatistikorik ez dut, baina seguru nago gure familian edo lagunaren familietan galdezka hasten garenean, konturatuko gara ia familia guztietan gertatu dela kasuren bat edo batzuk. Jakina, atzerrira joaten zirenak ez ziren Bidasoaldekoak bakarrik: Euskal Herriko bazter guztietatik atera zen jendea bizimodu hobearren bila.



Gaur egun Hego Amerikako edo Erdialdeko Amerikako edozein egunkari edo telefono-gida hartzen badugu, konturatuko gara euskal abizenen proportzioaz. Euskal Herria hain txikia izanik, berebiziko garrantzia izan du herri guzti horien bilakaeran. Bestalde, aipatu beharrekoa da Euskal-etxeen pisua eta garrantzi soziala Txilen edo Argentinan este baterako (ikus bibliografian Gonzalo Auzaren artikulua erreferentzia).

Luis de Uranzuren hitzetan, Bidasoaldetik jende asko atera da bere opila egitera atzerrira. Nafarroa aldekoak Mexiko eta AEBra nagusiki abiatu dira; Gipuzkoa aldekoak Argentinara, Txilera eta Kubara nagusiki.

Nafarroako bidasoarrek urte gehiago eman dituzte atzerrian eta kapaz izan dira Kalifornian, Idahon edo Nevadan denbora luzean artzain lana egiteko, hiri eta herrietatik urrun. Atzerrira joandako langileek oso diru gutxirekin eta moralki jota itzultzen ziren edo, bestela, dirudun indiano bihurtuta. Atzerrian lan egiteko baimenak lortzeko zailtasuna izan den garaian, AEBko gobernuak erraztasunak ematen zizkieten Nafarroako artzain eta egurgileei.

Orokorrean, Gipuzkoako bidasoarrak, aldiz, hemen bizimodua errazagoa zutelako edo, ez zuten hainbesteko gaitasunik izan hango lan gogorra eta hango bakardadea jasateko; eta hainbat urte pasa ondoren, lehen bezain pobre itzultzen ziren.

Jakina, hau da Luis de Uranzuren pertzepzioa eta, tamalez, oso zaila litzateke hau egiaztatzea. Dena dela, iruzkin bitxi honek badu zerikusirik askotan entzuten den kontu batekin: askotan, etorkinak ezkututzen zuten beren egoeraren eskasia eta edozein gauza jasateko prest zeuden hemengo familiak horren berri ez izateko.

Ez daukagu aspaldiko garai haietako estatistika datu zehatzik, baina kantuen bidez jaso ditugu euskaldun etorkinen sentimenduak. Ekarriko ditudan adibideak XIX. mendekoak dira, baina jakina da familia euskaldun askoren bazkalosteko protagonistak izan direla, XX. mendean.

Euskaltzaindiako lehendakari ohia izan den Jean Harischelarren hitzetan, Euskal Herrian bi kantari / olerkari erromantiko izan ditugu: Piarres Topet Etxahun (1786-1862) eta Jose Maria Iparragirre (1820-1881). 1906an argitaratu zen La Avalancha argitalpenean *Ara nun dira mendi maiteak* (jatorrizko titulua) kanta. Jarraian agertzen den bertzio hau Euskomedia Fundazioko kantutegitik hartua da.

HARA NUN DIRAN

1. Hara nun diran mendi maiteak
hara, nun diran zelaiak!
Baserri eder zuri-zuriak,
iturri eta ibaiak.
Hendaian nago zoraturikan
zabal-zabalik begiak.
Hara, España, lur hoberikan!
ez da Europa guztian!
2. Oi, Euskal herri, eder maitea,
Hara, hemen zure semea.
Bere lurrari muin ematera



beste gabe etorria!
Zuregatikan emango nuke
pozik bai nere bizia,
Beti zuretzat, hil arteraino,
Gorputz ta arima guztia.

3. Gero, pozik bai Donostiara,
Okendo haren lurrera.
Zeru polit hau utzi beharra,
nere anaiak, hau pena!
Irutxuloeta maitagarria,
nere tokia zu zera,
Veneziaren grazia guztiak
gaur Donostian badira.
4. Agur, bai, agur Donostiako
nere anaia maiteak,
Bilbaotikan izango dira
aita zaharraren berriak.
Eta gainera hitz neurtuetan,
garbi esanaz egiak.
Suamerikan zer gertatzen dan
jakin dezaten guztiak

1877an Ameriketatik itzultzean, Hendaiara iritsi zenean konposatu zuen eta abesti horretan ongi kontatu zuen bere egoera: Hendaiatik ikusten zituen Irun eta Hondarribia, baina ezin zen Hegoaldera pasa arrazoi politikoengatik.

Badago beste kanta bat, hainbat irundarrentzat esanahi berezikoa, *gitarra zahartxo bat*. Kanta honen inguruan aurkitu dudak lehenengo erreferentzia *Euzkadi* aldizkarikoa da (1932). Dena dela, kontuan hartu behar dugu lehen kantak, nahiz eta oso ezagunak izan, askotan ez zirela argitaratzen, eta ahoz aho transmititzen zirela. Garai hartan asko kantatzen zen etxeetan. Igandeko bazkariaren ostean, familia biltzen zen, eta tangoen eta habaneren doinuen artean kantatzen ziren Iparragirrerentzako kantak.

Baina zergatik zen berezia *gitarra zahartxo bat* kanta Irunen? Kontua da Jose Mari Iparragirrek bazuela Irunen lagun bat: beste musikari bat, Apolinar Gal Gainza (1843-1929). Iparragirrek Ameriketara abiatu aurretik, Apolinarren etxean utzi zuen bere musika-tresna zahar maitea: bere gitarra. Iparragirre ez zen inoiz bueltatu gitarraren bila; eta bueltatu bazen ere (hori ez dakigu), gitarra *xaharra* bere lagunaren etxean geratu zen, Apolinarren etxean, Gerra Zibileko garrek Irun suntsitu zuten arte.



GITARRA ZAHARTXO BAT



1. Gitarra zahartxo bat det nik nere laguna
Horrela ibiltzen da artista euskalduna.
Egun batean pobre, besteetan jauna,
Kantatzen pasatzen det nik eguna.

2. Nahiz dela Italia, orobat Frantzia,
Bietan bilatu det mila malizia.
Korritzen badet ere nik mundu guztia
Maitatuko det beti Euskal Herria.

3. Jaunak ematen badit neri osasuna,
Oraindik izango det andregai bat ona.
Hemen badet frantsesa, interesaduna,
Baina nik nahiago det hutsik euskalduna.

4. Adios, Euskal Herria, ez baña betiko,
Bost-sei urte honetan ez det ikusiko.
Jaunari eskatzen diot grazia emateko
Nere lur maite hontan bizia uzteko.

2.5. IRUNGO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

2.5.1. MOTIBAZIOA, GAITASUNA ETA ERABILERA


Jose Maria Carrionen, Txepetxen, teoriaren arabera, motibazioa, hizkuntzaren gaitasuna eta erabilera guztiz elkarlotuak daude. Erabilera zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta handiagoak izango dira ezagutza eta motibazioa. Hiru elementu hauek bultzatzen gaituzte hizkuntza batean edo beste batean hitz egitera.

Hizkuntza jakin baten jabe ez bagara, oso motibatuta bagaude ere eta momentu horretan gauden lekuan hizkuntza horren erabilera ohikoena bada ere, nekez baliatuko gara hizkuntza horretaz.



Beraz, Irungo euskararen gaitasunaren eta erabileraren aztertzeak ideia bat eman ahal izango digu euskararekiko motibazioaren inguruan.

Hauek dira **gaitasunaren inguruko datuak**:



		1981	1986	1991	1996	2001
20045 Irun	Guztira	51592	52751	52320	54167	55084
	-Euskaldunak	9681	11378	12704	15708	17845
	--Euskaldun alfabetatuak	4635	7899	9342	13341	15489
	--Euskaldun erdi-alfabetatuak	2984	2235	2308	1339	1776
	--Euskaldun alfabetatu gabeak	2062	1244	1054	1028	580
	-la-euskaldunak	6536	10005	10365	9417	10058
	--la-euskaldun alfabetatuak	3075	5838	6803	6730	6508
	--la-euskaldun alfabetu gabeak	2338	2179	2028	1479	1883
	--la-euskaldun hartzaileak	1123	1988	1534	1208	1667
	-Erdaldunak	35375	31368	29251	29042	27181

1981ean Irungo biztanleen ia bosten bat zen euskalduna. Hogei urte pasa eta gero herenetik gertu gaude. 2001eko datuen euskaldunak eta ia-euskaldunak taldeak batuz gero, bi talde hauen kopurua erdaldun elebkarren adinakoa dela ikus dezakegu. Beraz, euskararen gaitasunari dagokionez, esan dezakegu aurrerapena nabarmena izan dela azken urteetan.

Irunen adineko euskaldun zaharren multzo txikia murriztuz doa. Datu zehatzagoak beharko lirateke hau biribiltasunez baieztatuzeko, baina zentzuzkoa iruditzen zait pentsatzea euskaldun alfabetatu gabe gehienak direla adineko euskaldun elebidunak (oso zaila litzateke Irunen euskaldun elebkarren bat topatzea).

Erdaldun elebkarren (erdaldunak) taldea murriztuz doa era progresiboan. Zalantzarik gabe, Irungo Euskal hiztunen irabazia euskaldun alfabetatuak taldeari esker gertatzen ari



da eta, kasu honetan, logikoa litzateke pentsatzea hezkuntzaren bidezko transmisioari esker dela.

Gaitasunari dagokionez, partzialki, euskaldunen ehunekoa gorantz doa eta erdaldun elebkarrena beherantz, euskara hiztunak erakartzen ari diren seinale.

2.5.2. EZAGUTZA ETA ERABILERA AURREZ AURRE

Erabileraren neurketa egin ziren behaketetan kontuan hartu zen zenbat hitz egiten zen euskaraz une eta leku jakin batean.

Datu horiek aztertzean, kontuan hartu behar dugu hiztun horiek ez direla euskaraz hitz egiten duten bakarrak. Izan ere, behaketa horietan gaztelaniaz hitz egiten zuten askok bazekiten euskaraz. Azken batean, erabilera ez da norberaren erabakira mugatzen den fenomeno, alegia, norberaren baitakoak ez diren ezaugarriek ere baldintzatzen dute hizkuntz hautatua. BAT aldizkariko 9. alean, SIADEKOn artikuluan, ezaugarri horiei *erabilpenaren erregularitateak* deitu zitzaion. Gogora ditzagun han esandakoak:

Egoera minorizatuan dauden hizkuntzen erabilpena *erregularitate* batzuen barnean gertatu ohi da. J.A: Fishmanek eta Ll. Aracilek markatutako bideari jarraiki, honela formula genezake arazoa: **zein baldintza bete behar dira bi pertsonen arteko solasaldia euskaraz egiteko?**

- Hitz egiten duenak euskaraz jakitea
- Jakinda ere, euskaraz egin nahi izatea.
- Solaskidea euskalduna izatea (bat baino gehiago badira, denek jakitea; bestela bada, banaka batzuk besterik ez baitira horrelako egoeretan ere euskaraz egiten dutenak)

Aipatu baldintza horietako bakar batek huts egiten badu, automatikoki, hiztunak erdarara pasako dira. Baldintza horietaz gain, badira beste batzuk, hizkuntza aldaketa eragin edo laguntzen dutenak, nahiz eta beren eragina erabakigarria ez izan:

- Hitz egiten duenak, solaskideak euskaraz badakiela jakitea; normalean zalantzaren bat baldin badago, erdara erabiltzen baita.
- Gaia arrunt samarra eta ez teknikoa izatea, bestela, gaitasun-faltaz edo esan nahi dena behar den zehaztasunez uler dadin, hizkuntzaz aldatu egin baitaiteke.
- Harremana ahozkoa izatea. Idatzizkoa bada, euskaldun askok oraindik ere erdara erabiltzen baitu.

Erabileraren Kale Neurketak, kalean edo leku publikoetan gauzatzen diren harremanak jasotzen ditu, eta horiek, normalean, izaera afektibo-pertsonala dute. Beraz, familiakoan artean, lagun artean, normalean elkar ezagutzen dutenen artean gertatzen dira, eta ondorioz, zalantza faktorea desagertu egiten da. Gaiei dagokienez, normalean arrunt samarrak izaten dira, alegia, eguneroko gaiak.




EZAGUTZA VS ERABILERA: BILAKAERA

Ezagut 86	Erabil 89	Ezagut 91	Erabil 95	Ezagut 96	Erabil 01
21,6	7,2	24,3	7,2	29,0	5,4

Erabilerari eta ezagutzari buruzko datuak urte ezberdinetakoak izan arren, badago joera garbi bat: ezagutza aurrera doan neurrian, lehenengo urteetan erabilerak ez du aurrera egiten, eta azken kale neurketan behera ere egiten du. Eboluzio hau ez da itxuraz batere logikoa, baina motibazioaren bilakaerak izan dezake, kasu honetan, arrazoiaren giltza. Hau da, hurbileko esparruak oraindik sendo egotetik urrun badaude, oso zaila da erabileran aurrera egitea.


Hona hemen **ama-hizkuntzari buruzko datuak (ezagutza)**



Eskema honetan ikus dezakegu euskararen familia-bidezko transmisioa gorantz doala, baina oso motel: 1986an 8.434k zuten euskara ama hizkuntza, eta 2001ean, 9.265k. Gaztelaniarena ere aurrera doa: 1986an, 41.318 eta 2001ean, 44.193. Bi hizkuntzen proportzioa mantendu egiten da. Hau da, 2001ean 44.193 biztanlek zuten gaztelania ama-hizkuntza; eta 9.265ek, euskara. Beraz, Irunen kasuan ondoriozta liteke euskararen ikaskuntza naturalaren proportzioa oraindik oso baxua dela eta euskararen ikaskuntza oraindik dagoela neurri handi batean hezkuntzaren esku.

Jakina, beste egoera batean hizkuntza gaitasun egokiak eta erabilera esparruen jabe izateak hizkuntzarekiko motibazio naturala ziurtatuko luke, baina argi eta garbi esan behar dugu hau ez dela Irungo kasua. Erabilera eta ezagutzaren arteko zuloa nabarmenagoa da eta arrazoi hau izan daiteke: hizkuntzaren erabilera esparruak ez daudela oraindik behar bezain sendo. Irungo haur eta gazte gehienentzat euskara hizkuntza akademikoa da, hau da, beren gurasoek bultzatutako prozesu kulturala.

Etxeko hizkuntzaren datuak (erabilera)



Datu hauek erroldatik hartuak dira. Grafiko honetan ikus dezakegu etxeke hizkuntzan gaztelania dela nagusi, alde izugarri nabarmenarekin gainera, eta, bestalde, mantendu egin dela joera hau azken urteetan.

2001eko datuetan etxean gaztelania eta euskara erabiltzen dutenen kopurua bikoiztu egin da eta urte bereko datu bilketan nabarmenki gorantz egin du atzerriko hizkuntzen hiztun-kopuruak.

Neurri batean esan liteke kaleko erabileraren isla dela etxeke hizkuntzaren egoera.

2.5.3. GAITASUNA HOBETZEKO BIDEAK: HEZKUNTZA ETA EUSKALTEGIAK

Gaitasuna hobetzeko bideak atalean bi azpiatal ikusiko ditugu: euskaltegietan matrikulatutako ikasleen kopurua eta B eta D ereduetan eskolatutako haurrak. Kontuan hartu behar dugu azken urteetan euskaltegietan matrikulatutako ikasleen kopuruaren beherakada (1986-87 ikasturtean 1.290 ikasle eta 2002-03 urtean, 638 ikasle) eta Irunen hizkuntza-transmisioaren bidea. Hau da, alde batetik ikus dezakegu bide naturala nahikoa eskasa dela eta euskaren transmisioa hezkuntzaren bidez egiten dela nagusiki.

2.5.3.1. HEZKUNTZA


Ezbairik gabe, A, B eta D ereduaren ezarpenak hezkuntza publikoan eta pribatuan euskararen ezagutza portzentaia maila esanguratsuan areagotzea ekarri zuen. Eskuratutako datuak 1983-84 ikasturteetik aurrerako datuak dira, baina esan beharra dago lehenagotik ere ahalegin handia egin zela euskararen ezagutza areagotzen hezkuntzaren bidez.

Irunen 1962ko azaroaren 22an hamaika ikaslerekin jarri zen martxan Irungo ikastola, inolako baimen ofizialik gabe. Bitartean, gauza asko aldatu ziren, eta legeztatpena formalizatzean, 1970ko hamarkadan, Irun eta Hondarribiko ikastolak elkartu egin ziren. Honekin esan nahi dut A, B eta D ereduaren ezarpena baino lehenago, bazirela ibiliak bidearen lehenengo urratsak.



- A eredia:** ikasketak gaztelaniaz eta euskara irakasgaia da.
- D eredia:** ikasketak euskaraz eta gaztelania irakasgaia da.
- B eredia:** irakaskai batzuk euskaraz eta besteak gaztelaniaz egiten dira
- X eredia:** ikasketak gaztelaniaz, euskara irakaskai gisa ere ez dago.


Haur Hezkuntza (IRUN)
Educación Infantil (IRUN)



Haur hezkuntzari dagokionez, oso nabarmena da A eta X ereduaren jaitsiera 1991-92 ikasturtera arte. Irakaskuntza ez unibertsitarioan ere ikus dezakegu A ereduaren jaitsiera nabarmena 2001-02 ikasturtera arte eta B ereduaren igoera eta azken urteetako mantentzea.




Irakaskuntza ez unibertsitaria (IRUN)
Enseñanza no universitaria (IRUN)



Ikasturtek / Cursos

2004-05 IKASTURTEA (IRUN)
CURSO 2004-05 (IRUN)



Grafiko honetan ikus dezakegu B ereduaren nagusitasuna Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBH-n eta bat-bateko jaitsiera 15-16 urtetik gorakoen artean.

D ereduan ari direnen kopurua baxuagoa izan arren, ez du alde nabarmenik B ereduarekin konparatuz gero, baina ikasleen adinak gora egin ahala, mantendu egiten




da BAL, BBB eta UBI ikasketetan; Lanbide Heziketan, aldiz, era nabarmenean jaisten da.

A eredia da kopururik txikiena duena eta Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBH-n ikusten da aldea oso nabarmena dela. BAL, BBB, UBI eta Lanbide Heziketan, aldiz, A eredia da nagusi.

2.5.3.2. Euskaltegien datuak

Irunen hiru euskaltegi daude: Herri Jakintza (homologatua eta *Bertan* sarekoa), Irungo AEK (homologatua eta *AEK* sarekoa) eta Irungo Udal Euskaltegia (publikoa eta *Udal Euskaltegiak* sarekoa)



2004-05 ikasturtean, 619 ikasle daude matrikulatuta hiru euskaltegietan. Datu hauek bakarka hartuta ez dira oso esanguratsuak, baina hurrengo taula aztertzen badugu azken urteetako joera, ikus dezakegu ikasle-kopuru jaitsiera nabarmena dela (2000-01 ikasturtearen aurrera) eta joera hori mantendu egiten dela.

Ondoko taulan datuak urratsetan adierazita ematen dira, mailatan bilduta. Euskaltegien kurrikulua garapenarekin batera, aldatu egin da ikasleen mailaketa adierazteko modua: lehen, urratsez baliatzen ginen ikaslearen gaitasun maila adierazteko eta gaur egun, mailatan.

- Lehenengo Maila A:** 1.,2. eta 3. urratsak
- Lehenengo Maila B:** 4.,5. eta 6. urratsak
- Bigarren Maila:** 7.,8. eta 9. urratsak
- Hirugarren Maila:** 10.,11. eta 12. urratsak

1990-91 ikasturte arte hutsuneak ikus daitezke 3. mailari dagozkion kopuruetan. Arrazoia hau da: 90eko hamarkadan 10., 11. eta 12. urratsak sortu ziren. Ordura arte, euskalduntze prozesua 8 urratsetan banatzen zen, baina 8. urratsa gainditu ondoren ikasle-kopuru handi batek ez zuela EGA titulua lortzen ikusita, beste hiru urrats horiek sortzea erabaki zen.



Euskalduntze-alfabetatzearen eta bermatrikulazioaren bilakaera, ikasmailaren arabera (Irun)										
	Euskalduntze-alfabetatzea					Bermatrikulazioa				
	GUZTIR A	101-106	107-109	110-112	Alfa	GUZTIRA	101-106	107-109	110-112	Alfa
1986-87	1.290	73,18	18,84		7,98	44,57	47,03	44,03		23,30
1987-88	1.248	77,24	18,43		4,33	42,23	44,92	35,65		22,22
1988-89	1.160	78,62	16,38		5,00	44,22	44,41	47,89		29,31
1989-90	1.133	75,20	17,74		7,06	38,92	40,96	37,31		21,25
1990-91	1.022	76,81	17,42	0,98	4,79	38,45	41,27	34,27	20,00	12,24
1991-92	972	78,19	12,55	4,73	4,53	36,73	40,13	23,77	15,22	36,36
1992-93	1.045	79,52	8,13	4,02	8,33	40,10	41,88	43,53	19,05	29,89
1993-94	1.039	75,84	10,68	5,10	8,37	41,67	41,88	58,56	30,19	25,29
1994-95	1.054	76,47	14,99	4,74	3,80	43,74	46,15	46,84	14,00	20,00
1995-96	1.102	73,68	16,79	5,44	4,08	40,11	40,89	46,49	20,00	26,67
1996-97	1.063	67,45	18,25	8,00	6,30	42,05	44,07	47,94	29,41	19,40
1997-98	1.083	61,40	22,07	11,63	4,89	41,27	41,80	47,70	38,10	13,21
1998-99	1.137	53,65	17,94	26,39	2,02	43,54	46,23	55,39	31,33	26,09
1999-00	1.163	52,45	17,11	24,33	6,10	36,89	40,33	50,75	27,21	7,04
2000-01	831	54,39	17,21	27,08	1,32	39,71	43,58	43,36	31,56	0,00
2001-02	789	47,70	13,94	31,97	6,39	40,79	43,43	51,38	39,20	6,00
2002-03	638	44,1	23,35	30,56	1,57					

2.5.4. KALEKO ERABILERARI BURUZKO DATUAK

EUSKARAREN KALE-ERABILERA 2001	
Biztanleak 2001	57.644
Entzundakoak	11.290
Lagina	%19,6
Euskaraz	610
Ehunekotan	% 5,4

- 2001eko datu eguneratuen arabera, Irunek 57.215 biztanle ditu¹. Lagin honek Irungo populazio osoa ordezkatu dezake, %95 konfiantza mailan, eta +1 eta -leko akats margenarekin. Emaitzak nahikoa fidagarriak dira beraz².


¹ Bidasoa Bizirik. Irungo populazioa. Web orria.

² Tables of statistics. Colton, Aekin. New York



- Entzundakoetatik 610 pertsona ari ziren euskaraz. Irunen, %5,4 da euskararen kale-erabileraren portzentaia. Erabilera-mailak, aurreko urteetako emaitzak kontuan hartu gabe, euskararen presentzia Irunen oso urria dela erakusten digu. Jasotako emaitzak, euskarak Irunen bizi duen egoera agerian uzten du. Egoera kezkarria, ez baita gizarte-mailako hizkuntza. Normalizaziotik oso urrun gaude, oraindik orain, erdara guztiz nagusi baita komunikazio tresna gisa. Euskararen agerpena, aldiz, testimoniala da.
- 2001eko neurketaren emaitzak, inoiz jasotako emaitzarik kaxkarrenak dira Irun udalerrian, hizkuntza erabiliaren neurketak egiten hasi zirenetik. Kontuan izanda metodologia berdina erabili dugula (neurraldi eta zonalde berdinak), kezkarako motiboak baditugu, erabilera, hazi beharrean, jaitsi egin delako. Azkeneko neurketan, “inpassee” hitza aipatzen zen, egoerak bere horretan jarraitzen zuela adierazteko, ez atzera ez aurrera. Oraingo honetan, bi puntuko galera gertatu da.

Kale-erabileraren bilakaera




Adin taldekako emaitzak

	KALE-ERABILERA ADIN TALDEEN ARABERA				
	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Guztira
Biztanleak 01	7275	7211	33426	9733	55.215
Neurtuak	1933	1921	5656	1780	11.290
Lagina %	26,6	26,6	16,9	18,3	19,6
Euskaraz	176	148	235	51	610
Euskaraz %	9,1	7,7	4,1	2,9	5,4



Euskararen erabilera adin-taldeka



- Neurtutako gehientsuenak helduen adin-taldekoak izan dira. Jakina, helduen taldeak, adin-tarte zabalagoa barnebiltzen du. Beraz, adin-talde bakoitzean jasotako laginak ordezkapen gaitasuna duenentz jakiteko, berriro ere, 2001eko populazioari buruzko datuetara jo dugu. Adin-talde bakoitzeko biztanle kopurua eta adin-talde bakoitzeko entzun ditugunen kopurua aurrez aurre jarri ditugu, lagina esanguratsua den frogatzeko. Ikusten denez, alde batetik, haur eta gazteen lagina guztiz esanguratsua da, eta helduena eta zaharrena, bestetik, aski esanguratsua.

EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA ADIN-TALDEKA				
	1984	1989	1995	2001
Haurrak	5,8	12,2	12,4	9,1
Gazteak	3,3	6,2	5,4	7,7
Helduak	6,9	5,6	6,9	4,1
Zaharrak	7,1	8,1	3,2	2,9
Guztira	6,0	7,4	7,4	5,4

Inguruarekiko alderatzea: erabilera datuak

EUSKAL HERRIA, GIPUZKOA, BIDASOA ETA IRUN			
Euskal Herria	Gipuzkoa	Hondarribia	Irun
13	29,30	34,13	5,40

Ikusten ditugun beste kopuruak nahiko adierazgarriak dira gure hirian euskararen egoeraren larritasuna adierazteko.



2011. urterako prospekzioa

Begira aplikazio informatikoak, hemendik urte batzuetara biziko dugun egoera aurreikusteko tresna eskaintzen digu. Aplikazio honek zenbat euskaldun izango den gure herrian hamar urte barru eta zenbatean mintzatuko den euskaraz kalkulatzeko du. Irun erabat euskalduntzeko, egungo abiadan segituz gero, zenbat denbora beharko den jakiteko informazio baliotsua da. Adierazle hau baliagarria suerta daiteke euskalduntzearen maila egokia denentz jakiteko. Halaber, erabilera isotropikoa neurtzen du. Zein den ezagutza maila jakin bati dagokion erabilera-portzentaia posiblea. Horren arabera, datozen urteotako erabilera estimazioak egiten ditu.

“Liburuan egiten diren kalkuluak bi motatakoak dira, batetik, euskaldunak eta biztanleriaren hazkuntza geometrikoa, ezagutza aztertzeke eta, bestetik, Txillardegik sortutako eredu matematikoa erabilera estimatzeko. Eredu matematikoaren fidagarritasuna dagoeneko hirutan egin den Euskararen Kale Erabileraren Neurketak eta herriz-herri egindako hamaika neurketek babesten dute” (Bat Soziolinguistika Aldizkaria. 28 zkia. 1998ko urria. “Euskararen kale-erabilpena Euskal Herrian”. Olatz Altuna Zumeta. 17 or.)

Urtea	Euskaldunak	Ezagutza %	Erabilera I
2001	19.422	34,63	8,01
2001	20.265	35,89	8,66
2003	21.143	37,18	9,37
2004	22.060	38,53	10,15
2005	23.017	39,92	10,99
2006	24.015	41,36	11,90
2007	25.056	42,86	12,89
2008	26.143	44,41	13,97
2009	27.277	46,01	15,15
2010	28.459	47,68	16,43
2011	29.694	49,40	17,83

- Erabilera isotropikoa kalkulatu dugunean, egin dugun oharra gogorarazi nahi dugu lehenik eta behin. 1991tik 1996ra euskararen ezagutzan eman zen hazkuntza du oinarritzat aplikazio honek. Martxa horretan segituz gero kalkulatu ditu urteroko ezagutza-tasak. Beharbada, eta adibidez, euskaltegietan sumatzen hasia den matrikulazio jaitsiera kontuan hartuz, aurreikusi den hazkuntza gehiegizkoa da.

2.5.5. ONDORIOAK

- Euskararen erabilera oso urria da Irunen, entzun ditugun elkarrizketa guztien %5a baino ez. Euskararen kale-erabileraren proportzioak behera egin du / bere horretan mantendu da. Hizkuntza-erabileran ez da aurrerakuntzarik antzeman, irundarren artean euskararen ezagutzak goraka egin duen arren.
- Belaunaldien artean ezberdintasun nabariak daude euskararen erabilerari dagokionez.



Haur eta gazteen erabilera-portzentaiak heldu eta zaharren erabilera-portzentaien gainetik daude.

- Belaunaldi gazteen erabilera-maila jasoagoa izatea esperantzagarria da.
 - Haurrak: Haurrak dira euskaraz gehien mintzatzen direnak. Erabilera-maila, ordea, jaitsi egin da aurreko neurketatik / ez da aurrerapausorik sumatu, adin-talde honetan, ezagutza-maila dezente hazi bada ere.
 - Gazteak: Gazteen artean, euskararen erabilerearen portzentaiak gora egin du. Jasotako emaitzen artean datu positiborik bada azpimarratzekoa, adin-talde honetan sumatutako hazkundera da.
 - Helduak: Helduen erabilera-mailan ez da inolako aurrerapausorik sumatu. Aitzitik, euskararen erabilera proportzioak pisua galdu du aurreko neurketeekiko.
 - Zaharrak: Zaharren artean, erabilera-proportzioa gutxitu da. Atzerakada aurreikusitako bazitekeen ere, hain erabilera apala izatea da kezkarria.
- Euskararen ezagutza-maila hazi egin da. Ez behar bada, aurreko hamarkadan egin zuen bezainbeste. Hazkunde horrek, ordea, ez du euskararen erabilera areagotu. Hori baino, erabilera-portzentaia jausi/mantendu egin denez, euskararen berreskurapen prozesuan atzera pausoa gertatu dela esan behar gaude.
- Erabilera erreala eta balizko erabilera posiblea edo isotropikoa parez pare jarri ditugu. Aurreikusitako erabilera-maila baino baxuagoa da erabilera erreala (3 puntu hain zuzen). Adierazle honek, beraz, egoeraren larritasuna azpimarratu baino ez du egiten.
- Motibazioari dagokionez, aurreko datuak oso esanguratsuak dira eta agerian uzten dute Irungo euskararen egoera *artifiziala*. Atal honen hasieran azaldu dut *Txepetxen* teoria hiru elementu horien elkarlotura azaltzeko, eta bistan dago Irunen kasuan behintzat gaitasuna-ezagutza bikotea ez direla nahikoak gure egoera soziolinguistikoa azaltzeko. Hizkuntza menperatzen duten hiztunak zenbat eta gehiago izan, hainbat eta handiagoa izango da erabilera. Hauxe da logikak esaten diguna, baina Irun bezalako hiri batean hori ez da nahikoa. Kontuan hartu behar dugu ia erabilera- esparru guztiak galduak zirela.
- **Mugaren ondoan egotearen ondorioak** atalean ikusi dugun bezala, irakurri ahal izan dugu alde batetik 9.912-12.000 biztanle zehazki Irunen XX. mendearen hasieran eta, bestetik, zeintzuk izan diren jendea hona erakarri dituzten faktoreak. Mende horretan, nagusiki Espainiako beste komunitateetatik etorritako jendea etorri zen Irunera bizitzera eta, jakina, egoera-soziopolitikoa eta euskararen prestigioa kontuan harturik, ez da harriztekoa euskararen jaitsiera nabarmena.

Baina kontuak aldatu egin dira azken 20-25 urteetan eta euskarak lortu egin du aspaldian galdutako prestigioa. Irunen kasuan esan beharra dago berreskurapenari ekin zaionean ia zerotik abiatu behar izan dugula eta Fishmanek esan zuen bezala, hizkuntza baten gertuko esparrua galduta dagoenean, oso zaila da hizkuntza hori



berreskuratzea. Eta hori da Irungo errealitatea. Alde batetik badago gizartearen nahia, kasu honetan seme-alabak B eta D ereduatan matrikulatu dituzten gurasoak (ikus grafikoak) eta, bestaldetik, ingurune erdalduna esparru guztietan. Honen ondorioz, euskara hizkuntza ia akademiko soilak bilakatu da.

Askok oso irakurketa ezkorra egin dezakete lerro hauetan, baina nik uste dut ezin diogula ihes egin gure errealitateari eta, nolabait, onartu egin behar dugula zein egoeratan gauden eta zergatik. Honek ez du esan nahi konformatu behar dugunik edota ezin dela ezer egin pentsa dezakegunik, baina hau onartzeak lagunduko digu euskararen berreskurapenari behar zaion denbora ematen. Beste hitz batzuetan esanda: urte askotan gertatutako galerak bere denbora behar du berreskuratzeke, nahiz eta ahalegin handiak egin eta baliabide ugariak jarri.

2.6. IRAKASKUNTZAREN A, B ETA D EREDUEN INGURUKO AZALPEN BATZUK.

Irungo egoera soziolinguistikoa aztertzean ikusi dugu irakaskuntza dela eragin handien izan duen faktorea euskararen berreskuratze prozesuan. Horrexegatik egokitzat jo dut hona ekartzea azken urteetako irakaskuntzaren nondik-norakoa.

2.6.1. Felix Etxebarriaren ikuspuntua

Felix Etxebarriak honela azaltzen ditu Euskal Irakaskuntzaren hastapenak:

Ikastolak sortu zirenean (1960), irakaskuntza erabat euskaraz egiten zen. Irakasle eta ikasle gehienak, euskaldunak ziren. Baina, 1970eko hamarkada ondoren, ikasleen konposizioa, maila handi batean, aldatu egin zen. Francoren azken urteetan, ikasle eta familia erdaldunak gero eta gehiago hasi ziren ikastoletara hurbiltzen.

Hazkunde honekin batera, aldaketa sakonak gertatu ziren, eta arazoak sortu. Egile batzuen eraginez (Torrealdy, J.M. 1981), arrazoi demografikoak, pedagogikoak, profesionalak, didaktikoak, politikoak eta beste batzuk medio, hiru hizkuntz eredu (A,B,D) proposamena bultzatu eta onartu zen. 20 urte pasa ondoren, ereduaren sistemak garai baterako erantzun zuela aitortu nahi dugu, baina gaur egun, gauditua dagoela azaldu nahi dugu.

A ereduaren bukaeraren arrazoiak

Ereduen bilakaera. 20 urtetan ereduaren bilakaerak erakusten digunez, A ereduak %30ekoa izatetik, %8 izatera pasatu da EAE-n (Eusko Jaurlaritzak, 2004). 2003-04 ikasturteko matrikula horrela izan zen: A ereduak (%8,1), B ereduak (%30,5) eta D ereduak (%61,4). Arrazoi askorengatik (arrakasta, prestigioa, estatusa, esperientzia, motibazioa, e. a.), familiek eredu euskaldunenak aukeratzen dituzte. Sozialki, praktikan, A ereduak, eredu baztertua izan da. Eta antza denez, gero eta baztertuagoa izango da, desagertu arte.

Pedagogikoak. Eskolan, ama-hizkuntzan hasi behar dela printzipioa kontuan hartzeko da, baina hizkuntzen irakaskuntzan kontuan hartu beharreko beste faktoreak ere badaude: metodologia egokia, familiaren motibazioa, irakasleriaren motibazioa eta



prestakuntza, hizkuntzak duen estatusa eta prestigioa gizartean, e. a. Euskararen kasuan, baldintza multzo honek eragin eta indar handia du, eta ikasle askok, ama-hinkuntza bestea izanik, euskara ondo ikasi dutela egiaztatzen dute. Ikasle ezberdinentzat pentsatuta zeuden 3 ereduak (euskaldunak, bitartekoak, erdaldunak) praktikan beste era batera funtzionatu dute, ikasle erdaldunak nahi izan duten ereduetan, A, B edo D, eskolatu direnez.

Didaktikoak. Gaur egun, 70etan ez bezala, euskara eta euskaraz irakasteko materiala ugari dago, lehen hizkuntza zein bigarren hizkuntza gisa. Metodologiaren aldetik ere, euskara bigarren hizkuntza gisa, garbiago dago nola landu euskara.

Kanpoko esperientziak. Eredu tradizionalari indarra kenduz, Katalunia eta Kanadako ereduetan, etxeko hizkuntzaren inbertsio modeloa arrakastatsua izan dela ikus daiteke.

Profesionalak. 1975eko egoera ez da 2004ko egoera. Orduan, irakasle euskalduna, edo euskaraz klaseak emateko gai zena, %5 zen, eta gaur egun ikastetxe publikoetan, euskaraz klaseak emateko kuantifikatuta daudenak %80 dira (Eusko Jaurlaritza, 2004)

Politikoak. “A eredu mantentzearen aldeko” alderdiek populazioaren %40 inguru ordezkatzen dute (2004ko hauteskundeak), baina EAEko biztanleriak, %8k besterik ez du A eredu aukeratzeko eskolan. Badirudi eztabaida, linguistikoa izan beharrean, politika mailan plazaratzen dela.

Ikerketa. Euskal irakaskuntzan 50 ikerketa inguru egin dira azken 30 urteotan, proportzioz, beste inon baino gehiago. Eta ikerketa horien arabera, 70eko hamarkadan plazaratzen ziren galdera eta kezka askok erantzun didaktikoa badute. Euskara nola ikasten zen ongien badakigu. Badakigu, ere, euskaraz ikasteagatik ez dela matematika edo zientziaren kalterik suertatzen. Ikasle euskaldunengan beste inolako kalterik ez dela gertatzen badakigu. Hitz batean esanda, D eredu ikasten duten ikasleek besteek bezain ondo ikasten dituzte gainerako gaiak, eta ez dute besteek baino arazo pertsonal, adimen arazo edo nortasun problema gehiago. Badakigu, gainera, D ereduko ikasleek Selektibitatean emaitza onak dituztela, eta euskaraz ikasketak jarraitzeko, ez dutela zailtasunik. Euskaraz ikasten dutenentzat dena da abantaila (Etxeberria, F., 2003). Badakigu, ondo jakin ere, A eredu euskara ez dela ikasten. Ikerketan eta esperientzia pertsonalean eta profesionalean, egunero egiaztaturik aurkitzen dugu hori.

Bi giza taldeen arriskua. Gure ikerketan (eta hau beste irakasle askoren iritzia ere bada), bi eredu egoteak, A eta D, batez ere irakaskuntza ertainetan, elkar bizikidetzari kalte handia egiten diola ikusi dugu. Bi mentalitate, bi hiritar mota, bi multzo desberdin sortzen laguntzen du: euskaldunak eta erdaldunak. Zatiketa gehiago nahi ez duen gizarte bati ez zaio inondik ere horrelako hezkuntza motarik komeni.

Ikasle etorkinen eskolatzeko eta gizarteratzea. Atzerritik etorritako ikasleak gizarteratzekoan, hizkuntza-ereduen sistema, selekzio eta baztertze bide bezala azaltzen zaigu. A eredu, leku askotan, giza talde marjinalak eskolatzeko aukera bihurtzen ari da. Gaur egun, eskola batzuetan, ijitoek, etorkinek, eta oro har sozio-ekonomikoki zailtasunean aurkitzen diren ikasleek, porrotaren eta A eredu bukatzeko arriskua dute. Horrela jarraituz, haren baitan sortutako kontzentrazio eta ghetto irudia, A ereduari nekez kenduko zaio.



Ingeles goiztiarra. Gaur egun oso hedatuta dago ingeles goiztiarraren irakaskuntza. 4 urterekin hasten dira gure haurrak ingelesa atzerri hizkuntza gisa ikasten. Ikasten saiatzen dira, era bizian gainera, lehenbailehen, modu praktikoa eta erabilkorrean (Aliaga, 2004; Garagorri, 2004). Hori ingelesarekin egiten bada, ikasle erdaldunentzat nola ez da egingo euskararekin?

Felix Etxeberriaren proposamena

Arrazoi hauek guztiak kontuan hartuta, A ereduarenak egin duela pentsatzen du. Eredu horretan ez da euskara ondo ikasten, gazteengan frustrazioa sortzen du eta gizarteratze bidean zailtasun handia dakar.

B ereduak emaitza onak ematen ditu D ereduari hurbiltzen zaionean. Arrazoi sozio-politikoak izan ezik (familiaren aukera) B ereduaren baldintzak A ereduaren antzekoak dira. Beraz, D ereduak da benetan gomendagarriena.

Malgutasunez, lekuan lekuko egoera ondo aztertuz, ikastetxe bakoitzeko Hezkuntz Proiektuak eraikitzea da bere proposamena. Dena den, aipatutako arrazoi asko direla medio, A eta B ereduaren desagertzea eta D ereduaren indartzea dirudi egokiena. D ereduaren euskaraz gain, beste ikasgaietan ere (matematika, zientziak, gaztelania, ingelesa, e.a.) emaitza onak lortzen dira. Irakasleria prestatuta dago, guraso eta familien aukera gero eta nabariagoa da, materiala prest dago, giza talde homogeneoagoak lantzen ditu, eta gure gizartean euskarak duen balio soziala, pertsonala eta ekonomikoari, D ereduak egokiago erantzuten dio.

Felix Etxeberriaren artikulua ulertzen laguntzen digu EAEko azken hamarkadetakoa irakaskuntzaren bilakaera gaur egun arte. Hala ere, kontuan hartu behar dugu A, B eta D ereduaren auzia kontu konplexua dela eta, gainera, behin baino gehiagotan piztu izan dela eztabaida gai honen inguruan.

Bi giza talde sortzearen arriskuaren inguruan, eta sortze honek gure gizartean sor dezakeen desorekaren inguruan, badaude iritzi gehiago; horrexegatik, adierazpen hauei kontrapuntu bat jarri nahian edo osatu nahian ekarri egin ditut **Jose M. Sánchez Carrión**en bi kontzeptu: hizkuntzen garapen osoa eta berdintasunaren diskurtsoa. Batek baino gehiagok pentsa dezake hau guztia utopia hutsa dela eta hark proposatzen duena ezin dela lortu.

2.6.2. Hizkuntzen garapen osoa eta berdintasunaren diskurtsoa

Hizkuntzen garapen osoa: hizkuntza baten garapen osoak hiru eskubide hauen bermatzea dakar:

- Hizkuntzarena berarena —hizkuntza guztiak badute beren komunitate linguistikoaren hizkuntza izateko eskubidea— .
- Hizkuntza-komunitatearena —komunitate guztiak badute beren hizkuntza jasotzeko eta transmititzeko eskubidea—.
- Eta azkenik, gurasoen eskubidea —guraso guztiak beren hizkuntza transmititzeko eskubidea baitute.



Laburbilduz, esan dezakegu definizio honetan hizkuntza osoak funtzio guztiak — naturalak eta kulturalak— biltzen dituela. Definizio honetatik abiatuta definitzen du **Berdintasunaren Diskurtsoa**. Bertan, besteak beste, adierazpen hau irakur dezakegu:

*“Lo que esta teoría propone no es mayorizar la lengua minoritaria, minorizando la mayoritaria, términos a los que la perspectiva estatalista —de uno y otro signo— intenta llevar reiteradamente el problema” (... estas ideas “no son para usarlas contra el dominador, convirtiendo al verdugo en víctima y a la víctima en verdugo, reproduciendo incansablemente un círculo vicioso, cainíta”
“(...) No se percibe a la otra (lengua) como al enemigo a batir, sino como el interlocutor, el igual o semejante al que reencontrar...”*

(Sanchez Carrión *Txepetx*, 1999, 182,134 eta 316 orr.)

Berreskurapen, biziberritze, normalizazio arrakastatsua eta sendoa lortu nahi baldin bada, erakargarritasun berria duten proposamenak egin behar dira. Inork ez du euskararen normalizazioaren beldur izan behar, horrek beste diskriminazio mota bat dakarrela pentsatuz. Azken batean, hizkuntza eta kultura guztietako jendea elkarbizi daitekeen mundu bat ahalbidetu behar genuke: denok batera eta errespetu osoz.

2.6.3. Euskara eta gaztelaniaren ezagutza bermatu beharko lirateke

Dena dela, lan honen helburua hausnarketarako informazioa ematea denez, hona hemen **Pau Bilbao Sarriaren** hitzalditik ateratako pasarte batzuk hizkuntza ereduaren inguruan (Behatokia; Iruñea 2004ko azaroa)

Euskal Autonomia Erkidegoan euskara ofiziala da eremu osoan, gaztelaniarekin batera. Halaber, euskara hizkuntza propio edo berezko bakarra dela agertzen du legeriak.

Euskal Herriko Autonomi Estatutua

2. artikulua

1. Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofiziala maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.

Estatutuak Euskararen Legea argitaratu zuen euskarari aitortutako ofizialtasuna, berezkotasuna, eta hizkuntza ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea bermatzeko edota arautzeko

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, euskararen erabilpena arautzekoa

Bigarren Atala

Euskal Herriak euskara du berenezko hizkuntza

Hirugarren Atala


Euskal Herriko Autonomia-Elkarteaaren hizkuntza-ofizialak euskara eta gaztelania dira.

Hamabosgarren Atala



Ikasle guztiei, hezkuntza-maila berezitan, irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz hartzeko eskubidea aitortzen zaie.

Azken atal horrek eskubidea aitortzen die irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz hartzeko, baina kontuan hartu beharko litzateke, herritarrek euskara ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dutela. Hortaz, hezkuntzak tresna egokia eskaini beharko lieke ikasleei hizkuntza bat zein bestea erabiltzeko eskubidea baliatu ahal izateko. Kontraesan dialektikoa dela esan genezake, izan ere, gaur egun bi hizkuntzak ezagutzeko eskubidea eta bi hizkuntzak erabiltzeko eskubidea ulertzeko modu ezberdinek egoera ez-normalak eragiten dituelako.



(...) A, B eta D ereduak ez dute bermatzen Euskal Eskola Publikoaren legeak ezarritako ezagutza. Aurki, Eusko Jaurlaritzak berak ebaluazioa egingo du nazioarteko estandar batzuk baliatuz (ALTE), baina esperientzien emaitzek erakutsi izan dute A ereduak eta zenbait kasutan B ereduak ere ez dutela bermatzen, ikasleen derrigorrezko hezkuntza bukatutakoan, euskararen erabateko ezagutza lortzea.

(...) Ereduek euskararen irakaskuntzan izandako ondorioen inguruan ere, Euskararen Biziberitzeko Plan Nagusiak berak honako hau jaso zuen:

A ereduan ikasten duten haur erdaldunek, bestalde, oso maila apala dute ulermen mailan, eta apalagoa idazteko eta hitz egiteko. Ez dute legeak finkatzen duen nahikotasun-mailarik lortzen. B eredu bigunean ere hutsune nabarmenak agertzen dira: nahasketak fonologian, lexikoan eta joskeran, hiztegi mugatua, esaldiak osatzeko zailtasunak eta abar” (58-59 orr.)

Hauek izan dira Pau Bilbao Sarriaren adierazpenak. Gure gizartean mota guztietako jarrerak aurki ditzakegunez, jakin behar dugu *euskara ez ezagutzeko eskubidean* sinisten duen jendea ere badagoela; baina kontuan hartu behar dugu jarrera eta ñabardura guztien gainetik, gauza bat argi dagoela: Euskal Herrian askatasun linguistikoa izateko, bi hizkuntzen jabe (gutxienez) izan behar dugu.



3. ETORKINEN FENOMENOA: ERANTZUN BEHARREKO ERRONKA

3.1. ZENBAT ETORKIN DAUDE GURE INGURUAN?

Tamalez, oso zaila da informazio bateratua lortzea. Iturri ezberdinetara jotzera behartuta gaude, eta, gainera, iturri bakoitzak urte edo garai desberdinetan jasotako datuak ematen ditu askotan.

Immigrazioaz mintzatzen ari garenean ez dugu ahaztu behar gaur egun ezkutuko praktika dela eta honek ere baduela eraginik datuak bilatzekoan. Dena den, hemen emango ditugun kopuruek lagunduko digute ideia orokor bat egiteko; hau da: zenbat etorkin daude gure inguruan? Gutxi ala asko? Dezente? Mordoxka? Bernardo Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* liburuko pasarte bat gogora ekarriz, esan daiteke etorkin *mordoxka* bizi direla Euskal Herrian. Eta zenbat da *mordoxka* bat? Bada,.. hor dago koxka! Guretzat, atzerriko etorkinen fenomeno hau nahikoa berria denez, handi samarrak irudituko zaizkigu kopuruok; baina Espainiako edo Europako datuekin alderatuz gero, konturatuko gara gure inguruko etorkinen kopurua ez dela hain handia.

3.1.1. NAFARROAKO DATUAK

Datu hauek Amelia Barkinen *euskara eta etorkinen hizkuntza integrazioa* artikulutik jasoak dira.

- 2003an 45.000 etorkin bizi ziren Nafarroan, biztanleen %7 (1996an biztanleen % 0,6 ziren etorkinak).
- Horietatik 15.000 lagunek ez zeukaten lan edo bizitzeko baimenik (10etik 4k).
- Urtero 7.000tik 10.000 bitarteko etorkin kopurua sartzen da Nafarroan.
- Gehienak Hego Amerikakoak dira (guztien %69,1), Afrika Iparraldekoak %10,7 dira eta Europa Ekialdekoak %10,2. Saharaz hegoaldeko Afrikako herritarrak, % 13; Europa Elkartekoak % 5,9 dira ,eta , Asiakoak %1,2.

Nafarroan erroldatutako atzeritarrak (Europa Batasunetik kanpokoak) jatorriaren arabera

ZONALDEAK	2002	2003
Latinoamerika	15.908	20.704
<i>Amerika andetarra</i>	<i>12.844</i>	<i>16.725</i>
<i>Erdialdeko Amerika eta Karibea</i>	<i>2.212</i>	<i>2.632</i>
<i>Hegoaldeko Konoa</i>	<i>852</i>	<i>1.347</i>



Magreb	5.801	6.720
Ekialdeko Europa	2.991	4.525
<i>Erdialdeko Europa</i>	213	291
<i>Ekialdeko Mediterraneo</i>	0	6
<i>Herrialde Baltikoak</i>	102	150
<i>Balkanak</i>	1.835	2.859
<i>Jugoslavia ohia</i>	71	98
<i>Soviet Batasun ohia</i>	721	1.121
Erdialdeko eta Hegoaldeko Afrika	1.343	1.585
Ekialde Hurbila eta Asia	611	718
Besteak	1	13
Guztira	45.505	59.494

Herrialdeak	2002	2003
Ekudor	8.273	11.448
Kolonbia	3.972	4.462
Maroko	3.458	4.058
Aljeria	2.316	2.582
Bulgaria	1.203	1.792
Errumania	632	1.067

Iturria: Biztanleen errolda, Nafarroako Estatistika Institutua. Larrun 84 (ARGIA) aldizkaritik hartutako datuak.



3.1.2. EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO DATUAK

SOS Arrazakeriak emandako datuen arabera

- 2004ko ekainean, 31.500 etorkin zeuden EAEn lan egiteko eta bizitzeko baimenarekin. Erroldatuta, berriz, 49.000 zeuden; populazioaren % 2,2, gutxi gorabehera. Haien jatorria Nafarroan dauden etorkinen antzekoa da.
- EAEn, 10.041 ikasle etorkin egon ziren 2003-04 ikasturtean, ikasleen %3 gutxi gorabehera.
- Eskolatutakoen %69 Hegoamerikarrak ziren (Kolonbia, Ekuador eta Argentinakoak batik bat), %15 Afrikakoak (Marokokoak batik bat), %10 Europako herrialdeetakoak (Portugal eta Errumaniakoak batik bat) eta %6 Asia eta Ozeaniakoak.

3.1.3. IKASLE ETORKINAK ETA HIZKUNTZA EREDUA EAE-N ETA NAFARROAN

- **Ikasle etorkinak eta autoktonoen arteko aldeak, hezkuntza ereduaren arabera EAE-n**
 - D ereduari, autoktonoek etorkinen kopurua bikoiztu ez ezik, 10 puntuko aldea ere lortu dute.
 - A ereduari, etorkinen kopuruak bikoizten du autoktonoen kopurua.
 - B ereduari, aldiz, aldea askoz txikiagoa da, 6 puntukoa. %29 dira etorkinak eta %23 autoktonoak.
 - A ereduko eta B ereduko kopuruak alderantziz proportzionalak dira.

2003-04 ikasturtea	A eredia	B eredia	D eredia
<i>Ikasle etorkinak</i>	%50	%29	%21
<i>Erkidegoko ikasleak</i>	%26	%23,1	%50

Datuak: SOS Arrazakeria. Amelia Barquinen *Euskara eta etorkinen hizkuntza integrazioa* artikulutik hartuak, in www.erabili.com

- **Ikasle etorkinak eta hezkuntza eredia Nafarroan**
 - Eskolari dagokionez, 2004-05 ikasturtearen hasieran Nafarroako prentsak esan du D eredia pixkanaka haziz joan dela (eskolara lehen aldiz doazen ikasleen %28k aukeratu du D eredia)
 - 2004-05 ikasturtean 6.989 etorkinen seme-alabak daude eskolatuak, Nafarroan eskolatuta dauden guztien %8,2.

Ikasle etorkinak	A eredia	B eredia	D eredia	G eredia
2004-05 ik. (behin behineko datuak)	%21	%0,16	%23	%55
2003-04 ik.				%99,8



Nafarroako Datuak. Amelia Barquinen artikulua, *Euskara eta etorkinen hizkuntza integrazioa*.

Oharra: G eredia erdara hutsezkoa da, eredu honetan *euskara* ikasgai ere ez dago.

Aurreko ikasturtearekin alderatuz (%99,8 G ereduan), jauzi nabarmena ikusten da 2004-05 ikasturtean (%55 G ereduan). Argi dago eredia aukeratzekoan beste irizpide batzuk hasi direla kontuan hartzen, eta, horren ondorioz, bi joera nagusitu dira 2004-05 ikasturtean: euskararen aldekoa eta gaztelaniaren aldekoa, eta B ereduaren kalterako izanik bi joera hauek.

Asko izan daitezke aldaketa horren arrazoiak: alde batetik, pentsa liteke azken urteetan etorkinak ere euskaraz eskolatzeko kanpainak beren fruitua eman dutela, edo, bestela, B ereduan matrikulatutako ikasleei eskatzen zaien euskara-maila. Beste arrazoi posible bat hau da: ikasle bat B edo D ereduan eskolatzeko bada –eta berdina da zein kurtsotan matrikulatu den– euskara eskatuko zaio oinarrizko ikasketen agiria eskuratzeko. Jakina, horrelako arazoak ekiditeko, gurasoek nahiago dute D ereduan matrikulatzea euskara ongi ikasteko, edo, bestela G edo A ereduan. Dena dela, oraindik ere itxaron beharko dugu jakiteko joera hauek mantentzen diren edo behin-behinekoak diren.

- **Ikasle etorkinak eta hezkuntza ereduak Nafarroan eta Euskadiko Autonomia erkidegoan**

Bi talde hauek konparatzean, alde nabarmenak aurkitu ditugu hezkuntza eredia hautatzekoan.

Kontuan hartu behar da alde batetik, EAE-n hiru eredu daudela (eta Nafarroan, lau), eta, bestetik, legediaren aldetik bi elkarten artean dauden aldeak handiak direla. Baliteke bestelako arrazoi gehiago ere izatea, baina aipatutako bi hauek zer esan handikoak dira bi elkarten arteko alde handiak azaltzeko.

- Nafarroako A ereduko ikasle etorkinen kopurua EAEko ikasle etorkinen erdia baino txikiagoa da.
- Nafarroan B ereduan oso ikasle etorkin gutxi daude: %0,16. EAE-n, aldiz, ikasle etorkinen %29 dabil B ereduan. B ereduan matrikulatutakoaren kopuruetan aurkitzen dugu alderik nabarmenena.
- D ereduan kopuruak nahikoa berdinduta daude: EAE-ko ikasle etorkinen %21 eta Nafarroan, %23.
- G ereduan ikasle etorkinen erdia baino gehiago matrikulatu dira Nafarroan. Beraz, euskara ikasiko ez duten haur eta gazteen kopurua oso altua izango da: 3.841 ikasle, emandako datuen arabera.

3.1.4. ESPAINIAKO DATUAK

- 2003ko urtarrilean, Espainian 2.672.596 etorkin zeuden. Horietatik 1.647.011k bazuten baimena.
- Espainiako biztanleen %6,3 etorkinak dira; Frantzian %7 eta Alemanian %8.
- 2003-04 ikasturtean, Espainiako Estatuan 500.000 haur ziren, eskolatzekoaren %5,9 etorkinen seme-alabak.

Iturria: *Euskara eta etorkinen hizkuntza integrazioa*. Amelia Barquin




Hurrengo taulan eskaintzen diren datuak CIDEk kudeatuak dira. “*Estadísticas de la Educación en España. 2004-2004. Datos Avance*”, *Oficina de Planificación y Estadística del MEC*-ek egin.

Datu hauen arabera, *ikasle atzerritarrek* Espainiako nazionalitatea ez duten ikasleak dira. Bi nazionalitate duten ikasleen kasuetan hartu dira espainiartzat.

1. GRAFIKOA: Ikasle atzerritarren presentziaren bilakaera hezkuntza orokor ez-unibertsitarioetan, ikastetxearen titularitatearen arabera, 1993-2004⁽²⁾

GRÁFICO 1. EVOLUCIÓN DE LA PRESENCIA DEL ALUMNADO EXTRANJERO MATRICULADO EN LAS ENSEÑANZAS DE RÉGIMEN GENERAL NO UNIVERSITARIAS SEGÚN TITULARIDAD DEL CENTRO. AÑOS 1993-2004²



(1) C. Valenciana: Sólo se incluyen datos de E. Infantil y E. Primaria / E.G.B. correspondientes al curso 1993/94

(2) Galicia: No se incluye el alumnado extranjero de 0-2 años por no disponer de esta información

(a) Datos avance


(1) Valentziako Komunitatea: soilik 1993/94 ikasturteko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako (OHOKo) datuak eskaini ditu.

(2) Galizia: 0-2 urteko ikasle atzerritarrek ez dira kontuan hartu, informazio hori ez dutelako.

(a) Aurrerapen datuak

2. GRAFIKOA: Ikasle atzerritarren presentziaren bilakaera Haur Hezkuntzan eta Lehen hezkuntzan, 1993-2004

GRÁFICO 2. EVOLUCIÓN DE LA PRESENCIA DEL ALUMNADO EXTRANJERO MATRICULADO EN E. INFANTIL/PREESCOLAR Y E. PRIMARIA/E.G.B. AÑOS 1993-2004



(a) Datos avance

Fuente: Elaboración CIDE a partir de las Estadísticas de la Educación en España. 2003-2004. Datos Avance



Iturria: CIDEk kudeatutako datuak, Espainiako Hezkuntzako Estatistiketan oinarrituta, 2003-04. Aurrerapen datuak.


Ikasle atzerritarren kopuruak gora egin du kuantitatiboki hezkuntza-maila guztietan, batez ere 2001-02 ikasturteetik aurrera.

Haur hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan etorkinen kopuruaren bilakaera orekatua izan da. DBHko kopuruaren igoera, aldiz, askoz handiagoa izan da. Datu hauek ongi interpretatzeko, kontuan hartu behar dugu DBH ezarri zenetik, ikasleen eskolatze adina 16 urte artekoa dela eta horrek baduela eragin zuzena kopuru horietan.

Bestalde, familia etorkinen kopuruaren handitzeak berak ekarri duen ondorio logikoa ere hor dago: ikasle etorkin gehiago.

3. GRAFIKOA: ikasle atzerritarren presentziaren bilakaera DBH-n, Batxilerretan eta Lanbide Heziketan, 1993-2004.

GRÁFICO 3. EVOLUCIÓN DE LA PRESENCIA DEL ALUMNADO EXTRANJERO MATRICULADO EN ESO, BACHILLERATOS Y FP. AÑOS 1993-2004



(a) Datos avance

Fuente: Elaboración CIDE a partir de las Estadísticas de la Educación en España. 2003-2004. Datos Avance

Iturria: CIDEk kudeatutako datuak Espainiako Hezkuntzako Estatistiketan oinarrituta. 2003-04. Aurrerapen datuak

3. grafiko honetan oso adierazgarria da DBHko gorakada izugarria, beste ikasketetan, islatzen ez dena. Derrigorrezkoak ez diren ikasketetan, berriz, igoera oso xumea da.

OHARRA: 4. eta 5. grafikoak ez dira nahita agertzen lan honetan.




Espainiako hezkuntzako ikasle atzerritarren kopurua, 2003-04 ikasturtean.

Datuon arabera, azken hamarkada honetan ikasle etorkinen kopuruaren gorakada nabarmena izan da; hala ere, gogoan izan behar dugu ikasle autoktonoen kopuruarekin alderatuz, ikasle atzerritarren kopurua ez dela batere altua Europako beste herrialdeetakoekin alderatzen badugu. Ikaskuntza ez unibertsitarioen ikasleen %5,65 dira atzerritarrak; Hau da 389.726 dira atzerritarrak eta ikasle guztiak, 6.895.880.

6. GRAFIKOA: Ikasle atzerritarren presentziaren portzentaia eskolatutako guztien aldean, hezkuntza orokor ez-unibertsitarioetan, 2003-2004 ikasturtean.

GRÁFICO 6: PORCENTAJE DE ALUMNADO EXTRANJERO RESPECTO A LA POBLACIÓN ESCOLARIZADA EN LAS ENSEÑANZAS DE RÉGIMEN GENERAL NO UNIVERSITARIAS. CURSO 2003-2004




Fuente: Elaboración CIDE a partir de las Estadísticas de la Educación en España, 2003-2004. Datos Avance

Iturria: CIDEk kudeatutako datuak Espainiako Hezkuntzako Estatistiketan oinarrituta. 2003-04. Aurrerapen Datuak

7. GRAFIKOA: Atzerriko ikasleen banaketa, jatorriaren arabera. 2003-04 ikasturtea.



GRÁFICO 7: DISTRIBUCIÓN PORCENTUAL DEL ALUMNADO EXTRANJERO POR ÁREA GEOGRÁFICA DE PROCEDENCIA. CURSO 2003-2004




3.1.5. IMMIGRAZIOA ESTATU ESPAINOLEAN ETA EAE-N: BERTAN BIZITZEKO BAIMENA DUTENEN DATUAK

URTEAK	ESTATUA	EAE	ESTATUAREKIKO PORTZENTAIA
1986	293.208	7.675	2,6
1988	360.032	10.714	3
1990	407.647	13.169	3,2
1992	393.100	10.935	2,8
1994	461.364	12.262	2,7
1996	538.984	13.135	2,4
1998	719.647	16.995	2,4
2000	895.720	18.822	2,1
2002(*)	1.324.001	24.201	1,86

(*) Iturria: Ministerio del Interior: Anuario Estadístico de Extranjería 2002
 Beste datuak: Plan Vasco de Inmigración CAE 2003-05, 2003ko azarokoa

EAE-n dauden etorkinen kopurua kualitatiboki ez da altua, Europako beste herrialdeekin zein Espainiako Estatuarekin alderatzen badugu. Oso adierazgarria da, aldiz, azken urteotan gertatu den migrazio-prozesu honen **azelerazioa**.


Hurrengo taulan ikus daiteke erroldatutako etorkin-kopurua jatorriaren eta sexuaren arabera. Jatorriko herrialdearen arabera, aldeak nabariak dira. Kolonia, Ekuador eta Brasil dira bere kopuruarengatik eta sexuen arteko etorkin-kopuruarengatik adierazgarrienak. Bi herrialde hauetan emakumezkoen kopurua askoz handiagoa da gizonezkoena baino.





Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak. Atzerritarrek 2001. 2004/11/25eko prentsa oharra.

Ondoko grafikoan: immigrazioaren eta emigrazioaren eboluzioa EAE-n



Iturria: EUSTAT.

1988an estatistika hau egiteari ekin zitzaionetik, ikusi dugu Euskal Autonomia Erkidegoan asko igo dela atzerritarren immigrazioaren bolumena. Balio absolutuetan, aurreko urteetan, 500 sarrera neurtzen ziren; 2001ean, berriz, 10.000 pasa; hau da, hogei aldiz gehitu dira hamabi urtetan. Kontuan izan behar da migratzaile atzerritar batzuek beste autonomia erkidego batzuetatik etorri direla. Zehatzago, 2001ean 3.152 kasutan hala izan zen.


Bestalde, grafiko berean ikus dezakegu emigrazioaren kopurua: askoz maila apalgoan bada ere, igo egin da azken urteetan.



Evolución de las inmigraciones de extranjeros por nacionalidad

23.

Atzerritarren inmigrazioen bilakaera naziotasunaren arabera



www.eustat.es/ele/ele001200/inf0001266_e.pdf

Iturria: EUSTAT

Immigratzaileen naziotasunari jarraiki, eta goranzko joera orokorraren barruan, kontinente amerikarreko herrialdeei dagozkie hazkunderik handienak eta azken urtean (2001ean) %65eko igoera izan da, aurreko urtearen aldean. Neurri apalagoan, baina antzeko zerbait gertatzen ari da immigratzaile afrikarrekin, eta hauek ere %43ko hazkundera izan dute.

Tradizioz, euskal gizartea migratzailea izan da. XIX. mendearen bukaeran, aldiz, EAE-ra hasi ziren etortzen Espainiako probintzia guztietako jendea. XX. mendean joera honekin batera, hemengo biztanle asko joan ziren beste herrialdeetara, Ameriketara nagusiki. Hau gertatzen zen bitartean, oso gutxi ziren atzerritik etorritakoak. 90.eko hamarkadan beste herrialdeetatik etorritakoen kopurua gero eta handiagoz hasi zen. Etorritakoak Hego herrialdeetatik, Afrikatik eta Hego Amerikatik.

3.1.6. EUROPAKO DATUAK: BIZTANLE-KOPURUAREN BILAKAERA EUROPAKO ELKARTEAN

	2004/01/01 Biztanleak	Bizirik jaiotakoak	Heriotzak	Emaitza naturala	Migrazio Emaitza (1)	Hazkuntza tasa
	1 000 biztanleko kopuruak					
Alemania	82.545,1	8,6	10,4	-1,8	1,9	0,1
Austria	8.091,9	9,5	9,6	0,0	3,1	3,1
Belgika	10.396,7	10,7	10,2	0,6	3,4	3,9
Danimarka	5.397,6	12,0	10,7	1,3	1,3	2,6
Espainia	40.977,6	10,7	9,0	1,7	5,5	7,2
Finlandia	5.220,2	10,8	9,2	1,6	1,1	2,7
Frantzia (2)	59.895,5	12,7	9,2	3,5	1,0	4,5



Grezia	11.046,9	9,3	9,4	-0,1	2,7	2,6
Irlanda	4.024,6	15,5	7,3	8,3	7,0	15,3
Italia	57.481,6	9,4	10,3	-0,8	3,6	2,8
Luxemburg	450,8	11,5	8,5	3,0	2,5	5,6
Behe laterriak	16.257,6	12,6	8,8	3,8	0,2	4,0
Portugal	10.479,8	10,8	9,9	0,9	6,1	6,9
Erresuma Batua	59.517,9	11,6	10,2	1,4	1,7	3,2
Suedia	8.974,9	11,0	10,4	0,6	3,2	3,8
Europako Elkartea (3)	380.758,8	10,6	9,8	0,8	2,6	3,4
Herrialde berriak (3)	74.141,1	9,2	10,4	-1,2	0,4	-0,8

Iturria: Eurostat. 2003ko datuak. Irudi honetako kopuruak, 2003ko abenduaren 1aren inguruko behin-behineko hilabeteko kopuruen arabera dira.

(1) Kontuan hartzen dira errolda zentsu berriak, erregistroen egiaztapenak zeintzuk ezin baitira kontuan hartu jaiotako berritza, heriotza-kopurutzat eta immigraziotzat.

(2) Frantzia metropolitarra


(3) 2004ko maiatzaren 1ean beste herrialde batzuk elkartu ziren: Txipre, Estonia, Hungaria, Letonia, Lituania, Malta, Polonia, Errepublika Txekiarra, Eslovakia eta Eslovenia.

Datu hauek ikusita, Irlanda da Europa Elkarlean etorkin kopuru handiena hartu duena 2003 urtean. Kopurua hauek Espainiakoekin eta Frantziakoekin alderatuz gero, ikus dezakegu Espainiak baino puntu eta erdi gehiago duela eta Frantziak baino 5 puntu gehiago dituela.

Europa Elkarlean etorkin gehien hartutako bigarren herrialdea Portugal da; puntu erdiko aldearekin Espainiaren gainetik eta bost puntuko aldearekin, Frantziaren gainetik.

Bestalde, etorkin kopuru txikiena hartu duena Holanda da 0,2 punturekin. Grafikoan, Behe Laterriak izenez adierazten da.

3.2. ZENBAT ETORKIN DAUDE IRUNEN?



(Iturria: EUSTAT, 2001)

	Guztira	Sedentarioak ³	Barne-migratzaileak ⁴	Etorkinak ⁵
Gipuzkoa	673.563	328.364	212.353	132.846
Bidasoa Beherea	71.645	31.302	20.790	19.553
Irun	56.601	24.801	14.127	17.673

Iturria: 2001eko datuak, EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua (BEZ01)

Datu hauen arabera, 2001ean, Irungo etorkinen portzentaia Gipuzkoakoekin alderatuz, ia 12 puntu handiagoa da; ia hiru biztanletik bat (%31,22) etorkina da.

3.2.1. UME ETORKINEN KOPURUAREN BILAKAERA GIPUZKOAN EREDUAREN ETA SAREAREN ARABERA.

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako datuak. Bertan ikus daiteke zein eredutan egiten diren matrikula berriak.

1970/08/31 - 2004/11/16

BERRITZEGUNEA	PUBLIKOA				PRIBATUA				DENERA			
	A	B	D	Den.	A	B	D	Den.	A	B	D	Den.
DONOSTIA	42	107	88	237	125	328	21	474	167	435	109	711
IRUN	83	172	97	352	7	144	13	164	90	316	110	516
EIBAR	13	67	186	266	1	42	74	117	14	109	260	383

³ Sedentarioak: bertan jaio eta bertan bizi direnak.

⁴ Barne-migratzaileak: Jatorria EAeko udalerrri batean izanik helburua ere erkidego horretako beste udalerrri batean duten migrazioak dira.

⁵ Etorkinak: Beren azken bizileku-aldaketa EAez kanpotik erkidego horretako udalerriren batera egindako pertsona guztiak barne hartzen ditu. Hemen EAEn jaiotako izaki beren jatorrizko azken udalerrria EAetik kanpo kokaturiko udalerrri bat dutenak ere sartzen dira.



<i>ORDIZIA</i>	1	43	104	148		48	51	99	1	91	155	247
<i>ZARAUZ</i>		43	73	116		48	49	97		91	122	213
<i>LASARTE-ORIA</i>	4	50	111	165	1	54	91	146	5	104	202	311
<i>GIPUZKOA, DENERA</i>	143	482	659	1284	134	664	299	1097	277	1146	958	2381

Etorkinen seme-alaben eskolatzeko kopuruetan nabarmenki aldatzen da Irungo kasuan hezkuntza publikotik pribatura. Donostiarekin alderatuz gero, beste herrietako joera kontrakoa da eta, are gehiago, guztiz kontrakoa dela esan dezakegu.

Datu hauetan ikus daiteke Irunek duen pisua atzeritarrak hartzean. Donostian 2004-05 ikasturterako 711 matrikula berri egin dira eta Irunen 516; hau da, probintziaren bigarren hiria da ikasle etorkinak hartzen.

Hezkuntza ereduari dagokionez, publikoan D eredia da nagusi Gipuzkoan (1284 ikasle) baina Irunen (172) eta Donostian (107) B eredia da aukeratuena. Hezkuntza pribatuan, aldiz, B eredia da aukeratuena probintzian (664), eta Donostian (328) eta Irunen (144) beste ereduak aldea oso nabarmena da.

Hezkuntza publikoa eta pribatua batuz gero, B eredia da nagusi Gipuzkoan (1146) eta bigarrena, D eredia da alde txikiarekin (958). A eredia, aldiz, askoz gutxiagotan aukeratu da (277 ikasle).

2004/08/31-2004/11/16


<i>BERRITZEGUNEA</i>	<i>PUBLIKOA</i>				<i>PRIBATUA</i>				<i>DENERA</i>			
	<i>A</i>	<i>B</i>	<i>D</i>	<i>DEN.</i>	<i>A</i>	<i>B</i>	<i>D</i>	<i>DEN.</i>	<i>A</i>	<i>B</i>	<i>D</i>	<i>DEN.</i>
<i>DONOSTIA</i>	13	34	12	59	23	66	9	98	36	100	21	157
<i>IRUN</i>	10	41	33	84		37	4	41	10	78	37	125
<i>EIBAR</i>		18	33	51	1	14	18	33	1	32	51	84
<i>ORDIZIA</i>		16	21	37		6	7	13		22	28	50
<i>ZARAUZ</i>		21	16	37		12	17	29		33	33	66
<i>LASARTE-ORIA</i>		16	33	49		12	13	25		28	46	74
<i>GIPUZKOA, DENERA</i>	23	146	148	317	24	147	68	239	47	293	216	556

Hauek dira 2004-05 urtean egindako matrikula berriak (behin-behineko kopurua). Aipatu behar da ikasle etorkinak askotan matrikulatzen direla ikasturtea hasi eta gero. Datu hauen arabera, indartu egiten da aurreko taula aztertzean ikusi den joera: Irun da bigarren hiria ikasle etorkinen matrikula-kopuruaren arabera eta Irungo ikasle etorkinek hezkuntza publikorako joera dute; matrikula-kopurua hezkuntza publikoan bikoitza baita. Donostian, berriz, alderantzizkoa da.

Ereduari dagokionez, Irunen B eredia da nagusi (78 matrikula), gero D eredia (37 matrikula) eta azkenik, A eredia (10 matrikula). Donostian ere B eredia da aukeratuena (100 matrikula), gero A eredia (36 matrikula) eta azkenik, D eredia (21 matrikula).

Eibarren, Ordizian eta Lasarte-Orian joera D ereduaren aldekoa da. Zarautzen, B eta D ereduaren matrikula-kopuru bera da.


3.2.2. IRUNGO HAUR ETORKINEN KOPURU ERLATIBOA, JATORRIAREN ARABERA



Grafiko honetan, herrialdeak –Argentinatik hasita – erlojuaren orratzen arabera daude ordenatuta.


Iturria: Irungo Udaleko Kultura, Hezkuntza, eta Gazteria

3.2.3. HAUR ETORKINEN MATRIKULAZIOAK ESKOLEN ETA SAREAREN ARABERA



2004-05 ikasturtean Irungo ikastetxeetan matrikulatu diren haur etorkinak abendu arte. Behin behineko datuak.

Iturria: Irungo Udaleko Kultura, Hezkuntza, eta Gazteria



Ume etorkinen matrikula-kopurua ikastetxe motaren arabera.

Iturria: Irungo Udaleko Kultura, Hezkuntza, eta Gazteria



3.3. IRUNGO UDALA ETA ETORKIN ATZERRITARRAK

3.3.1. Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua

2004ko azaroaren 24an eratu zen Irunen Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua. Organo hau aholku-emaile gisa eratu da. Kontseilu horretan parte hartzen ari dira Irunen lanean diharduten 17 elkarte eta erakunde ordezkatzan duten pertsonak, bai eta Auzo Elkartearen federazioko ordezkariak, Txingudi Mugaz Gaindiko Patzuergoak eta udaleko talde politiko guztiek ere. Irungo egoera soziala, gure ingurukoaren antzekoa bestalde, gero eta zorrotzagoa da, eta gero eta erantzun konplexuagoak eskatzen ditu. Hona hemen guztion artean erantzuna eman beharreko hainbat arazo:

- Hiria zahartzea
- Immigrazioak gora egitea
- Pobretasun-poltsen kronifikazioa
- Tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeen egoera
- Drogen kontsumoa
- Pertsona ezgaituen egoera
- ...

Batzordeetako bakoitzak udal teknikari baten laguntza du. Teknikariak hitz egiteko eskubidea badauka, baina botorik ez, eta bere ardura batzordearen lana dinamizatzea da.

- **Irungo Udalak (Ongizate Arloak) kanpoko immigranteei laguntzeko bultzatu dituen programak eta jarduerak**

- Immigrazioaren Tokiko Plana
- Irun Zabalik Irungo Kulturarteko asteartea
- Sentsibilizazio eta dibulgazio materialak: Immigranteentzako Baliabideen gida.
- Sentsibilizatzeko programak eta jarduerak. Arrazismoa eta xenofobia prebenitzeko eta kulturartekotasunezko gaiak jorratzeko.
- Gizarte eragileentzako aholkularitza immigrazioaren gaian.

- **Irungo Tokiko Immigrazio plana 2004-2006**

Immigrazioari buruzko Euskal Planean (2003-2005) partehartzaileen artean, hainbat udalerrri aipatzen dira: Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Irun. Horrek esan nahi du Irungo udaletxetik badagoela etorkinen fenomenoaren aurrean benetako ardura eta konpromisoa. Bi plan hauek, ahal den neurrian, EAEn erroldatuta dauden pertsona guztiak euren eskubideak eta betebeharrak berdin baliatzeko eta aintzat hartuak izateko aukera bermatu nahi dute. Beren helburu nagusia, etorkin atzerritarrak euskal gizartean erabat gizarteratzeko aukera izatea da. Hori lortzeko, funts-funtsezkotzat jotzen dute nazionalitatearengatik sor litekeen edozein diskriminazio baztertu eta giza-eskubideak betetzeko aukera bermatzea: zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak.



Helburu hau lortzeko –etorkinen gizarteratzea EAEn-, hiru printzipio gidatzaile funtsezko ditu: *Berdintasun printzipioa*, *Erantzukizun Publikoen printzipioa* eta *Gizarte parte-hartzearen printzipioa*. Printzipio hauek, plan horien edukia bideratzen duten oinarrizko irizpide politikoak dira, eta ez antolamenduzko irizpide instrumentalak. Arestian azaldutako funtsezko printzipio gidari horien aplikaziotik eskatutakoa bete behar duten beste printzipio gidari eraginkorrak agertzen zaizkigu Irungo tokiko immigrazio planean: *printzipio gidari eraginkorrak*:

- **Integralitate printzipioa**

Euskal immigrazio planak, Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2003ko abenduaren 9an egindako bilkuran onetsitakoak, euskal gizartean immigrazio fenomenoaren antolakuntza osoa bideratzea du xede, erabateko integrazioa lortu ahal izateko. Horregatik, zeharkako eta alde anitzeko ikuspegia du Euskal Immigrazio Politikak, eta izaera horiek bere egiten ditu. Halatan, Irungo Tokiko immigrazio planak immigrazioaren alorrean aurrera eraman beharreko udal jarduerak antolatu nahi ditu, etorkinak gizarteratzea lortu ahal izateko. Hala bada, zeharkako eran etorkinen errealitatea sartu nahi du herritarrei zuzendutako udal ekintzetan, eta etorkin horien behar espezifikoak erantzun nahi die eskumena duten zerbitzuen bidez.

- **Prebentzioa**

Euskal Immigrazioaren planaren xedea ez da soilik politika publikoak modu antolatu eta sistematikoan eratzea. Plan horren xedea plangintza ere bada, bai gizarte errealitatean bai planaren kudeaketan gerta litezkeen efektu gaiztoei edo disfuntzioei ahal den neurrian aurrea hartu ahal izateko. Horrenbestez, Gizarte Ongizate Arloak sustaturiko Irungo Tokiko Planak gizarte bazterketari aurrea hartu nahi dio eta hiritarren ongizatea sustatu nahi du betiere. Helburu hau lortu ahal izateko, Gizarte Ongizate Arloaren iritziz, berebiziko garrantzia dute hirian bizi diren komunitatetik kanpoko etorkinen beharren eta eskubideen inguruan irundarrak sentsibilizatzeko jarduerak.

- **Normalizazioa**

Funtsezko berdintasun eta erantzukizun publikoaren printzipioak bideratzeko, ahalik eta gehien normalizatu behar dira etorkinen kolektiboa benetan integratzeko behar diren prestazio eta zerbitzu guztiak.

- **Koordinazioa**

Irungo Tokiko planak beharrezkotzat jotzen du hirian etorkinen integrazioa aurrera eraman ahal izateko. Halatan, koordinazioa zaintzen badugu soilik lortuko dugu instituzio eta erakunde desberdinek kolektibo horri begira bultzatutako lanak egiterakoan bikoiztasun eta akatsik ez gertatzea.

- **Ebaluazioa**



Irungo immigrazio planak tresna malgua eratzeko asmoa du. Gizarte Ongizate Arloak Planaren exekuzioa ebaluatuko du, plan horren aplikazioa hobetu eta planteatzen diren zailtasunei konponbidea aurkitu ahal izateko. Era berean, Tokiko Planaren aplikazioaren azken ebaluazioa egingo da bere azken fasean, 2005. urtean.

Hauek dira, beraz, Irungo Tokiko Immigrazio Planaren printzipio gidari eraginkorren azalpena.

2006an, Tokiko Planaren aplikazioa amaitzen denean, hauek izango dira, besteak beste, ebaluatuko diren lorpenak (azken ebaluazioa). Horretarako, ahaleginak egingo dira iturri anitzetatik etorritako informazioa edukitzeko, Immigrazioari buruzko Udaleko Mahaitik etorritakoa, eta administrazio eta erakundeei eginiko inkestetatik etorritakoa. Azkenik kontuan hartuko da Tokiko Planaren exekuzioari dagokionez etorkinek lortu duten asetze maila neurtzeko aukera :

1. Immigrazioaren alorra zein mailatan jaso den administrazioaren zereginean.
2. Etorkinen elkarteak indartu eta antolatu.
3. Etorkinek hiriko jarduera normalizatueta duten partaidetza maila.
4. Bertako biztanleriak hirian immigrazioaren alorrean antolatzen diren jardueretan duen partaidetza maila.
5. Komunitatetik kanpoko etorkinen izaerari loturik bertako pertsonen eta etorkinen artean hirian gertatzen diren gatazken maila.

• Ongietorriak programa

Programa honen helburua haur etorkinen euskarazko integrazioa da. Irun Iruten elkarteak proposatu eta Udaleko Euskara Zerbitzuak jarri zuen martxan 2003-04 ikasturtean. Programa hau Irungo eskoletan Lehen Hezkuntzako umeei zuzenduta zegoen eta eskolaz kanpoko orduetan gauzatu zen.

Ikasturtearen bukaeran ahozko hizkuntza irakasteko metodologian sakontzeko beharra ikusi zen, eta 2004-05 ikasturtean aditu bat kontratatu da materiala biltzeko eta egokitzeko.

Kontua da saio asko egin direla euskara metodo on bat bilatzeko, baina ez dugu ahaztu behar hartzaileak umeak direla eta jaioterri desberdinetatik etorritakoak. Askok ez dakite oraindik erraztasunez irakurtzen eta ahoz transmititzeko joko eta ariketa egokiak bilatu behar direla euskara eskolako beste *gai* bat ez bihurtzeko, baizik eta komunikazio tresna egokia. Programa hau aukera aparta izan daiteke etorkinek gure hizkuntzaren eta kulturaren berri izan dezaten.



3.4. IMMIGRAZIOA EUSKAL HERRIAN ETA HIZKUNTZA INTEGRAZIOA

Atal honek Amelia Barquinen *Euskara eta etorkinen hizkuntza integrazioa* artikuluan du oinarria.

3.4.1. ZERBAIT ALDATU DA

Euskal Herrian, gaur egun, immigrazioa nahiko fenomeno berria denez, oso zaila da aurreikustea zeintzuk izan litezkeen immigrazioaren ondorioak. Europako Ezker Batuko eta Ipar herrialdeetako Ezker Berdeko kidea den Sami Näirren ustez: *ez dago migrazioaren presioa neurtzen duen zientziarik, ez dago horrelako balorazioak egiteko erreferentzia zenbakirik.*

Baina zerbait aldatu da azken urteotan: Miguel Laparrak, UPNAren Alter ikerketa taldekoak, Nafarroako kasuaz, esaten du immigrazioaren hasieran gaudela; Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailburuak, Angeles Iztuetak, ikasturte bakoitzean haur etorkinen kopurua %40 igoko dela aurreikusi du, eta 2010 urtean 72.000 izan litezkeela (10.041 haur dira 2004-05 ikasturtean). Bestalde, INEk uste du 2010ean 4tik 6,5 milioi etorkin inguru egongo direla Espainian; Funcasek, berriz, adierazi du 2014an Espainian 11 milioi etorkin egongo direla, biztanleen laurdena.

Beraz, **errealitate hau ezin da alde batera utzi.** Gai honen inguruan hausnartu eta erabakiak hartu behar ditugu. Izan ere, gai hau kontuan ez hartzeak hainbat ondorio ekar ditzake. Alde batetik, justizia kontua da kanpotik datozenentzat. Baina ez hori bakarrik: badago autoktonoon interesa ere, lehendik hemen geundenona; gure patua etorkinei erabat lotua baitago. Etorri berriek gizarte honetan egingo dutenak edo egingo ez dutenak eragingo du zuzen-zuzenean hemen gaudenon bizimoduan.

Eta hain zuzen ere, horrek hizkuntzaren eta kulturaren arloan hainbat ondorio izango ditu. Etorkinek hizkuntza arloan hartuko dituzten erabakiak, bai beraientzat eta baita beren seme-alabentzat ere, funtsezkoak izango dira eta autoktonooi eragin egingo digute.

3.4.2. HIZKUNTZA INTEGRAZIOA

Zer da hizkuntza integrazioa? Posiblea al da integratzea harrera gizartearen hizkuntza batera ondo jakin gabe? Gure artean, hizkuntza bat (gaztelania Hegoaldean, frantsesa Iparraldean) jakitea nahikoa da *integrazioa* lortzeko? Zer eskatu ahal diegu etorkinei euskarari buruz? Auzi hau ez da erraza. Kontuan hartu behar dugu pertsona bat edo talde bat gizarte bat utzi eta beste gizarte batera heltzen denean, aldaketak gertatzen direla bi aldeetan, etorritakoengan eta baita bertakoengan ere.

John Berryk eskema honetan azaltzen digu sor daitezkeen posibilitateak. Horretarako, bi parametro konbinatu ditu:



- Gutxiengoak (etorkinak) bere identitate kulturala eta bere baloreak mantentzen dituen ala ez.
- Gutxiengoak (etorkinak) erlazio positiboak dituen gehiengoarekin (edo harrera gizartearekin) ala ez.

<i>Beste taldeekiko harremanak sortu eta mantentzen dira</i>	<i>Berezko identitatea eta ohiturak mantentzen dira</i>	
	<i>Bai</i>	<i>Ez</i>
<i>bai</i>	<i>Integrazioa</i>	<i>Asimilazioa</i>
<i>ez</i>	<i>Bereizketa</i>	<i>Marjinazioa</i>

Konbinazioak eginez gero, lau posibilitate agertzen dira. Kontzeptu hauek hobeto ulertzeko, har dezagun adibide euskal gizarteke ijito gutxiengoa. Gutxiengo horretan ikus ditzakegu lau aukera horietan sailka daitezkeen gizabanakoak eta taldeak:

- Integratu direnak eta beren kultura ukatu gabe gehiengoaren kulturarekin jarrera positiboa dutenak.
- Asimilatu egin direnak, alegia, beren kultura ahaztu eta gehiengoarengana hartu dutenak.
- Bere jatorriari lotuta jarraitzen dutenak, gehiengoaren kulturarekin harremanik izan gabe (separazioa).
- Beren identitatea galdu dutenak, baina gehiengoaren baloreak ere hartu ez dituztenak (marjinazioa).

Jakina denez, errealitatean sailkapen hori ez da hain garbia gertatzen; horregatik egokiagoa da tendentziaz hitz egitea. Taulan agertzen diren aukerak ikusita, badirudi integrazioa dela desiragarriena. Baina integratzea harrera herriko legea betetzea baino zerbait gehiago da; oharkabe pasatzea, garraio publikoa erabiltzea, bertako ordutegietara egokitzea, bertako janarietara egokitzea... Hori guztia ez da nahikoa. Hitz egin al dugu integrazioaz harrera gizartearen hizkuntza jakiten ez denean edo modu eskasean erabiltzen denean? Erantzuna erraza da: ez.

Bestela, turkiar emakumeekin akordatzea besterik ez dugu. Alemanian urteak eman ondoren, hitz batzuk besterik ez dira gauza alemaneraz esateko. Edo gure artean egon eta gaztelaniaz hitz batzuk besterik esaten ez dituzten emakume marokoarrek. Puntu honetan beste azpigai bat ere aurki dezakegu: kulturaren arabera ez dira berdin integratzen emakumezkoak eta gizonezkoak, baina ez dut gehiegi luzatu nahi eta utzi egingo dut momentuz.

Hizkuntzaren ezagutzak ez du integrazioa bermatzen, baina argi dago hizkuntza ez ezagutzeak erabat baztertzen duela integrazioa. Beste modu batez esanda, ez dago integratzeaz ailegatutako gizartearen hizkuntza jakin ezean.

3.4.3. BI HIZKUNTZA

Zer gertatzen da harrera herrian bi hizkuntza daudenean? Halakoxea da Euskal Herriko egoera.

- Euskal Herriak bi hizkuntza ditu (euskara/gaztelania; euskara/frantsesa), eta



hizkuntza hauek, status politiko desberdina dute. Lurralde administratiboaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan koofiziala da, Nafarroako iparraldean bakarrik da koofiziala, eta Iparraldean ez dauka status hori. Euskara gutxitutako hizkuntza da, ez dago euskaldun elebakarrik, bere hiztun guztiek badakite beste hizkuntzaren bat: gaztelania edo frantsesa, eta erabilera ere desberdina da lekuaren arabera: batzuetan hizkuntza nagusia da, eta, besteetan, ez da apenas erabiltzen. Jakina, hauek muturreko erabilerak dira, bi egoera hauen arteko maila guztiak ere gertatzen dira.

Hizkuntza normalizazio prozesuan dago, eta prozesu horrek egundoko ahalegin politikoa eta soziala eskatzen du hizkuntzak aurrera jarraitzeko eta bere biziraupena bermatzeko.

- Ailegatzen direnen egoerari dagokionez, oso datu garrantzitsua da etorkinen jatorria. Izan ere, EAera eta Nafarroara iritsi diren etorkinen %65 baino gehiago Hego Amerikakoak dira, eta Hegoaldeko bi hizkuntzetako bat badakite: gaztelania. Besteek, printzipioz behintzat, bietako bat ere ez dakite.

Bi egoera hauen aurrean, zer da etorkinen hizkuntza integrazioa? Bi hizkuntza erabili eta bakoitzari lotuta doan kultura eskura dugunok hauxe esango genuke: etorkinen erabateko integrazioa izateko, Euskal Herriko bi hizkuntzak jakin eta erabili behar dira. Geure ustez, bietako bat ez dakienak ez du sarbiderik izango herri honetako aberastasun kulturalaren zati funtsezko batean. Baina hori oso baieztapen abstraktua da; mundu errealerara pasatzekoan badaude zenbait faktore, kontuan hartu beharrekoak, etorkinen eta euskararen arteko harremana aztertzean.

3.4.4 ZENBAIT FAKTORE GURE EGOERA LINGUISTIKOA ULERTZEKO

3.4.4.1. Euskara normalizatu gabe dagoen hizkuntza da.

Leku askotan etorkinak jabetu dira euskara ez dela kalean erabiltzen. Bertakook ez badugu erabiltzen, zaila da etorkinak ikasteko beharra izatea. Izan ere, gaztelaniaz dakiten etorkinek badakite Hegoalde osoan hitz egiten den hizkuntza (salbuespenak salbuespen).

Gaztelaniaz ez dakitenek gaztelania ikasteko beharra sumatuko dute leku gehienetan. Leku batzuetan bakarrik (agian Ondarroako arrantzaleren bat edo) sumatuko dute euskara ikasteko premia, eta oso arraroa izango da euskara bakarrik ikasteko beharra sentitzea. Gaztelaniaz ez dakiten horientzat, gaztelania da aukerarik garbiena. Izan ere, bi hizkuntza ikastea esfortzu izugarria da; baita bakarra ikastea ere etorkin heldu askorentzat (edozein autoktonorentzat bezala). (...)

Edozein modutan ere, baliagarria litzateke, etorkinak euskararekiko *sinpatikoak* izatea behintzat –Atxagaren hitzetan esateko–. Alegia, ikasten badute, ezin hobeto; baina hala ez bada, gutxienez jarrera positiboak izan ditzatela. Itxaropena, batez ere, etorkinen seme-alabengan izan beharko genuke, haiek eskolari esker euskara ikasten



duten heinean, horixe bera da autoktono elebakarrekin daukagun esperantza, simple esanda: jarrera positiboak izan ditzaten eta seme-alabak euskara ikastera eraman ditzaten (bi gertaerak lotuta daude maiz; lehenengoa bigarreneko baldintza izan ohi da).

Etorkinen umeak euskaldun moduan irabazteko, eskolak egundoko garrantzia dauka, noski, eta aurrerago hitz egingo dugu horretaz.

Helburu bikoitz hori errealitate bihurtzea ez da soilik etorkinen zeregina, baizik eta geurea ere bada. Oraindik ez dugu autoktono elebakar guzti-guztiengandik jarrera baikor hori lortu. Etorri direnak *erakarri*, *interesatu*, *liluratu* beharko ditugu. Eta ahal den neurrian ikaskuntza erraztu beharko dugu, **baliabide guztiak** jarritz.

3.4.4.2. Etorri berriei gure arazo soziolinguistikoak arrotz zaizkie.

Etorkin batzuek, hona heltzen direnean, ez dakite hemen gaztelania ez beste hizkuntzarik hitz egiten dela. Gainera, etorkinaren bizimodua gogorra da hasieran batez ere. Badago termino bat *akulturazio estresa* eta termino hau beste herri batera doan pertsonaren sufrimendua adierazteko erabiltzen da. Alegia, etorkinak oinarrizko arazoak dituzte eta arazo horiekin daude arduratuta: lana aurkitu, etxebizitza aurkitu, paperak lortu... Ezagutzen zuten mundua utzi egin dute: familia: lagunak, bizimodua, hizkuntza... Orain ezagutzen ez duten mundu batean daude murgilduta. Ez dituzte mundu berriaren klabeak ezagutzen eta ez dakite bertan iraun ahal izango duten eta honek guztiak ondoez emozionala sortzen du. Ulegarria da heltzen diren herrialdeko egoera soziolinguistikoa beren lehentasunen artean ez izatea.

Jakina, hori paperak dituztenei dagokionez. Zer esan paperik ez dutenei buruz? Gogoan izan behar dugu asko eta asko beldurrez dabilzala kalean paperik ez dutelako. Zein autoktono ausartuko da horri eskatzen Euskal Herriko egoera soziolinguistikoarekiko konpromisorik? Zergatik arduratu behar du *haietako* batek euskararen egoeraz, *gure* arazo bada? Lehenengo eta behin, egoera berriari egokitzeak dakarren ondoeza ahalik eta txikiena izatea eta jende guztiak bizimodu duina izatea lortu behar du etorkinak. Horretarako, neurri politiko egokiak behar dira.

3.4.4.3. Euskara ikasteko arrazoiak behar dituzte.

Hainbat autoktono elebakarrek izan dute euskara ikasteko beharra arrazoi praktiko batengatik: **zenbait lan lortzeko aukera izateko**, batik bat administrazio publikoarekin lotutako lanpostuak lortzeko (EAEn Nafarroan baino gehiago). Etorkinen kasuan, beraiek izaten dituzten lanpostuetan (etxeak garbitzea, umeak eta zaharrak zaintzea, eraikuntza, kalean gauzak saltzea...) ez dute, oro har, euskara jakin beharrik, ez delako euskaraz jakitea eskatzen. Beren lan aukerak eta aspirazioak txikiagoak dira. Beraz, euskara ikasteko arrazoi bat gutxiago daukate.



3.4.4.4. Ondo esplikatzen al diegu gure egoera soziolinguistikoa?

Hemengo egoera soziolinguistikoa eta euskara berreskuratzeko egiten ari den ahalegina ondo azaldu behar zaie.

Etorkin hegoamerikarregandik (etorkinen %65 baino gehiago dira Hegoaldean) ere entzun daitezke autoktono elebazarrek dituzten antzeko iritziak: *nik badut irakasle titulua, badakit gaztelaniaz eta hemen ez da nahikoa lan egiteko, injustizia bat da.* Alde batetik, ongi azaldu behar zaie gure egoera soziolinguistikoa eta, bide batez, herri honetako hizkuntzak doan eta azkar ikasteko aukera eman behar diegu.

3.4.4.5. Ikusi behar dute beren seme-alabek euskara ikastea garrantzitsua dela.

Mezu hau helarazi behar zaie. Seme-alabek euskara ikasteko aukera ez profitatzea galera handia litzateke. Dena dela, etorkinen seme-alabek euskara ikasi ahal izateko, bi baldintza bete behar dira:

Inguru egokian hazi behar dute, ez inguru ezegonkor eta prekarioan.
Ikasteko gaitasuna izan behar dute.

Bi baldintza hauetaz aparte, kasu batzuetan haur edo gaztearen adina ere hartzen da kontuan. Umeak txikiak badira, ez da oztoporik ikusten euskara ikasteko; baina 10 edo 14 urtekoak badira, gauzak oso bestelakoak dira. Askotan erabakia ez da batere erraza izaten, edo errazegia: batez ere gaztelania ez den ama-hizkuntza duten gehienek uko egiten diote euskara ikasteari.

Jakinarazi behar zaie haurrek eta gazteek ez badute ikasten, gero ez dituztela izango aukera berberak lan munduan.

3.4.4.6. Hizkuntza kalean ikasten da.

Hala da, baina askotan ez da uste bezain erraza gertatzen. Marunyk eta Molinak hauxe diote Kataluniako etorkinei buruz:

Lantokietan komunikazio elkartrukeak oso mugatuak dira, batez ere lan gogor eta zaratatsuetan (garbitegian, zerratokietan...) edo lan bakartietan (baserrietan, garbiketean....) Gerta liteke etorkinekin hitz egitea soilik ezinbestekoa denean... Edo gerta liteke langile gehienak etorkinak izatea eta gaztelania edo katalana [edo euskara] behar ez izatea haien ugazabekin ez bada... Eta supermerkatuak joateko ez dira diskurtso luzeak behar. Eta agian haien auzoetan ia jende guztia etorkinak dira. [...] Ondorioz, etorkin gehienek hizkuntza esposizioa oso-oso mugatua da. Eta lagun gutxi egiten dituzte. [...]. Lagun autoktonoak izateak erabat aldatzen du haien konpetentzia gaztelanian edo katalanean [edo euskaran].

Autoktonoen eta etorkinen arteko komunikazio kanalak izan behar dira bertako hizkuntzak ikasten motibatzeke eta erabili ahal izateko.



3.4.4.8. Mesfidantza kulturala

Badago sentimendu bat euskaldun batzuek adierazten dutena eta azterketa merezi duena: etorri berriekiko *mesfidantza kulturala*: *hori bakarrik falta zitzaigun* moduko bat. Amelia Barquinek honela azaltzen du : “... *hau gertatzen da hemen badagoelako hizkuntza eta kultura bat desagertzeko arriskuan, eta egoera honen kontzientzia argia duten euskaldun batzuek badute sentimendu hori.* ” Askotan hiztun horien eskubideak ez dira errespetatzen edota behin eta berriz ari dira eskubide horien defentsan: ongi arduratzen dira beren seme-alabak euskarazko eredu batean bidaltzeaz, euskarazko prentsa irakurtzeaz, medikuarekin edo udaletxean euskaraz hitz egin ahal izateaz...

Baina errealitatea inposatu egiten da: pertsona ugari heltzen ari dira gaztelania baino ez dakitenak, edo bere hizkuntzaz aparte gaztelania besterik ikasi ez dutenak, edota gaztelania ikasten ari direnak. Oro har, jende horrek ez du parte hartzen euskal hizkuntzaren eta kulturaren errebindikazioan; eta horren ondorioz, seme-alabak erdal ereduera bidaltzen dituzte kasu gehienetan. Gainera, etorkin horiek errespetua eskatzen dute beren berezitasun kulturekiko eta linguistikoekiko; ez dira jada ikusezinak eta borrokatzen dute meskita bat irekitzeko, arabiera ikastetxean irakasteko...

Horren guztiaren aurrean zenbait euskaldunen erreakzioa mesfidantza da eta etorri berriak honela hautematen dira:

- a) Euskararen biziraupenerako oztopo edo mehatxu
- b) *Lehiakide kultural* gisa

Egia esan, ez gara konturatzen denok ontzi berean goazela eta gure artean zenbat eta zatiketa handiagoa izan, askoz errazagoa izango dela boterearentzat, kasu honetan hizkuntza indartsuenarentzat. Argi dago pentsamolde honek ez garamatzala inora. Erraza da tentazio horietan erortzea, baina zer aterako dugu hortik? Etorkinak al dira gure egoeraren errudunak? Etorkinak al dira gure esparruak hartzen ari direnak?

Amelia Barquinen ustez, badago beste aukera bat: etorkinekin elkartu guztion eskubideak babesteko, bai autoktonoenak, bai etorkinenak. Eta honen aurrean bi jarrera eduki ahal ditugu: mesfidantza izan edo konfiantza agertu eta aliantzak bilatu.

Ameliaren ustez, soilik jarrera baikor, estrategiko eta solidario batetik lor daiteke euskararekiko *sinpatia*. Eta sinpatia hori behar-beharrezkoa dugu euskarak aurrera egingo badu; iraungo badu; euskara ez da soilik hemen jaiotakoa izango, kanpotik etorritakoa ere izango da.

• ETORKINEN SEME-ALABAK ESKOLATZEAN KONTUAN HARTU BEHAR DIREN FAKTOREAK

Hauek dira orokorrean kontuan hartu behar direnak:

- Umearen adina. Ez da gauza bera hiru urteko ume bat eskolatzea, bederatziko bat edo hamalauko bat. Hizkuntza ikasteko modua ezberdina da , eta eskolan egoteko eta ikasteko geratzen zaizkion urteak gehiago edo gutxiago baitira.



- Umeak izan ditzakeen ezaugarriak: adimen urritasuna, adimen handia, gortasuna, itsutasuna, autismoa...
- Familiaren immigrazioa proiektua: zenbat denborarako etorri den, familiaren asmoak aldatu diren, familiaren lan-baldintzak...
- Umeak gaztelaniaz lehendik dakien ala ez.
- Umeak hizkuntza erromanikoa dakien ala ez.
- Umea bere jatorrizko herrian eskolatua zegoen ala ez.
- Umeak irakurtzen eta idazten dakien ala ez.
- ...

Ez dago errezetarik: egoera bakoitza aztertu beharra dago. Faktore guztiak kontuan hartu eta horren arabera egokiena den irtenbidea aukeratu. Profesional batek edo multzo batek emango du bere iritzia, eta iritziz hauek kontrajarriak izango dira, batzuetan. Aholkulari batzuen iritziz, inguruko hizkuntzaren arabera eskolatu beharko da umea inguruarekin lehenbailehen egokitzeko. Beste batzuen iritziz, familiaren jarrera izango da erabakigarria...

Horretaz gain, badira hizkuntza bakar batean eskolatzearen alde daudenak (gaztelaniaz egitearen alde daudenak eta euskaraz egitearen alde daudenak) egoera edozein izanda ere.

Baina ez dugu helmuga ahaztu behar. Eskola Publikoaren Legeak (1993) honako hau zuten bere helburuen artean:

“Ikasle guztiek, baldintza beretan, derrigorrezko irakaskuntza-aldia bukatzean bi hizkuntza ofizialen ezagupen praktikoa izango dutela bermatzea, euskararen erabilera bultzatuz eta normalkuntzari lagunduz.”

Kontuan hartu behar dugu –zailtasunak zailtasun– zein den helburua, batez ere ume horiek bigarren mailako hiritarrak ez izateko. Zer gertatuko da ume horiek ez badute lortzen gutxienezko hizkuntza gaitasuna?

- **Kontuan hartzeko beste faktore batzuk**

Adibidez, ez da gauza bera herri txiki batek edo auzo jakin batek eskaintzen dituen baliabideak edo hiri handi batek eskaintzen dituenak. Ume bat eskolatzekoan badaude beste arrazoi batzuk kontuan hartu behar direnak:

- Eskola batzuetan hausnarketa prozesua falta da eta ez dago esku-hartze egokirako nahiko baliabiderik. Gaur egun, oraindik ere besterik gabe erabakitzen da etorkina erdaraz eskolatzeko, eskolan bertan beste aukera batzuk egon arren. Antza denez, hori da errazena. Hala ere, beharrezkoa da “ume etorkina=gaztelania” eragiketa automatikoa deuseztatzea.

Badaude, bestalde, gure gizartean ideia batzuk, birpentsatzea merezi dutenak; honako adierazpen hau, adibidez: “etorkin gizajoak, nahikoa daukate beren egoerarekin orain beste hizkuntza bat ikasteko.” Kontua da Hegoaldean etorkinen seme-alaben %69 Hego Amerikatik datozela eta, printzipioz, gaztelaniadunak direla; hizkuntzaren aldetik



autoktonoen elebakarren seme-alabek duten hizkuntza bera, hain zuzen. Beraz, zergatik iruditzen zaigu hain miresgarria etorkinek euskara ikastea?

- Alde batetik, esan behar dugu gaur egun ideia hau aldatzen ari dela eta zenbait lekutan dauden eskolatze komisioek lagundu egin dutela ikasle berriak era guztietako eskoletan matrikulatzen.
- EAEko zenbait eskola publikotan A ereduak jarraitzen du eta eskola horietan geratu dira euskarazko hizkuntza eskakizuna lortu ez duten irakasleak. Irakasle hauentzat, etorkinen seme-alabak dira oraingo beren jarduera eta A ereduaren mantentzeko interes handia dutenez, haur etorkinentzat A eredu gomendagarriena dela esango dute.
- Guraso etorkinen erabakia aztertu egin behar da. Hein batean, jatorri bereko umeak dauden eskolak aukeratzen dituzte, eta hori gorpil zoro bat da. Gainera, askorentzat garrantzitsuena umea eskolara eramatea da, eta ez dago ardurarik zein den eskola edo zein eredu dauden aztertzeko. Dena dela, geure buruari galdetu behar diogu nondik datorkien eskola sistemari buruzko informazioa, nork ematen dien aholku (zein eragile autoktonok eta zein eragile propiok) eta zergatik ematen diren aholku horiek. Ondoren, aztertu beharko dugu eragile horiekin nola esku hartu.

Izan ere, guraso batzuk kezkatzen dira hasieran informazio eraginkorrik jasotzen ez dutelako. Heldu berriak dira, berehala eskolatu behar dituzte umeak, eta ez dakite euskara kontu horrek zertarako balio duen. Denbora pasa ondoren, gizartea apur bat hobeto ezagutzen dutenean, uste dute berandu dela; guraso gutxik aldatzen dute hasiera batean egindako *aukeraketa*.

Familia etorkin bati hezkuntza sistemari buruz informazioa ematean, ez da nahikoa ereduak lehorrean azaltzea. Informazioak konplexuagoa beharko luke eta elementu soziolinguistiko batzuk eskaini beharko lituzke: zer esan nahi duen gizarte honetan euskara ez ikasteak, zer aukeratzen duten autoktonoek eta zergatik, zer dela-eta ez diren joaten ume autoktonoak eskola jakin batera eta zeintzuk diren aukerak.

• **Euskara ez ikastea aukeratzen bada**

Kontua da hainbat etorkinen seme-alabak ez direla euskara ikasten ari. Horrek ondorio batzuk izango ditu epe ertainera:

- Gizarte honetan, ume batek eskola uzten badu bi hizkuntzak (euskara edo gaztelania) jakin gabe, ume horrek ez ditu besteek dituzten aukerak izango, ez lan munduan aritzeko ez, oro har, gizartean integratzeko. Eta zer esanik ez, Euskal Herriko kultura aberastasunaren zati handi bat ere galduko du.
- Ikasle horrek euskara geroago ikasi nahi badu, ordaindu egin beharko du zerbitzu hori. Gaur egun, eskolaz kanpo euskalduntzea (euskaltegien edo dena delakoaren bidez) ez baita dohainik. Zenbait etorkin horretaz kezkatzen dira: izan ere, helduentzako heziketan gaztelania ikas daiteke, baina euskara ez. Eta bi hizkuntza ofizialak diren lekuetan galdetu egiten dute zergatik bat ikasteko



ordaindu behar den eta bestea ikasteko, berriz, ez. Herri batzuetan neurriak hartu dituzte eta dohaineko ikastaroak eskaintzen dituzte. (Sakana aldean, adibidez), baina hori guztia ez da nahikoa.

- EAEn, etorkinen seme-alabak A ereduari matrikulatzeak duen ondorioa hauxe da: etorkinak eskola jakin batzuetan –publikoetan– pilatzea. Eta pilatze horrek ez du hemen jaiotako eta kanpoko umeen arteko elkarbizitza ahalbidetzen. Eskola hauetako asko ghetizazio eta desprestigio prozesu batean sartu dira; autoktonoek abandonatu egin dituzte, eta eskola hauetara ia bakarrik etorkinen seme-alabak joaten dira. Honen ondorioz, beste jarrera berri batzuk gerta daitezke: adibidez, Nafarroan hainbat familia autoktonok seme-alabak D ereduari matrikulatzea erabaki dute gaztelaniadun ereduetik urruntzeko, *etorkinez bete* egin direlako. Horrela, euskarazko irakaskuntza *oker handiago* batetik ihes egiteko bidea bihurtu da, hau da, etorkinekin klasean egon behar izatek ihes egiteko. (Jarrera honetaz luze hitz egin liteke: non geratzen dira kultura aniztasunaren baloreak? Ba al ditu hezkuntza publikoak beharrezkoak diren tresnak kalitatezko hezkuntza bermatzeko? ...)

Aurreko puntuok hezkuntza-ereduaren ekarriz, ez ote genuke etorkinen umeentzat defendatu behar ume autoktonoentzat defendatzen duguna? Hau da, eskolak bi hizkuntzen ezagutza bermatzea (eta jakinekoa da oraingo A eta B ereduak -eta Nafarroako G ereduak- ez dutela bermatzen)?

3.4.5.3. Euskara ikastea aukeratzen bada

Euskal ereduak zailtasun batzuk dituzte immigrazio garaikidearen zenbait ezaugarrien aurrean.

- Hasteko, B eta D ereduko baliabide pedagogiko guztiak gaztelania edo frantses-hizkuntzarentzat daude diseinatuta (antzekotasun handia daukaten hizkuntza erromanikoak dira). Baina gaur egun Hegoaldera etorritako umeen %30 baino gehiagok ez daki gaztelania.
- Hemen, beraz, bi hizkuntza ikasi beharko lituzkete. Baina batzuk ez daude hizkuntzak ikasteko egoerarik onenean (eskolan egoteko urte gutxi geratzen zaizkienean helden dira, marjinazio egoeran daude eta emaitza akademikoetan eragina du horrek...)
- Bestalde, irakasleak, ikaslearen hizkuntza ez badaki, ezin ditu jakin zein zailtasun dituen umeak hizkuntza berria ikasteko (hitz egiten duen hizkuntzaren eta ikasi behar duenaren estruktura ezberdinak direlako, haien arteko alde fonetikoarengatik...).

Ez da ahaztu behar eskolek, euskaraz gain, gaztelania ere irakatsi behar dutela: umeek eskolara iristerako gaztelania jakiteak ez du esan nahi erregistro guztiak ezagutzen dituztenik. Erregistro informaletako gaztelania hitz egiten badute ere, hizkera formala



ere ikasi beharko dute, hori ere zenbait gizarte esparrutan beharrezkoa da-eta (euskararekin gertatzen den bezala).

3.4.5.4. Etorkinen hizkuntzak

Gogora dezagun integrazioak jatorrizko baloreak ez galtzea esan nahi duela eta, horretarako, hizkuntza elementu garrantzitsua dela. Hitz egin dugu hemengo hizkuntzak hitz egiteko beharraz; baina zein da etorkinen hizkuntzei aitortuko diegun begirunea? Kontuan hartu behar dugu haietako batzuk elebidunak edo hiru eledunak direla hona heltzen direnean.

Nahi al dugu etorkinek haien hizkuntzak galtzea gureak erabil ditzaten? Lehen esan bezala, norberaren lehen hizkuntza autoestimua eta identitatearen parte garrantzitsua da, oso. Ez dago zertan kultura propioa galdu gizarte berrian egokitzeko, sustraiak beste nonbait garatzeko. Hizkuntzari uko egitean, zaila izango da *integrazioaz* hitz egitea.

Eskolak bilatu beharko ditu ikasleen hizkuntzak baloratzeko moduak. Eta haiekiko sentsibilitate handia garatu. Hala nola, irakasleek ikasleen izenak ondo ahoskatu beharko dituzte; ikastetxearen dekorazioan ere arreta jarri beharko da; eskolako festetan hemengo kantez gain, etorkinen herrietako kantak ere entzun behar dira. Eta hori guztia ez bakarrik kontuan hartzeko ikasleen autoestimua bultzatzeko, baizik eta baita eskolako ume guztiek ere ikasiko ez lituzketen kontuak ikasteko. Horrela, hainbat jatorritako jendearekin bizitzeak balio erantsia izango du, zerbait ekarriko du. Baina horretarako, irakasleek sinetsi behar dute ikasle etorkinek badutela zer ekarri gelara.

Baditugu arrazoiak hizkuntza gutxituetarako sentsibilitate berezia adierazteko, eta hemen etorkinen **hizkuntza guztiak hala dira nolabait, baina guk denak zaku berean sartzen ditugu beren herrian gutxitua izan** (kitxuara, adibidez) **zein gutxitua ez izan** (arabieraren kasuan). Zorroztasun berezi horrek batzuetan oso argi ez dauden egoerak ikustaraziko dizkigu; horrela konturatu gara Hegoamerikatik datozenen artean kitxuak badaudela, eta maputxeak, aimarak... Afrika Hegoaldetik datozenekin gertatzen den moduan. Batzuetan ahaztu egiten dugu guztiak ez direla arabiarrak; asko eta asko beste etnia batekoak dira: berebereak. Izan ere, etorri berriak askotan sailkatzen ditugu jatorrizko estatuaren kultura eta hizkuntza nagusien arabera, eta konturatu gabe, batzuetan, kultura eta hizkuntza horiek haien zapaltzaileak direla. Baliteke, gainera, beren hizkuntza eta kultura ezkutatzeari, *prestigio gutxikoak* direlako beraien ustez.

Gogoratu behar dugu ez dagoela urrun garaia non eta zenbait euskaldun lotsatu egiten ziren euskaraz hitz egiteaz eta gaztelaniaz trakets adierazteaz.

Kontua da orokorrean ez dela bereizten zenbat marokoarrek hitz egiten duten berebereraz. Irakasleek ere ez dakite. Eta nola izango dute kontuan umearen hizkuntza, ez badakite zein den ere, eta pentsatzen badute marokoar guztiek etxean arabieraz hitz egiten dutela?

Esan dugu lehenengo hizkuntza mantentzea identitatearekin lotuta dagoela. Eta ez dagoela hizkuntzari uko egin beharrik kultura berrira egokitzeko, beste leku batean erroak egiteko. Pertsona bat euskalduna (edo galegoa, edo espainola) izan daiteke, eta aldi berean musulmana edo marokoarra eta, aldi berean, feminista eta saskibaloia



jokalaria... Zeren eta gauza asko izan baikaitezke aldi berean, eta horrela gutako bakoitza bakarra da (gure identitate osoa kontuan hartzen badugu) eta, era berean, gutako bakoitzak badugu komunikazio eremu komun bat identitate-alderdi bera daukaten beste gizabanakoekin. Eta aldi berean, euskaraz bizi izatea bada era bat sustraiak egiteko, bertakotzeko.

Kontua da baten batek noizbait pentsatu badu euskara bultzatzeko ezinbestekoa zela Euskal Herri homogeenoa (ideologikoki, sozialki...), orain badaki baldintza hori ez dela etorkizunean beteko. Etorriko dena kontrakoa da: gero eta aniztasun handiagoa hainbat alorretan (ezaugarri fisikoak, erlijio jardunak, mundu ikuskerak, sinismenak, ohiturak...). Euskara guztiona izango da edo ez da izango.

3.4.6. EAE-N EGIN BERRI DEN AZTERKETA BATEN EMAITZAK

Berri hau Euskal Herriko aldizkari guztietan argitaratu da eta hedabide guztietan ere eman da aditzera 2005eko apirilaren 26an. Berria egunkariaren titularrak honela dio:

Hizkuntz ereduaren politika kolokan utzi du Jaurlaritzaren azterketak DBH ikasketak amaitzean, D ereduko ikasleen %68 eta B ereduko %33 baino ez dira euskaraz moldatzeko gai.

Eusko Jaurlaritzak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako DBHko ikasleen euskara maila neurtu zuen, lehendabiziko aldiz, Europako hizkuntza azterketak erreferente hartuta. A ereduko ikasle bakar batek ere ez zuen gainditu proba hori egiteko aurretik egin beharreko azterketa (atariko proba), B ereduan gazteen %33k bakarrik, eta D ereduan ikasleen %68 soilik moldatzen da ongi euskaraz.

16 urteko ikasleei buruzko datuok kezagarriak dira: A ereduko inork ez daki euskaraz; B ereduko bi herenek ere ez dute hizkuntza menperatzen, ezta D ereduko heren batek ere.

2004ko azaroan eta abenduan DBHko 4.mailako 1.191 ikasleri egin zitzaien euskara azterketa. Orain artean hizkuntza eredu ezberdinen arteko probak baino ez ziren egiten. Azterketan, Association of Language Testers in Europe ALTE elkarteak B2 maila eskatuko zitzaien ikasleei.

Datu hauek kontuan hartuz, ezinbestekoa da hausnarketa sakon bat egitea eta datozen urteetan neurri bereziak hartu beharko dira. Agintariek, momentuz, neurri hauek aipatu dituzte:

- irakasleak euskaraz prestatu, beren euskarazko kalitatea hobetzeko.
- oinarri ahulagoa duenari laguntza gehiago eman.
- lorpen-mailak zehaztu etapa guztietan. Horretarako, maila eta etapa bakoitzeko helburu zehatzak ezarriko dira, haur hezkuntza eta DBH amaierarako.
- eboluzioa ikusteko, erreferente berarekin ebaluazioak egiten jarraitu.

Dena dela, gauza bat argi dago: euskalduntze prozesurako eskola soilik ez da nahikoa eta honek gizarte osoaren inplikazioa behar du. Gainera, badago beste barietate bat datu horietan kontuan hartu ez dena: ikasleen heldutasun intelektuala. Honekin esan nahi dut,



batzuetan arazoa ez dela hizkuntza ezagutzea edo ez ezagutzea, baizik eta azterketan bertan hizkuntza maila erakustea.

Azterketa horretan euskararen gaitasuna neurtu da eta ondorio batzuk atera dira komunikabideetan baina, nire ustez, gai honek ikerketa egokia merezi luke. Galdera batzuk bururatzen zaizkit: zer gertatuko zen maila bereko gaztelaniazko edo ingelesezko azterketa batekin?

Jakina, ikastetxean ingelesez edo frantsesez eskatzen zaien maila gaztelaniazkoa edo euskarazkoa baino apalagoa da, baina ez dugu ahaztu behar ikasle asko aparteko eskolak hartzeaz aparte, ikasle-trukeetan parte hartzen ari dira beste herrialdeetakoekin atzerriko hizkuntza ikasteko eta titulu ofizial bat lortzeko asmoz. Oso interesgarria litzateke adin berekoen emaitzak eta zailtasunak aztertzea ikerketa konparatibo bat egitea. Baina bitartean, beste galdera bat etorri zait burura: ongi egiten ari gara datuak huts-hutsean kaleratzen ikerketa konparatibo bat egin gabe eta faktore guztiak kontuan hartu gabe?

3.4.7. KATALUNIAKO ESPERIENTZIA BATZUK, EUSKAL HERRIAN KONTATUAK

3.4.7.1. ESKOLAREN ROLA

Artur Nogerol irakasleak, *Hizkuntza eta Immigrazioa* hitzaldian, honako hau adierazi zuen: integrazioaren bidean eskolak oso zeregin garrantzitsua dauka, eta integrazioa etorkinei bertako hizkuntza irakastea ez ezik, bertakook etorkinen hizkuntzak ikastea ere bada. Hiztun eleanitzak sortzeko helburuarekin, Kataluniako eskola batzuetan badute *Evlang* programa, beste hizkuntzez jabetzeko. Eskola bakoitzak bere proiektu berezitua izan behar du, eskola horretan irakasten diren eta presente dauden hizkuntza guztiak kontuan hartuta. Hizkuntzak, bestalde, ez dira bakoitza bere aldetik eta aparteko moduan irakatsi behar, elkarlotuta eta harreman estuan baizik.

3.4.7.2. HELDUEN INTEGRAZIOA

Hitzaldi berean (ikus bibliografia), helduen hizkuntz integrazioari dagokionez, Dolores Solá hizkuntza normalkuntzarako teknikariak *Voluntarisme per la llengua* programaren berri eman zuen. Programa hori Euskal Herriko *mintzalaguna* edo *berbalaguna...* antzekoa da. Boluntario eta katalana ikasten ari diren pertsonak jartzen dira harremanetan helburu zehatz batekin: katalanez hitz egitea era informal batean. Horretarako elkartzeko gutxieneko maiztasuna zehazten da (astean behin, hamabostean behin...). Normalean talde txikiak izaten dira.



3.4.7.3. HIZKUNTZA ANIZTASUNAREN ETORKIZUNA

Immigrazioak mesede egiten die katalana edo euskara bezalako hizkuntzei (Carme Junyent)

Carme Junyentek adierazi zuen hiztun anitz hauen etorrerak aukera berria ematen diela hiltorian dauden katalanari eta euskarari. Jakin behar dugu profitatzen etorkinek dakartzaten hizkuntza-aniztasuna: gizarte eleanitza sortzen badugu, errazago gordeko da hizkuntza aniztasuna. Honen adibide garbia berebereena da. Berebereek katalana normaltasunez erabiltzen dela ikusten dutenean, Kataluniako eta beren herriko egoera, biak antzekotzat hartzen dituzte, eta horren ondorioz, euren hizkuntzak ere balio duela pentsatzen dute; beraz, gehiago erabiltzen hasten dira. Aldiz, gaztelanian erabiltzen den lekuetan, mezu koloniala indartzen ari gara. Badirudi hau esaten ari garela: *zure herrian jazotzen dena normala da, zilegia da, eta hori guztiz suntsigarria da hizkuntzarako.*

Gainera, bai euskarak bai katalanak, badaukate hiztun gutxi dauzkaten hizkuntzen abantaila bat: hitz egiteak taldean sartzea ahalbidetzen du. Leku egokian jaio ez dena ez da sekulan ingelesa izango, ingelesez primeran hitz egin arren, ingelesa baita nortasunik ematen ez duen hizkuntza delako. Beste hizkuntza batzuek, aldiz, lortu egiten dute hori. Kasu horietan, bertoko hizkuntza bereganatzen dutenek naziotasuna eskuratzen dute *paperik* ez eduki arren. Integrazteko aukera da eurentzat. Eta jakina, honelako egoerak lagundu egiten die egoera zailean dauden hizkuntzei.

- *Grup d'Estudi de Llengües Amenaçades* taldeko ordezkariaren esanetan (Carme Junyent), elebitasun egoerek hizkuntza gutxituaren ordezkapen prozesuan bukatzen dute, beti; eta irauten duten hizkuntza gutxituak, egoera anitzagoetan daudenak izaten dira. Horregatik, gure (katalana nahiz euskara) egoera elebidun hilgarritik salbatzeko aukera ikusten du berak etorkin uholde hau.

Hauek beren hizkuntza gutxituaren kontzientzia hartzen duten neurrian baloratuko dute gure hizkuntza gutxitua ere. Baina, noski, horretarako guk beraien hizkuntza gutxitua baloratu egin behar dugu. Berebereei edo aimarei gaztelaniaz hitz egiten badiegu, beraiek ere arabierara edota gaztelaniara joko dute, beren hizkuntza baztertuz, eta, orduan, akabo beraien tamazight eta aimara eta akabo gure katalana eta euskara ere. Carmeren ustez, ez da gauza bera hizkuntza normalizatuta dagoen komunitatera datozen etorkinekin sortzen den egoera eta hauen integrazioa bideratzeko egin beharreko lana edota bertako hizkuntza oraindik normalizatu gabe egonda, beste hizkuntza bat nagusi den komunitate batean sortzen den egoera, Euskal Herrikoa kasu.

- Aurreko etorkin uholdeak eragindako egoera normaldu gabe, beste uholde bat datorkigu, lehengoa baino ahulagoa, oraingoz. Baina bigarren uholde honek, badirudi batzuetan estali egiten duela lehengoa, eta, horren balantze erabatekoa egin gabe egin nahi diogula aurre bigarren honi.
- Hitzaldi berean, etorkinez osatutako mahai-inguruko tamazight-ak hauxe gogoratu zuen:



Ni Bilbora Kataluniatik bueltan nentorren. Katalunian hasia nintzen katalana ikasten, baina Bilbora etorri beharra egokitu zitzaidan. Buruan nekarren etorri bezain laster euskara ikasten hastea, Bilbon euskaraz hitz egiten zela uste bainuen. Bilbora iritsi eta konturatu nintzen jendea gaztelaniaz bizi zela. Urte mordoxka daramat hemen eta beti buruan izan dut euskara ikastea, baina oraindik ez dut ikasi. Bilbon ez da beharrezkoa eta ikasteko aukerak ere ez daude oso eskura. Haurrak ere askotan gaztelaniazko irakaskuntzara bideratzen dizkiguzue...

3.5. AISA IKASTAROAK

Aisa harrera-ikastaroak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak HABEren bidez sustatutako egitasmo bat da. Egitasmo hau Etxebizitza eta Gizarte gaietarako Saileko Immigrazioa Zuzendaritzaren lankidetzarekin bideratu da.

- **Xedea**

- Etorkinek hemengo gizartea, ohiturak, etab. ezagutu eta euskara ikasteko lehendabiziko urratsak ematea.
- Etorkinak euskarara hurbiltzea, euskal gizartean hobeto integra daitezen. Izan ere, ikastunitate guztietan ikasleei aukera ematen zaie beraien ohiturak eta gureak alderatzeko: janzkeran, familian, jateko orduan...

- **Norentzat**

- Euskal Herrian bizi diren eta euskararekin harremanik ez duten kanpoko atzerritarrentzat.

- **Zein hizkuntzatan?**

- Ikaslearen liburuak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita daude.
- Hiztegian erabilitako hizkuntzak hauek dira: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, arabiera, bereberera eta txinera.

- **Metodologia**

- **Atzetan Oinarritutako Ikaskuntza (AOI)**. Beste modu batean esanda, zereginetan oinarritutako ikaskuntza da. Eredu horren ardatza, eguneroko bizimoduan egiten ditugun antzeko ekintzak eta jarduerak ikasgelan gauzatzea da, lau trebetasun komunikatiboak erabiliz (mintzamina, irakurmena, entzumena eta idazmena).
- Ikasmaterial hauekin etorkinek **ulermena** garatuko dute nagusiki, kaletik doazela errotuluetan jasotzen diren hitzak ezagutu eta galduta ez sentitzeko. Hitz egitekoan, laguntza eskatu edota gauzak nola deitzen diren galdetzeko gutxieneko gaitasuna ere lortuko dute. Hainbat esaldi ere buruz ikasiko dituzte esaldiaren barruko hitzak analizatu gabe, adibidez: ...gustatzen zait, ez zait gustatzen, nola duzu izena?...



- **Materiala**

- **Lau liburu eta hiztegi bat.** Hiztegia bi formatotakoa: liburua eta CD-a. Hiztegia oso garrantzitsua da: hasierako maila honetan, hiztegiari garrantzi berezia eskaini zaio. Horrexegatik antolatu dira ikastunitateak gaien arabera (familia, eskola, garraio, osasuna, kirola, azoka...), hiztegiaren lanketa sistematikoa eginez, eta horretarako, irudizko hiztegia zazpi hizkuntzatan argitaratu da.
- **Bi bideozinta**

- **Irakasleentzako laguntza**

- Talde birtuala harrera-ikastaroetako irakasleentzat, HABEren webgunearen bidez.


- **Baldintzak eta antolaketa (2003-04 ikasturterakoak).**

Taldeek bete behar dituzten baldintzak, dirulaguntzak jaso ahal izateko:

- Taldea osatzea: 10 ikasle, eta gehienez, 18
- Etorkinak izatea
- 60 orduko ikastaroa izatea. Astean 6 ordu, hiru egunetan banatuta.
- AISA materiala erabiltzea
- Udalek nahi duten euskaltegia aukeratuko dute harrera-ikastaroa antolatzeko.
- Irakaslea euskaltegi homologatu bateko langilea izatea.
- HABEk normalean eskatzen dituen fitxak betetzea (irakasle, ikasle eta ikastaroaren datuak, ebaluazio fitxa...)


- **Orain arte Aisa ikastaroetan parte hartu duten ikasleak 2003-2004 eta 2004-05 ikasturteetan (2004ko irailtik ekaina arteko ikasleak)**

Orain arte, 2004ko abendu arte, EAEn 100 ikaslek hartu dute parte Aisa programan. Kopurua nahikoa txikia izan arren, euskara ikasi nahi duen etorkinaren perfila egiten lagundu ahal digu.






Adin tarteei dagokienez, ikus dezakegu 26 urtetik 30erako tartea dela handiena alde nabariarekin (%31). 16 urtetik 20 urtekoen artean, %6; kopuru hau baxu samarra da kontuan hartzen badugu adin horietako asko oraindik ikasle direla eta besteek baino denbora gehiago izango dutela ikasteko. 45 urtetik gorakoen proportzioa ere txikia da, baina euskaltegietan matrikulatzen diren ikasleen kopuruarekin alderatzen badugu, nahikoa normala da.



Grafiko honetan ikus dezakegu matrikulatutako ikasleen portzentaia. Kasu honetan esan dezakegu emakumezkoen eta gizonezkoen aldea nabaria dela. Gizonezkoen eta emakumezkoen proportzioari dagokionez, esan behar da EUSTATEK emandako datuen arabera, alde nabarmenak dira herrialde batetik bestera. Adibidez, Kolonbiatik, Ekuadorretik eta Brasiletik etorritakoen artean, emakumezkoen proportzioa askoz handiagoa da.



Ondoko grafiko hau ongi ulertzeko, herrialdeak launaka banatuta daude ezkerretik eskuinera. Lehenengo lerroan, lehendabiziko lauak, eskemaren ezkerrean kokatuta daudenak; jarraian bigarren lerroko herrialdeak : Brasil, Dominikar Errepublika...





Herrialde bakoitzaren gainean kopuru bat agertzen da. Bertan adierazten da herrialde horretako zenbat ikaslek hartu duten parte Aisa ikastaroetan.

Ikasketa mailari dagokionez, lizentziatuak, diplomatuak eta magisterio ikasketak dutenek kopuru osoaren heren bat osatzen dute, %33. Eskola graduatua eta UBI edo LH II ikasketak dutenak beste heren luze bat dira: %38, eta bestelako ikasketak egin dituztenak, % 29.



Lanbidearen araberako kopuruetan, ikasleak (16), langile espezialdu gabeak (14) eta besterik (35) dira multzo handienak. Dena dela, konturatu behar dugu erabiltzen ari garen laginak oso txikiak direla eta oraingoz ezin dela euskara ikasten ari diren ikasle etorkinen tipologia bat definitu.

Aisa taldeen inguruko datu guztien informazio iturria: HABE



BIBLIOGRAFIA

- *Hizkuntza gutxiagotuen globalizazioaren aurrean*. Pablo Suberbiola. HIZNET 01-02eko sakontze egitasmoa
- *Hizkuntza gutxiak nazioarte mailan*. Patxi Juaristi eta Andoni Barreña in HIZNET 04, 1. irakasgaia.
- Informe sobre el Desarrollo Humano 2004. *La libertad cultural en el mundo diverso de hoy*. Programa de las Naciones Unidas para el Desarrollo (PNUDrako argitaratua) Mundi-Prensa argitalpenak, 2004.
- Eskubideei buruzko hitzaldia. Eduardo Galeano
- *El nuevo orden lingüístico*, artikulua. Joshua A. Fishman.
- UNESCO Euskal Herria. Bake Kultura Fundazioa. Unescoren webgunetik ateratakoa.
- www.unescoeh.org. Joseph Pothén artikulua.
- *Un pueblo en la frontera*. Luis de Uránzu. Luis de Uránzu Kultur Taldeak argitaratua.
- *Apolinar Gal Gainza* (artikulua). Alvaro Behobide Peralta. Bidasoako ikaskuntzen aldizkaria. Luis de Uránzu Kultur Taldeak argitaratua.
- *Crónicas del Bidasoa*. Juan Luis Seisdedos Bouzada. Ikerlanak II, Luis de Uránzu Kultur taldearen aldizkaria.
- Irungo kokapena: www.irun.org
- Aminata Diane, artikulua. Egunkaria, 1999ko azaroak 24, 19. or.
- Irun udal aldizkaria (2005eko otsaileko alea)
- *Lo que el río vio. Biografía del río Bidasoa*. Luis de Uránzu. Luis de Uránzu Kultur Taldeak argitaratua.
- Alberto Sarramon, *Bearnese, Gascones y otros franceses en la Pampa*. Biblos Azul editoriala, Argentina 1994.
- Sánchez Carrión Txepetx, 1999, *Márgenes de encuentro Bilbao y el euskara. Aplicación sociolingüística de la territorialidad*. 182,134 eta 316 orr. *Un futuro para nuestro pasado*, 1991.
- Julen Arexolaleiba Biteri. *Europar eta munduan aniztasuna: etorkizuna=etorkintasuna?* Artikulua in Bat aldizkaria, 52. zenbakia. 2004ko iraila



- *Arquitectura en el Paseo Colón de Irun, desde 1865*. M. Victoria Martínez Gómez. S.S.-443/98
- *Isileko gaupasa*. HABE aldizkaria, 58. zenb., 18-19 orr.
- *Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak*. Zesar Martínez, Kontxesi Berrio-Otxoa, Olatz Altuna eta Nekane Jausoro. HIZNET 2004-05 ikasturtea.
- Francesc Carbonell i Paris, *Hezkuntza zibiko, arrazista eta interkulturala erdiesteko dekalogo*, in www.behatokia.org/sinposioa/dokumentuak/Arexolabeitia
- Felix Etxeberria. *Hizkuntz ereduen sistemak berea egin du*. Hizkuntz eskubideak hezkuntzan, Nazioateko Sinposioa.BEHATOKIA.
- Pau Bilbao Sarria, *Hizkuntz eskubideak hezkuntzan, Nazioateko Sinposioa.BEHATOKIA*.
- *Euskara eta etorkinen hizkuntza integrazioa*. Amelia Barquín. www.erabili.com. 2005-01-17.
- Lluís Maruny eta Mónica Molina, *Identidad sociocultural y aprendizaje lingüístico. El caso de la inmigración*. Textos 26, 2001eko urtarrila, 55-64 orr. eta 62 or.
- www.aulaintercultural.org
- *Atzerriko immigrazioa Lea Artibaiko Amankomunazgoan*, Cristina Blanco Fernández de Valderrama, María Caballero Bellido, Xabier Aierdi Urza, Isabel Berganza Setién eta Saioa Bilbao Urquidi.
- Sami Naïr, *Cinco ideas falsas sobre la inmigración en España*.
- Artur Noguero, *Hizkuntzak eta Immigrazioa* hitzaldia, UNESCO eta Eusko Jaurlaritzak 2005eko otsailaren 8an eta 9an Bilbon egindako kongresua. Argia aldizkaria, 2005eko otsailaren 20koa, 50. orrialdea.
- BAT SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIA. *Euskararen kale-erabilpena Euskal Herrian*. Olatz Altuna Zumeta. Euskal Kulturaren Batzarrea. (1998ko urria)
- BAT SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIA. *Euskararen kale-erabilera. Txillardegiren eredu matematikoa*. Xabier Isasi eta Arantxa Iriarte. Euskal Kulturaren Batzarrea. (1998ko urria)



- **SIADeco SOZIO-EKONOMI IKERKETA ELKARTEA (1995) *Hizkuntza Erabileraren Neurketak Irun 1995*. Donostia. SIADeco. (1995)**
- *Hizkuntzen ikas-prozesua Txepetxen teoriaren ildotik*. Corpus eta Status bilduma. ISBN: 84-604-4606-9.
- Euskonews & Media 191. zbk. (2002/12/6-13) *125 años del Centro Vasco Laurak Bat de Buenos Aires*.
- *Logros y retos de la educación plurilingüe en el País Vasco*. Felix Etxeberria Balerdi, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Fòrum Universal de les cultures. Bartzelona 2004.
- *Kataluniako esperientzia irakaskuntzan erromanikoak ez diren hizkuntzetako gazteekin*. David Caldeira i Bacardit; Etorकिनak eta Hizkuntza hitzaldia.
- *Haur etorkinen euskarazko integrazio linguistikorako egitasmoa*. Irungo Udaleko Euskara Zerbitzua.
- *Ongietorriak programa: Euskararen erabilera gunea*. Irungo Udaleko Euskara Zerbitzua.
- Aisa taldeak: 2003-05 datuak . HAbE.
- Irungo Gizarte Ongizate Arloko Immigrazio Plana.
- Resumen de la sesión *Agentes a favor de la diversidad lingüística*. Forum de Barcelona 2004. Aditu batzuk.
- *Modelos de política y planificación lingüísticas*. Forum de Barcelona 2004. Aditu batzuk.
- *El nuevo orden lingüístico* artikulua, Joshua A. Fishman.
- *Euskara birpentsatu beharra* artikulua, Iñaki Martínez de Luna. Argia 2004ko abenduaren 19koa, 1.971 zenbakia.